

JEAN BARBIER PIARRES II

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Piarres II, Jean Barbier (Ane Loidiren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1996.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PIARRES II

JEAN IBARNEGARAI
Gure Eskualdun Deputatu Soldadoari
* * *

Gerla Handiko Soldado Guzieri

PIARRES BIGARREN ZATHIA

I

ETSAIARI BURUZ

Gerla handiko soldado gaitzak, zuen ongi gorestekoa,
Otxalde eta Elizanburu koplari ziren beharko.
Heien eta Zaldubiren orde othe nauzue nahiko?
Bozez mila banitu gaur nere, oro nuzke zuendako!
«Adios aita, adios ama, adios ene laguna,
Adios ene herri maitea, herrietan maiteena!...
Bihotzean ezarri ondoan gure nausi Jesus ona,
Lerro-lerro, joan ginen oro etsai higuinarengana.»
J.B.

Intzireka, xixtuka bazoan soldado-trein luzea, suge handi bat iduri, aboztuko kanpo ederraren erdian.

Han urrun, Larrune-mendia bere sorbaldak goitituz ari zen, eskualdun soldado gazteak egin ahala luze ikusi beharrez oraino, etsai higuinari buruz zoazila.

Eta Larruneri beha, ixil-ixila bazoan Piarres ere. Han, mendi handiaren oinetan, ibar-muthur batean, nigarrez utziak zituen bere ama, bere arreba, bertze ama bat oraino, egun batez beharbada haren ama izanen zen ama bat, Jainkoak hola nahi balinbazuen segurik!...

«Itzuliren zira, Piarres; itzuli behar duzu, Oihanaldekoengatik, Lizartzakoengatik. Gure aingeruek begiraturen zaituzte!» Goñaren hitz horiek, maitetasun garbienaz betheak ez othe ziren? Bihotza phizten zioten muthil gazteari, oren dorphe hartan... «Jainkoak adituren zaitu Goña! Oihanaldekoengatik, Lizartzakoengatik itzuliren nau zuen guzien artera!...».

Artho-landa handi baten buruan, keeta baten aldean, gizon adineko bat, athorra-mahunketan betbetanikusirik, orhoitu zen Piarres, bere aita, han, Oihanaldeko azken bihurgunear, xutik hola utzi zuela, orai bost egun, —mende bat!— bertze keeta baten aldean. Pil-pil egin zion bihotzak, zeren zinez maite zuen aita hura...

Bainan, treina, hain xuxen, eliza xuri baten aldean iragaiten ari zen; eta barneko sukar hura eztitu zitzaion eta gero erori, bertze eliza batez betbetan orhoiturik, bere Senpereko eliza handiaz. Eliza hartan, igande goizean, barna-barna bihotzean hartu zuen Jesus eta berekin ereman, traba guziera buruz. Borthitz behar zuen eta bihotzdun; borthitz eta bihotzdun izanen zen...

Hainbertzenarekin, Larrune itzali zitzaion edo, hobeki, emeki emeki suntsitu uhartze zola-zolan.

Bertze mendi batzu biderat heldu zitzaizkon orai hego-aldetik; bainan ez

ziren hek, Eskual-Herriko mendiak. Eta behako bat doi-doia emanik harripeña ilhun heieri edo, ezker eta eskuin, luzatuz zoen uhaitz handiari, bere laguneri buruz itzuli zen Piarres.

Sukar bera begietan ikusi zioten orori, sukar minena segurki. Wagon handian, harat hunat bazabiltzan oraino, pareteri eskuak, andarka. Zizpa eta pusketeria guzien erdian xutik, bazuten oiuhu, bazuten hirri. Bainan min egiten bezala zuen heien hirriak. Ezagun zen, guziengatik, eskualdun eta landes hek orok, han, urrun, bertze nonbeit zutela gogoa!

Non ziren axtiko harramantzak, lau egun dorphe Baionako gaztelu kaskoan iragan ondoan, Sant-Izpirituko zubian hunarat heldu zireneko harramantza hek oro? Hiri guzia han zen —eta ez othe Eskual-Herri guzia?— herioari buruz hurrats berean soldadoak zoazilarik. Herioa? Bainan nork herioa zuen buruan tenore hartan? Musika... errepiketari ari zen, han, aintzin hartan, erreximenduko bandera maitearen ondotik. Erdian, gibelean, non-nahi, atabalak eta turrutak, errabia gorrian ari, bethi ari, nondik-nahitik ari! Aintzindari gorenak zaldiz, koonela lehen-lehen, oro jauzteka, zapartaka! Xixpa muthur guziak dena lore eginak ziren, karrika bururat soldado gaixoak heldu ere gabe. Haur batzu, gazte atrebitu batzu, lephotik lotzen ere zitzaizkoten non-nahi, kapota-gainak ere loratu beharrez, edo bixkotx eta bonbona, xokolet eta fruitu, zernahi puskaz zakuak hanpatu beharrez. Loreak oraino, bethi loreak, burrustakan heldu athe-leiho guzietarik! Eta hango oihuak, hango karrasiak!

«Biba berrogoita bederatzigarrena!
Biba Frantzia! Kuku alemanak!...»
Buruaren galtzeko ere bazen egiazki!

Eta gero, trein izigarriak, koka-ahala betherik, noizpeit abiatu zirenean, jendetze haren guziaren orroa!

Ikaragarria zinez! Zerua nola ez zitzaioten bada erori gainerat tenore hartan?...

* * *

Eta orai, itsasoaren burrunba urruneko bat bezala, han zituzten, beharrietan, harramantza hek oro; eta zozotuak bazoazin, herriz herri, zelaiez zelai, oihanez oihan, eta gero eskualdez eskualde, nehon guti geldituz.

Piarresek, aspaldi ja, botaiak zituen Baionako loreak oro. Geldi-toki handietan, berriz ere oihuak, berriz ere harramantzak. Bainan esker gutiago egiten zioten jada etsaiari buruz zoazin soldado hek. Lorerik aski bederen bazuten harturik, «hamar hil-herrietako hobiak oro estaliko ere baitziren lore heiekin», soldado zahar batek goratik erran zuen bezala.

Zakuak berak, nahiz ederki hanpatuak, ahantzirik bezala zauden xoko guzietan, eta nehork ez zioten minhandirik egiten.

Bainan gero, gorphutzak berea behar duelakotz bethi, eta ez gutiago hogoita bortz urthetan, lothu ziren oro beren pusketerieri. Eta, hantxet, soldadoz kankarrikaturik, trein handiek elgar kurutzatzen zutela gau ilhunean, Piarres eta haren lagunak, kanita eskuan, jan eta jan ari ziren. Xahakoak ezker eskuin bazabiltzan airean, eta hirriz adi zitezken orai... biharko gudulariak.

Eta gero, lehertuak, burrunba ilhun bera beharri barnean, lokartu ziren guziak; noiznahi atzarriakhatik, amets itsusi zerbeithek soberaxko harrotzen zituelarik.

Harmetan guzia, Frantzia bazoan Iguzki aldera, berrogoi eta lau urthe hartan etsaiaren oin-pean intzirez zagon Alsace-Lorraine eskualdearen beretzera. Zoko guzietarik, hatsantuak, xixtuka, sua zariotela gau ilhunean jalitzen ziren treinak. Suge handi batzu iduri, lerro lerro, jauzteka bazoazin oro, harat, etsaia igurikatzen zuten tokirat, elgarri aintzindu nahiak.

* * *

Lo pisu bat eginik, bat bertzearen ondotik atzarri ziren beraz oro wagon edo gurdi handian. Begitarte zimurtuen torratzen ari ziren orai, begiak ubel, aho-gozoa kirets. Kafe bero bero batek errepixkolatu zituen beharrik, eta lasterxko.

Piarres bere lagun-minetarat itzuli zen orduan. Jainkoak hola nahirik, lau senpertar baziren elgarrekin, buruzagi beraren azpiko behar baitziren lauak. Philippe, Paul, Mixel eta Piarresek elgar maitexko zuten jada! Garaztar bat bazuten gero, Joanes, lagun hoberik ez baitzitaken nehon: ona, prestua, alegera... ezin gehiago.

Kafeari hurrupaka, belharrari pafaka, elgarri kontra eman ziren, kanpoari begira eta begira. Non othe ziren?

Non ibilirik, non iraganik? Bat ez zen heien artean hori zakienik. Gora gora, krizkola batean hasi zen Joanes Garaztarra:

—Errak, to, Piarres, ez diat Larrune muthurrik ikusten hor gaindi? Nun othe gituk, gaurgoiti?

—Batere ez zakiat; bainan urrunxko, han, gibelean utziak ditiagu Garazi edo Lapurdiko mendiak. Sekulan ikusiko ere othe ditiagu gehiago?

—Balinba! Briepolatu! Zer uste duk ala gerlarat doatzin guziak gerlan gelditu beharrak diela?... Nik segurik, ene hexurak oro gibelerat ekarri gogo ditiak. Baditakek bat edo beste Izurako Daunatuak xuxenduko dazkitan. Bainan guziak han izain dituk: «A vos luméros!... Pressan, pressan, pressan... Manqué person, mon achudant!»...

Philippe, Paul, Mixel, Piarres, Joanes bera, oro hirriz ari ziren, haur handi batzu bezala.

«Garizumari berari hirri eginaraz hezake, debru Garaztarra!...

—Hala duk eta!

—Ez gaitik, amak ikusten!...»

AMA! ama gogoan bazoazin beraz eskualdunak! Oren lazgarri guzietan, ama lehenik aiphatu behar! Guduan eroriko direlarik, geroxago, Jainkoaren eta zeruko Amaren izenarekin, lurreko bere amaren izena batek ere ez ahantziko!!!

Ama gaixoak, gure ama maiteak! Dohain ederragorik ez baitauku sekulan zeruak ez egin, ez eginen!...

Ama Piarresek hola aiphatzean, durduzatu zen Joanes gaizoa, begiak nahasi bezala zitzaizkon doi-doiako bat. Ahoan zerbeit iretsirik, berriz hasi zen erasian, bainan aphilagotik:

«Hobe gindikek, orai ere, ama gaixok beren haurrak ikusteko menean oro bagina... Bainan, to, zertako behar ditiagu gure gogoak ilhundu sobera? Ikusiko duk, guri ohartu orduko, lapinak iduri, tarrapatata ihesari emain direla alemanak. Lagunduko ere ditiagu, zalu-zalua tokien husten»...

Eta, ezker, eskuin, solas berak zeramazten han ziren bertze soldadoek orok. Haur elheak, egiakzi!...

Bainan, haur batzuek baino gehiago, zer zakiten hastera zoan gerla ikaragarriaz?

* * *

Bi egun hartan bidean ziren jada, Baionatik aboztuaren zazpian urrundua. Bederatzian, Mont-le-Vignolle herrian ziren, bide luzeak umatuak.

Hamabian gero, Toul hirirat buruz abiatu ziren oinez. Hiru egunez, tapa taparen gainean egiten dute, Royaumeix, Grosrouvres eta Lay-Saint-Rémyn arratsetan geldituz. Urrunerat, Pont-à-Mousson aldetik heldu, entzuten dute, lehen aldikotz, kanoi-pezen orro handia.

Xixperi hurbil, xixpa hek helmenean, lurrean lo egiten dute gau hartan. Eta bihotzak jada pil-pil jotzen diote.

Bururik ez dute kurtzen. Bainan, sukar batek hartuak dauzka guziak. Laster ikusiren othe dute etsaia? Ikusiren ere othe dute batere?...

Piarres, gau-beilari landes lagun batekin karrika buru batean emana, ernerik zagon harmetan, dena gogoeta.

Gerla zen beraz! Han, urrun, jada, guduan ari ziren! Oinezko soldadoen aintzinean zaldiz jiten diren uhlanhetarik bat edo bertze ager balakio betbetan aintzinerara?... Hantxet, bihurgune hartan, zer da beltz hura? Ez othe da mogitu? Segur mogitu dela! Heienganat huna non heldu den, bere kaska zabal aphalarekin... Huna zaldiaren urhatsa, harrabotsik ez duela kasik egiten gau ilhunean...

Eta gero, deusik ez gehiago! Suntsitu da Piarresek bere sukarrean ikusi uste izan duen mamua. Haren aldean, landes laguna ez da durduzatu ere oraikotik...

Bainan, eskua tinko xixparen gainean, Piarres han dago, begiak harmaturik. Izarrak, gain hartan, inguruka dabilta ixil-ixila, eta kanpo hetako xakurrak oro sainga ilhun batzuetan ari dira.

Eta Piarresek badaki orai zertako den, gaur, xixpa bat eskuan, han, iguzki-aldeko hiri muthur batean.

Frantses-Herriaren mokor bat, mokor ttiki bat zaintzen du harek ere, han, harmetan. Ehun milaka, bertze soldado batzu baziren, non-nahi bertze lur-mokor batzu gerizatzen zituztela hala hala. Eta Frantzia, Herri Handia, lur-mokor hetaz guzietaz egina zen. Lur-mokor hetarik bat zen Eskual-Herria, Eskual-Herrian Senpereko herria.

Lur-mokor hetan, heien gainean altxatuak, han ziren haren gibelean, aintzinean, ezker, eskuin, orotan, herriak, etxeak, elizak, hil-herriak. Herri hetan, etxe hetan zauden... aita-amak, haurrideak, haurrak, hil gaixoak. Eta, hil eta bizi, hek guziek bakean bizi nahi zuten eta lo egin deskantsuan.

Eta Eskual-Herriko itsas-hegiez, mendi zelaiez, oihan eta alhorrez orhoitu zen Piarres. Orhoitu Oihanaldeaz, Oihanaldeko guziez, aita-ama samurrez, haurride maite hetaz guziez. Goaña Lizartzakoaz orhoitu zen, eta tinkoago lothu zitzaion bere xixpari...

Ethor ziteken etsaia! Haren eta maite guzien artean, soldado gazte heien bulharrak han ziren, burdinaren pare altxatuak...

II ETSAIA!!!

Hiru hogoi eta hamarreko soldado zahar maiteak,
Ez zaituztet ez nik mendratuko, sobera zaitze handiak;
Bainan zuhaurek erranik dakit, badirela jaunen jaunak...
Gerla huntan ditugu ikusi soldadotan handienak!

J.B.

Etsaia ethorri behar zen, bainan, ez igurikatzen zuten aldetik. Bere omena histen zuela sekulakotz, etsai hori, zuzen guziak ostikatuz, auzo erresuman gaindi heldu zitzaukun, jendetasun guzien kontra, lege guzien kontra. Eta, auzo erresuma hori, Belgika ttikia, bere Erregea lehen, xutitu zen guzia, bere ohorea... bizia ere baino gorago emaiten zuela.

Itsas hegi-hegiraino jada Belgikako armada xumea bere aintzinean egorria zuen alemanak, gudu dorpeenen gostuz. Bainan, itsas hegi horri, Errege Albert, bere soldado gaitzekin, aztaparka lothurik, hura handik ez zezaken mogiaraz, ez eta zehe batez. Beren Presa edo Barradera handiak belgikanoek zabaldurik, itsaso bat hedatua zen orai heien eta etsaiaren artean. Xokoan bazen xokoan, Belgikako erresuma bat bazen oraino, xutik; eta frantses soldadoa heldu zen lasterka, hari laguntza ekarri beharrez.

Tarrapatan iguzki-aldea utzirik, berrogoita bederatzigarren erreximendua treinetarat berriz hupaturik, bazoan orai hura ere ipharrari buruz. Aboztuaren hemezortzia zen. Jeanne d'Arc Sainduaren Domrémy herriari aski hubildik agur

erranik, (Darré, Senpereko jaun errient xaharraren erranez ongi orhoitu baitzen tenore hartan), Piarres, Pagny-sur-Meuse hirian iganik, Fourmies aldean jautsi zen biharamunean, bere lagun guziekin. Soldadoa soldadoaren gainean heldu zen, xoko guzietarik.

Aboztuaren hogoiean, Belgikan sartuak ziren, eta Hestrud-en arratsean gelditu zirelarik, bazuten begitarte hango jende gaixoarenganik! Arroltzetarik eta burra hoberenaz orratu etxe-ogitik hasirik, goxokeriz zernahi bazen han heientzat; arnoa ere ausarki.

Hogoi'ta batean, Thuin hiriari, Gozée herriari hurbil, bi kilometra luze hedatua zen erreximendua; eta bere hetaz orhoiturik, nigarrak heldu zitzaizkon Piarresi, belgikano maiteen loria ikusi eta. Zer alegrantziak, nolako bozkarioa, nolako ongi-ethorria orotan eta guzienganik! Salbatzailerik egundaino hala hartu othe du galtzera doan jendeak?... Gaixo belgikanoak!

* * *

Biharamunean, Gozée herria eta herriaren ingurune guziak ahal zuten bezala gerizaturik emanak zituzten. Goraxago, ezkerrean, Thuin hiriaren aldean hedatu zen Mont-de-Marsaneko erreximendua, hogoita hamalagarrena. Han aintzinean, zonbeit kilometra goraxago, Charleroiko par hartan, kanoi-pezak orroaz ari ziren, orroaz itsuski. Oraikotik kalerna hurbildua zuten, eta ihurzuriak gainean zituzketen laster. Piarres, bere aingeruari othoitz bat eginik, Jainkoari zagon orai eta Ama-Birjinari. Engoitik etsaia heienganat ari zen. Haren lagunak, jada, zubi txar bati hurbil, olha handi baten ondoan, tiroka hasiak dira guti aski; eta, arratsalde erditan, kilometra batean bezala alemanak ikusirik, guduxka zerbeit izan dute berek, bainan beraz aski urrundik.

Eta gero, gau ilhuna gainerat jin zaiote. Xixpak eskuan, han daude oro, zoin bere tokian. Uhartzean etxeak erretzen ari dire, meta-lasto handi batzuen pare. Berriz, non-nahi eraikiak, xakur-sainga saminik baizik ez da aditzen! Orhoitzeko gaua dute guziek.

Hogoita hiruan, goizeko bederatzi orenetan, manu bat heldu zaiote orori: «Baionnettes au Canon! Baionetak xixpa muthurrean!... Ibar-kasko hetan egon behar da, guziengatik!». Eta altzeiru karraska bat entzuten da alhor hetan guzietan...

Ithoka Piarresek kurutzearen seinalea egin orduko, gainean dituzte kanoi-peza alemanak, goraxkotik hastean, hurbil hurbila gero, lurrak oro uzkailltzen diozkatela aldean.

Eta, huna gero etsaia, bere kaska xorrotxak buruan, suge handi batzu bezala, ur-handitik heldu zubian hunarat... Taka, taka, taka, gure mitralleuzak lotzen zaizkote, begien hesteko artean suntsitzen baitire sugeak. Bainan, gero, multzoa multzoaren gainean heldu dira, bethi heldu. Sobera dira, mitralleuzak hek guziak arthikitzeke! Eta orai, herriaren ezker-aldetik herrestan heldu ikus ditezke. Bertze batzu aldiz eskuinetik, bigarren zubi bat iraganik.

Zekale meta batzuen gibelean belhaunikaturik, tiro eta tiro ari dira Piarres eta haren lagunak, eta ez gutienetik Piarres. Espanturik batere gabe, behar den bezenbat —ez gehiago— altxatzen da lastoaren gainean, eta bere xixpa husten, dabla, dabla. Eta huna axuant bat oihuka emaiten zaiola berehala:

«Zer ari zira, gizona? Gerizan gehiago ez zagozkea?...»

Gerizan?... Zekale-meta txar hura geriza bat behar balitz bezala nehoentzat?... Eta etsaiak gelditu behar balire bezala, gure soldadoek tirorik igorri gabe heien gainera?

Eta tiro eta tiro aintzina ari zen Piarres; xixtuka, zoko guzietarik, liztafin alemanak heldu zitzaizkon, liztafin horietarik batek axuant zuhurregia hiltzen ere ziotela alde aldean.

Sobera, eta zoko orotarik, heldu ziren bizkitartean etsaiak! Eta, errabian, gibelerat pitta bat egin behar izan ginuen. Gozéeke oihanxka batetaraino. Bainan, arratsaldeko hiru orenetan, berriz aintzinerat egin zuten gure soldadoek, eta, oren bat ere gabe, gurea zen berriz herria. Bainan, zer ez ginuen ikusi, harat-hunat

horietan guzietan?

Konpainia osoak xirxikatuak izan ziren, mitralleuzen azpian luzaz eta luzaz mogitu gabe egonik.

Etsaiak orduan, urhats bat gehiago aintzinerat ezin eginez, bere kanoi-pezak hurbilarazirik, erhautsi zituen bazter hek oro, eta zekale-landa handiak gorritu ziren berriz frantses odol garbienaz. Ez zen handik mogitu behar! Ez ginen mogitzen, ez ginen mogituko, bertzelako manurik izan arte...

Aleman pezak orroaz ari dire, mitralleuzak karraskan. Hainitz gizon nahiz galduak zituen jada, eta hortako bereko ere beharbada, etsaiak ez zuen bizkitartean etsitzen. Gure themak errabiatua, alderdi guzietarik betan, heldu zen, heldu, oro estali beharrez... Eta gureak han zauden bethi, beren erreka txarraren gibelean, izerdiz, lurrez eta odolez suntsituak. Guttituz, guttituz doatzi kapota urdinak, galtza gorriak, zekale ilhaunen gibelean. Bainan bethi han egoki, aztaparka lurrari lothuak! Dibar, luhosoar kapitaina, oihuka ari zaiote bere eskualdun soldadoeri:

«Emazue hor, putikoak! Jo bethi aintzina!...»

Bost orenak dire! Bostak eta erdiak! Bi oren gabe, ilhuna diteke!...

Bainan, berantegi ez gibelatzekotz, berehala behar da gibelatu...

Eta huna, azkenean, gibelatzeko manua... Ordu zen!...

* * *

Gibelerat abiatu ziren beraz, gibelerat heldu ziren, errabian, beren xixpak bero-beroa gudian eginak, bainan

xixpa heieri esku muthurrak azkarki lothuak.

Piarresen konpainia azken manatua zen, laguneri geriza bat bezala emana, heien eta etsaien artean.

Etsai hori, tenore batez, hurbil hurbila jin zitzaioten, eta lasterka, gero, heien inguratzerat abiatu. Orroaz orduan, eta baionet sistaka, bide eginarazi zioten aleman atrebitueri. Beren kapitaina hila hantxet erori zitzaioten, bala batek kopetaren erdian hura jorik. Bainan, erortzean harek manatu bezala, aintzina bazoazin Frantziarat buruz, erreximenduaren gibelean bethi, etsaiak errabian barreiatuak.

Piarresen, kapitaina hiltzat kolpatua ikusirik, bizkarrean hartu eta, baitezpada nahi zuen berekin ereman. Bainan buruzagi bihotz handikoak berak manatu zion, zalukara joan zadin handik, etsaia berriz hurbildu gabe.

«Hoa lasterrez! Nereak egin dik gaurgoiti... Urrikal bekit Jainkoa, eta gora bethi Frantzia!...»

III GIBELERAT HERRESTAN

Eta, gero, handik berehala, oi egun izigarriak!
Belgikatik herrestaka heldu, gose eta egarriak;
Launazka elgarri lothuak, lothuak'ta lokartuak...
Beharbada, jaten duelakotz... lokartu den gosetuak!

J.B.

Gauaz heldu ziren beraz gibelerat; alemanak ondolik, bainan ez sobera hurbildanik. Kolpatua izanagatik, badaki lehoinak etsaiari buruz itzultzen berriz ere, begiak sutan, orroaz, lurra jauzaraziz aztaparren azpian. Kolpatua zen frantses soldadoa, bainan ez eroria. Hala manatu ziotelakotz, eta hartako bakarrik, errabian gibelerat ari zen, aipatu lehoinaren pare berriz bihurtzekotan.

Belgika gain hetan, orai ondolik zuen etsai harek bere omenak oro

zikinduak zituen eta galduak, hiriak fundituz hobetik edo beharrik batere gabe, haurrak hilez ohakoetan eta bardin beren amen besoetan, geriza ikaragarri bat bezala Belgikako emaztekiak beren lerroen aintzin aintzinean emanez, belgikano soldadoeri buruz zoazilarik. Etsai harek, jada, oihuka zion: haren alde, gain hartan, Jainko Zaharra zela emana; Lurdeko Ama-Birjinak lanik aski izanen zuela, frantseseri harek hautsi hezurren xuxentzen!... Eta burho izigarri horiek nolazpeit jakinik, asalatuak heldu ginen gibelerat, kasik gibelka, etsaiari par eginez noiznahi, non-nahi, aintzindariak hola manatzen zuten aldi guzian. Jainkoak, haren Ama sailduak arbuatuak ginduztela? Ez zitekena, gauza hoi!!!

Etsaiak erran du, zeruko Jainko Jauna:
«Haren alde, gain hartan, zinela emana!!!»
—Ez zare sekulan agertuko heiekin,
Bethi zare, guduan, izanen gurekin!
Etsai horien kontra, zu, Frantziarekin,
Bethi, bethi Zuzenarekin!!!
J.B.

Eta bizkitartean, zenbat bihotz-erdiragarria ez zen gibelka jite hura, tenore hartan!

Halako ilhundura bat heldu zitzaion Piarresi bihotzera, eta sekulan, beharbada, ez ahal da bere herri maiteaz hala orhoitu, nola orduan!

Gaua zen, gau ederra, bainan gauetan beltzena! Alemanen turruta saminak noiznahi aditzen zituen, han, gibelean, kasko hetan orotan. Etxeak, erretzen ari ikus zitezken alderdi guzietan. Alimaleak, su-lamen erdian beren jabeek ahantziak, orroaz sumatzen zituen; eta Gorriaz, Katzoz, bertze Oihanaldeko behiez saminki orhoitzen zen laborari gaztea... Gerla zen beraz! Eta horra zer zen ordu arte ez zakien gerla higuinagarria!

Eta heldu ziren, leher-eginak, gauaz, egunaz, gauaz oraino. Eta berriz haste gero, hala-hala bethi.

Noiznahi, non-nahi, etsaiari buruz itzuli behar, inguratzerat beren buruak ez uzteko. Oren laurden guzietan, gerlako karro handiak aldetik iragaiten zitzaizkoten, frantses kanoiak hala hala, edo bertze erreximenduetako soldadoak.

Zonbeit egun lehenago halako lorietan iragan toki hetan beretan huna non ziren orai agertzen, indarrez hustuak, ethenduak egiazki. Nehor guti zen gaurgoiti herri hetan; jende gehiena ihesari emana jadanik, alemanen beldurrez. Karro tzar batzutarat beren puskarik hoberenak tarrapatan arthikirik, joanak ziren han harat, Pariserat buruz. Haurrak, emaztekiak, karro heien muthurrean nolazpeit kokatuak, mila haturen erdian etzanak, nigarrez oro ari ixil-ixila, ilhunbean. Gizonak, gizon zahar batzu (gazteak oro gerlan izanez), bekhainak ilhun, oinez heldu, kaprestutik zaldiak eremanez.

Herrietan ezin-bertzez gelditu zirenak atheratzen zitzaizkoten Piarresi eta haren laguneri, arima herratu batzu iduri.

Nigarrez ari ziren hek ere; bainan, mehatxu bat ez zuten zonbeit oren lehenago hainbertze mainatu zituzten eta orai herrestan heldu ziren frantses soldadoentzat. Bazakiten jende gaixo heiek, itsasoak leihorra bezala, alemanak Belgika guzia estali zuela betbetan; tropa troparen gainean, trumilka heldu zela etsai hori, hazkar, ikharagarri ere kasik; jin arau, bere sareak orotarar hedatzen zituela. Bazakiten, batto... lau-bosten kontra guduan arizanik baizik ez zela gibellatu gure armada. Bazakiten egun hobeak ethorriren zirela, eta Piarresek beltzuri guti ikusten zioten jende maite heieri. Dohakabe ziren, egiazki dohakabe, bainan hobetik ez zioten emaiten frantses soldadoari.

Herrestan heldu ziren beraz, bethi heldu!...
...Oi egun izigarriak!
Belgikatik herrestakan heldu, gose eta egarriak;
Launazka elgarreri lothuak, lothuak'ta lokartuak...
Beharbada, jaten duelakotz... lokartu den gosetuak!

J.B.

Bai, xutik lokartuak heldu ziren, gauaz, egunaz; hirunazka, launazka lothuak elgarri, lothuak eta lokartuak. Han hemenka kausitu oilo eta xito zonbeitez bertzerik, ahamenik ez jateko!

Nola xutik ere zagozin oraino! Eta, futxo, hurrats handian, izigarrian heldu ziren, kasik lasterka!

Errabian, Joanes Garaztarrak erran ere zion Piarresi:

«To, Piarres, hola bethi joanez, hamabost egun gabe Senperen gituk, Oihanaldeko sukaldian!». Eta halako hirri bat, hirri hits bat egin zion Piarresek! Urrunxko zen Senpere, urrunxko Oihanaldea! Eta behar ere bai!...

* * *

Orhoitzeko egun hetarik batez, arratsalde erditan, Piarresen batallon guzia betbetan gelditu zen...

Zertako? Zer zen?...

Aintzindari multzo bat bildurik, oro aintzinerat beha zagozin, beren larga-bixtak eskuan...

Han, urrun, zaldidun hek zer ziren, nondik atheraiak? Batallonari buruz kalopan heldu, ez zitezken frantsesak.

... Frantsesak izaiterat, guttiegiak ziren alemanenganat hola joaiteko...

Alemanak balire? Uhlan direlako zaldidun hetarik balire?...

Eta larga-bixtak luzatzen dire berriz ere aintzindarien erhi-muthurretan. Soldadoak, beren xixpen gainean finkaturik, beha daude hek ere...

«Alemanak dira! Uhlan zaldidunak!!!»

Alemanak, han, aintzinean? Nondik jaliak?... Bainan, orduan, ahutara hortaz bertzerik bada hor gaindi aleman demonioetarik? Eta heien erdi erdira baginoatzila hola, begiak hetsirik?...

Aintzindariak durduzatzen dira den gutieneko bat.

Ezker-alde oihan bati oharturik, Gomenantak berehala manatzen diote bere gizoneri, oihan hartara joan ditezen lasterrez...

Harat orduko, alemanek ere ongi zakiten oihanaren gainerat erortzen dire sekulako kanoi-pezak, frantses andana bat, hantxet kolpatzen baita eta hiltzen ere, zorigaitzez! Bertzerik ez zuten galdetzen uhlan madarikatuek! Aintzinetik beren artilleriari erran oihanerat igorri gintuzten beraz holaxet, eta, xoro batzu bezala, heien saretarat gu erori!

Doi-doiak egin zuen Piarres hantxet gelditu ez baitzen, eta sekulakotz! Zakuaren gaineko zapatak ereman ziozkan kanoi-ziliporta batek. Eta, Piarresek bere buruarekin egin zuen: bizkar-hezurrari hurbilxko zirela oinetako hek! Eta milesker bat ona erran zion bere aingeru-begiraleari...

Hatsaren hartzeko ephea ere gabe, lothu ziren berriz bideari, bide luze ikaragarriari.

Zorigaitzezko oihanean denbora hola galdurik, etsaiak hurbilago zituzten orai, han, gibelean.

Bat-batean, bixkar gain batean plantatuak, ikusi zituzten artillur frantses zonbeit, beltz beltza beren lau kanoi pulliten ondoan eta xut-xuta. Eta gero, lau kanoiak betan jokaturik, tzirt, tzirt, azote kolpe idor bat sumatu zuten... Kanoi-pezak eroriak ziren jada, han, etsai errabiatuen erdian; ez goregi, ez aphalegi, bainan bai erdi-erdian; eta lerroak, oso-oso, xehakatzen zituzten sega alimale batekin bezala.

Hiru aldiz oraino mintzatu ziren kanoiak. Piarresen eta haren lagunuen loria tenore hartan!...

«Biba, gora artillurrak! Biba 75 kanoia! Berriz, berriz! Bota beretik!!!...»

Eta artillurrak, beren kanoiak bildurik, lau-hatzetan zaldiak, bazoazin jada, sorbaldak goitituz, besoak buruaz gorago altxatuz, beren lagun oinezkoeri oihuka:

«Obuzarik ez dugu gehiago bihirik! Lau, kanoi bakotxarentzat!...»

Hango marrumak eta madarizioneak orduan! Soldadoetarik zonbeit,

tzarrenak, ozarrenak, bazoazin kapitainaren aintzin-aintzineraino, eta ukamiloak mehatxu batean bildurik, oihuka ari zitzaizkon:

«Traidoreak! Traidore zikinak!»

Eta kapitainak, gizon dohakabe hetaz urrikaldurik, herrestakan nola heldu ziren oro orhoiturik, bala batez hetarik bat han berean arthikitzeke orde, bere zaldiaren gainetik hau ihardetsi zioten motz-motza:

«Traidoreak? Bai traidoreak izan ditutzue eta traidore zikinak, heingatik orai, hil-urren hementxet herrestan heldu baitzaizte! Ez baita gehiago kanoientzat obuzik, ez zuentzat jatekorik; gizonik aski ez baigira, gainean ditugun aleman guziera ihardokitzeke... Traidoreak! Bai! Bainan, ez gu! Traidoreak, zuen bozkatze tzar horietan guzietan Pariserat igorri ditutzuen deputatu politikeroak! Frantziaren gainean bizi izan baitira guziak... Horra traidoreak. Eta horien kidekoak, zuetarik asko, horiekin bat egin duzuenak!... Zuen lerroetarai orai, eta berehala gero, zuen onetan!...»

Eta, pixtoleta eskuan, kapitaina zank begietara beha eman zitzaizoten soldado atrebitueri... Eta dohakabe bakar hek jada han emanak ziren, beren lerroan, buruzagi zuhurraren solasak eta beharbada ere pixtoletak... osoki ematuak.

* * *

Makurrak oro gainean behar izan balituzte bezala, bertzerik oraino ikusi behar zuten egun hartan berean.

Erasian artillurrak itzali orduko, oihu bat eraiki zen erreximenduan, lehen lerrotik azkeneraino, gizon hek oro inharrosten zituela erraietan barna:

«Bandera? Erreximenduko Bandera? Non da?»

Eta, hegaldaka, airez-aire, xoko-moko guzietara bazoan galde espantagarria.

Eta banderarik nehon ez ageri!...

Etsaiak beretua othe zuen? Ez balinba holakorik!

Tanpaka ari, bazen han bihotz bat baino gehiago! Unhadurak oro ahantziak ziren; begiak, luzatuz bazoazin alderdi guzietara, nondik ikus agertzen hainbertze gduetan ibili bandera maitea... Jemmapes, Alger, Sébastopol, Solférino! Hitz larri urhezkoek orhoit dira han guziak... Ahalkea orai behar othe du Baionako erreximendu aiphatuak, eta berrogoita bederatzigarreneko bandera alemanek erabiliren othe dute, han, Berlin, beren hiri nausian?...

Orduan ikusi zen gauza bat zinez hunkigarria, bihotzak oro uzkailli baitziozkaten soldadoeri. Bere banderaz hola errenkura zen koonela, bandera hartaz berririk deus ez jakiteaz erhotua, agertu zen betbetan, lau-hatzez heldu, zaldi beltz baten gainean...

Bere soldadoen aldean iragan zen, begiak atheraiak, nehor ikusten ez zuela... Ahalkez estalia, bihotz-minak

erdiratua, bazoan, bakar-bakarrik, etsai izigarriarenganat. Bere bandera gabe, ez zen harentzat gehiago bizitzerik, eta, durduzatzen ere ez zela, bazoan... hiltzera, alemanek hil-gogor agian arthikiko zutela!...

Soldadoak oro, etsaiak gehiago kexatu gabe tenore hartan, geldituak ziren, harrituak. Piarresek lanbro bat bazuen begietan; deusik ez zuen ikusten bere aintzinean...

Orduan berean, oihu bat, orro bat sumatu zen, han, urrunean:

«Bandera! Bandera!...»

Esku seguragoetan ezartzeko, han, aintzin hartan, zapurreri emana zioten atxikitzeke, eta eskutik eskura, urdin, xuri eta gorri, lore handi bat iduri, airean heldu zen Frantses-Herria bere pleguetan dakarken oihal saindua. Koonelari, aintzinerat, jauzian ereman zioten... Eta orduan bakarrik bere baitharatu zen aintzindari dohakabea.

Ametsetarik bezala behatu zion banderari; atzarri zen, nigar bat jin zitzaion begietarat, eta dena sukar zen musu bat eman zion seda maiteari...

Eta orai, xixtuka aldetik iragaiten zitzaizkon bala liztafinez axolatu gabe

batere, hurratsean bazoan berriz Pariserat buruz, bere soldadoen aintzinean...

Eta soldadoen marrumak oro erori ziren kolpez. Tenore hartan sumatua zuten, traidorerik ez zela, heriotzeari buruz lau-hatzka hola, kopeta gorarik eta begiak sutan joaiten ziren aintzindarietan... Ozarrenak ematuak ziren berriz ere, eta pixtolet mehatxurik batere gabe aldi huntan...

Joanes Garaztarrari ez zitzaion atheraldi bat heldu, ez eta burla bat; handi baitzen harentzat!

* * *

Sei egun hartan herrestan heldu ziren beraz. Sei egun! Bethi xutik, bethi bidean! Gelditzerik nehon ez sekulan!

Ahamen on baten egiteko astirik ezin har behin ere! Jatekorik ez bertzalde, beren zakuetan duten hartaz bertzerik! Bixkotxa tzar bat doi-doia hortzen artean! Egarrri bat!! Eta urik ez, noizik behin baizik!

Aboztuaren hogoita bederatzian, Séry-les-Mézières herrian ziren.

Ordu arte, etsaia frango uzkur egona zitzaioten, hurbilegitik atrebitu gabe sekulan. Bainan, egun hartan, ozartu zitzaioten sobera. Nonbeit errexu zadin, behar zitzaion beraz muthurreko bat ona eman.

Bertzalde, Parisko soldadoeri ephe zerbeit eman behar ere zitzaioten, oldarrean gero athera zitezen etsaiaren aintzineran edo bardin sahetsera...

Baratu zen beraz erreximendua, eta, hola, sei egunen buruan, hats pixka bat hartu zuen lehen aldikotz...

Bainan arras arte laburrez. Guise-ko gudu aiphatua hastera zoan. Lanrezak jeneral handiak salbatu behar gintuen egun hartan...

Bixkar gora batzutan moldatu ziren soldadoak.

Eta handik laster, etsaiari buruz abiatu ziren, batzu Homblières-ko alderdirat, bertzeek Lorival eta Cambrie deithu etxaldeak hartu behar eta hartzen ere zituztela.

Hamar orenak irian, burrustan obuzak heldu dire Lorival gainera. Huna gero etsaia, huna kaska muthur-xorrotxak. Bi orenez, tiro eta tiro ari, elgarren bethe badire. Eguerdian, alemanak burrustakan agerturik, turruta soinutan atheratzen zaizkote gureak. Bi batallon oso badoazi à la Charge!...

Uliak bezala, zenbat gizon ez dira orduan erortzen!... Kanoi-pezak orotarik! Taka, taka, taka, zoko guzietarik, kafe-errota edo eihera batzuen harrabots xehearekin, mitralleuzak!... Gibelerat egin behar da berriz ere. Eta gibelerat badoazi, bainan etsaiari tankako bat emanik, tarrapatarik gabe, eta, etsai horri buruz, maiz itzultzen direla. Hiruak eta erdiak ziren, edo nonbeit hola...

Piarresen, bere lagunetaratu zelarik, eskas zuen bere kepia, guduan hura galdurik edo bala xixtulari hetarik bat hurbilxko iraganik. Berak ere ontsa ez zakien... Kaxketa gorri hetarik non-nahi bazen, zorigaitzez, toki hetan guzietan, zekale horien erdian lore gorri batzu bezala han eroriak. Batto bildu zuen bereganat, eta haren esku beltzeri oharturik, Joanes Garaztarrak hirriz erran zion:

—Ago, hi, Piarres! Bolboran mainhatu dituk, araiz, hire erhi-muthurrak!...

—Ez zakiat, to, bainan, bazuan zer egin, tenore batez! Ez haiz alfer egona hihaur ere, gaurgoiti, eta hire erhi-muthur pullit horiek lan ederrik egin ahal die!...

—Ba, hala hala duk, Piarres. Bero ari zian hor gaindi, eguerdi irian... To, huna, Philippe, huna Paul eta hara hantxet Mixel. Eskuko bost erhiak hemen gituk berriz ere. Damurik emana die azken hatsa gure xahakoek! Bestenaz, danga danga, moxkortu behar gindian orai, aleman tzar horier guziak eskapaturik...

Herrestan, hola nork iraun?

Eta, bizkitartean, aboztuaren 30etik eta buruilaren zazpigarren eguneraino, hola iraun zuten gure gizon dohakabeek. Zazpian, Voulton herrian ziren, ethenduak, xutik doi-doia egoki. Gizonaren itxurarik ere othe zuten gehiago?...

Gizonak baino gehiagokoak zirela erakustera zoazin, ezen La Marne ibaiko gudu izigarria hastera zoan.

IV LA MARNE

Bainan, huna buruilako goiz bat, goiz orotan ederrena,
Huna gure zeruko Amaren munduratzeko eguna;
Huna, Joffre, huna Marne ibaia, huna bitoria, huna!...
Gure baioneten aintzinean ihes zoan alemana!!!
J.B.

Buruilaren 8a zen, unhadurak oro kolpez ahantzi behar ziren eguna.
Goiz hartan, ximixtaren pare hegaldatu zen guziek igurikatzen zuten manua:
«Urhats bat ez zen gehiago egin behar gibelerat, eta Joffre jeneral-nausiaren
manua zen, tokiaren gainean behar zela hil, urrunago sartzera etsaia utziko zen
baino lehen!».

Ikare batek hartu zituen hexur eta larru eginak ziren gizon hek oro, eta
ikare harek inharrosi zituen zangotik eta bururaino. Nor zen orhoit gehiago, erdi-
hilak herrestan ethorriak zirela, etsaiaren aintzinean bethi? Etsai horren aldi orai,
bizkarrez itzuliko baitzaiote eta ihesari emanen; ez baita goizegi!...

Arratsaldeko oren batean, hemezortzigarren Corps d'Armée guzia betan
itzulia da, eta berrogoita bederatzigarren erreximendua lorietan badoa, Vendières
herrian barna Marchais hirixkari buruz, etsaiari buruz, eta behin bethikotz aldi
hontan...

«Adio Senpere, adio Garazi! Ez gituk gehiago bidian!» Eta hirriz ari da
Joanes Garaztarra.

Hirriak laster sartzan zaizkote, ezen arratsalde guzian gudurik borthitzena
deramate, Montmiraileko kaskoetan.

Etsaiaren xixpak, mitralleuzak, kanoiak orroaz ari dira edo xixtuka.
Debaldetan... Oihanak, erreka-ziloak errabian garbituak dire. Arratseko bederatz
orenetan, erreximendua, la Meulière eta Aurois-Milos ibar-muthurrez jabeturik,
kasko hetan guzietan, bere odolaz gorritu duen lurraren gainean lokartua, etzanik
hantxet dago guzia, bere xixpak eskuetan... Gora Frantzia, gora egun handi
hartako soldado espantagarriak! Etsaia, harriturik, ihes bazoan gau ilhunean.
Bainan, xakur-alanoak baino ere thematugoak, frantses soldadoak ondolik zituen,
Craonneko ziloetaraino oldarrean eremanen hola baitzuten.

Gau hartan, amets ederrik egin zuten Piarresen eta haren lagunak. Berriz
ere iduri zitzaienten laster bururatuko zela gerla biguina, eta Oihanaldeaz, Lizartzaz
orhoiturik, hirriz lokartu zen senpertar gizon gaztea. Joanes Garaztarra, nahiz
umatua, berant arte mintzatu zen Jon Doni Martietan, Lekumerrin jokatu behar
zuen pilota partida handi batez...

Gizagaixoak! Ez zakiten ongi zeren beha zauden, lau urthe luzez oraino!...
Eta lo zurrungan hantxet zauden, lehertuak oro, beren zango kolpatuak
zapata xehakatu batzutan egosirik.

Bainan, hamabortz gau-egun hetako loak hartzeko zituzten; eta, harri batzu
iduri, lo zauden guziak. Frantzia salbatua zuten egun hartan, eta holakorik
bururatzen ere ez zitzaienten. Tiroak burrunbaka ezagun ziren oraino alde orotarik...
Bainan, azken judizioko karraskak beharko ziren, gizon heien gau hartan
atzarrarazteko!...

* * *

Biharamunean eta ondoko egunetan, erreximendua etsaiaren ondolik
bazoan, errabia gorrian bethi. Vaux, Unchain,
Beaurieux, Craonnelle herriak iraganik, lasterka bethi, huna orai le Moulin
de Vaucler deithu Eihera-errotaren ondoan gudu borthitzenean lothua non den.
Gudian oraino biharamunean, Craonneko azpian.
Bas-urdea bere ziloan bezala, Craonneko harrobietan aztaparka lothua da

alemana, eta buruilaren hamahirutik harat, ez du zehe batez amor emaiten gehiago.

Pariserat buruz, nach Paris, hain ongi, hain xuxen zoalarik, nola makurtu zen von Klück jeneralaren armada?

Nola eta zertako, betbetan bere ezkerrerat hala hartu zuen, kanoi handienak, han, Belgikako bidean utzirik, ustez eta Parise sare-kolpe batean har, frantses armada xehakatu ondoan?... Jainkoaren eta Buruilako Ama-Birjinaren nahi mixteriozkoa!... Eta mirakuilua ere ez othe?

Xehakatu behar zituen gure soldadoak han zituen jada zintzurretik berari lothuak; eta sare-kolpean hartu behar zen Parise handi hartarik atheraiak, liztafinak iduri Galliéni eta Maunoury jeneralen gizonak sista, sista, sahetsetik, gibeletik asikika ari zitzaizkon!

Erleek inguratu jende bat iduri, ihes egin zuen beraz orduan, ihes, ihes, Craonneko ziloak kausiturik, zilo hetan zola-zolaraino sartu arte. Hatsa hartu zuen orduan, erle eta liztafinen eztena xorrotxetarik urrun. Hatsa hartu ondoan, ohartu zen onik ere bazutela Craonneko zilo handiek. Zilo hetan luzaz egon ziteken, laguntza handiagoak bereganatuko zituen arte.

Eta han kokatu zen beraz, berak ongi ez zakiela noiz arte. Urthe osoak iraganen ziren aurkintza hetako alemanek urhats bat ez baitzuten aintzinerat eginen, gibelerat bertze bi urhats egin gabe biharamunean berean, gure soldadoek hola manaturik eta aleman hartzari muthurreko bat ona emanik, bere harrobiatarat itzul zadin lasterrez.

Haren aintzinean, errabian han baratuak, 18garren Corps d'Armée-ko gizonak erreka-zilo egiten ari ziren, erreka hek egunetik egunera bethi eta barnago sartzen zituztela, Craonnellen, Vauclerreko eiheraren, Heurtebiseko etxe handiaren parrean.

«... Gure soldado maiteak
Erreka-zilotan sartu ziren, sator eginak guziak...
Eta nolako sator eginak!...»

Hemezortzi hilabetez behar zuten holaxet, gudu borthitzenetan lehenik, deskantsu hobeagoan gero.

Buruilaren 16an, arratsari buruz, beren ziloetan sartu zirenean, ahituak, higuatuak, ahamenik ez zuten jateko.

Hertzeak kurrinkan beraz luzatu ziren ahal zuten xokoetan. Oilo gosea kantari dela baitiote, kantu guti zuten Baionako gure soldadoek, eta beren uhaleri asikian lothu zitzaizkoten Piarres eta haren lagunak, gosea nolazpeit enganatu beharrez. Lo dorpea, lo pisua, gau hartako heien loa!

Biharamunean, hek ezin atxemanez mainguka zortzi egunez ibilirik, noizpeit azkenean agertu ziren erreximenduko karroak. Ogi zerbeit ekartzen zuten, haizkoraz hautsi behar baitzen, batere hartarik jatekotz... Haragi bat aldiz! Haragia ere zenez, ageri ez baitzuen gehiago. Dena usteldura! Zortzi egun hartako haragia, bero hek guziek mutziturik, kasik hezurreraino usteldua!

Bere zathia eskuraturik, haren jaterat Piarres abiatu zelarik, bihotzak huts egin zion! Firrindilaka arthiki zuen usteldura hura guzia, eta ogi-mokor bat ahoan zehatu beharrez hasi zen. Joanes Garaztarra, hura, ixil- ixila, bazterrera burua itzulirik, haragi izigarriari lothua zen...

Bainan eskarnio guti gosearekin. Zonbeit egunez oraino jatekorik ez zen deus kasik agertu, ez baitzen ere harritzeko, hainbertze harat-hunaten ondotik. Eta lau egunen buruan, berriz itzuli zen Piarres bere haragi usteldua arthiki zuen tokira. Eta, goxara, hantxet, bi begiak hetsirik jan zuen... lau egun lehenago bazterrerat botatu zuen izigarrikeria hura bera, har-meta bat baizik ez baitzen gehiago...

Maltzur-maltzurra behatu zion Joanes Garaztarrak, bainan deusik ez erran orduan.

Bere pokadu higuingarria Piarresek iretsi zuenean hatik, ederki musikatu zuen baxenabartar debruak:

—Ah! Piarres, Piarres! Moko-xuria hi! Ustelduik osoki nahiago hien hire

xitxia, Senpereko pekadak bezanbat ustelduik! Ez hien holakorik salatzen! Moko-xuriari har xuriak eman behar baitezpada!...

—Ago, hi!...

Eta hirriz hasi ziren bi dohakabeak, pipa eta pipa aldiz heien lagunak, goihendura orori nausiturik, Piarres hola jaten ikusi eta...

* * *

Zorionez, arrats hartan berean ethorri zitzaizkoten jatekoak, frango nasaiki eta frango moldean. Eta, gizon hek oro, hamikatuak egiazki, ari ziren jaten, jaten, jaten!... Iztzeko ere bazen egiazki, irets eta irets nola lothuak ziren, etsaiak eta oro ahantzirik!...

Egun dorpe eta izigarri hetan ehunka erori soldadoen ordainak ere jin zitzaizkoten orduan. Baionako gazteak oro ez zirena han eroriak, Gozéen, Lorivalen, Marchaisen, Craonne, Craonnelle eta Vaucler aldean? Bertze zenbat oinon ez ziren erori behar toki madarikatu horietarik zenbeitetan, eta oraino Oulchen, Heurtebisen, Glennen, Meurivalen, Maizyn berean!...

Hola ethorri soldadoetarik multzo bat Piarresen konpainiako eginak ziren, eta holaxet, ethorri zitzaizkoten Jérôme, bertze Paul eta Manex senperrak. Batzuen eta bertzeen loria, elgarrekin hola suertatzen baitziren! Joanes Garzarrak phedeiku bat pullita egin zioten ethorri-berrieri, eta hiru adixkide, hiru anaia gehiago baziren handik harat sator-zilo ilhun hartan. Jérômek hirri eginik Garzarraren phedeikuari, Joanesek gora-gora erran zuen: hobekienik harek aditu zuela haren phedeikua...

Handik zonbeit egunen buruan, lehen aldikotz ikusi zen gauza bat zinez hunkigarria. Soldadoen ondotik, iguzki-alderat, iguzki-aldetik Belgikara, Belgikatik Craonnera hainbertze astez ibili letrak —lehenbizikoak— heldu zitzaizkoten eskuetarat.

Sarjant bat xutik han zagon, erreka buru batean, eta gizon hek oro ixil-ixila zauden denboran, oihuka erasten zituen asko eta askoren izenak. Uli bat sumatuko zen tenore hartan sator-ziloetan; sistaka heldu aleman bala zenbeiten xixtuaz bertze harrabotsik ez zen aditzen. Ez alemanik, ez kanoi-pezarik, ez xixparik ez zen gehiago Baionako soldado gaixoentzat. Mundu guzia han zaukan sarjantak, bere erhi muthurren buruan altxatzen zituen paper histu eta zimurdikatu hetan. Xori maiteenak bezala, hegaldaka bazoazin letra hek, eskutik eskura beren jabe zoriontsueri airean eremanak. Batzu heldu ziren ixkribu ederrenarekin moldatuak; bertze batzu, luma baino gehiago haintzur eta adareta erabili zituzten esku gordinek doidoia zirrimarratuak. Bainan oro zinez hunkigarriak, zeren herriko usainaz inguratuak ziren, etxeko amodioaz orratuak.

Begietan sukar bat bazuten gizon hek orok, ikare batekin altxatzen ziren esku batzu, lur-kolore aspaldian eginak.

Eta hantxet zauden guziak, muga-harri batzu baino gehiago ez baitziren mogitzen, sarjantak bere zaku-zorro handiaren barnetik azken paper herresta bat atheratu zukeen arte. Orduan bakarrik etsitu zuten, orduan erori zen begi hetako sukarra, eta nigar bat baino gehiago xukatu zen, han, esku gibela, herritik lerro bat gabe gelditu ziren soldadoen artean!...

Senpertar gehienek bazituzten beren etxeko berriak, Garzarrak ere ba.

Xoko batetara joanik, axal hori handi bat zarrastan urraturik, Piarres ari zen Marie bere arreba maitearen letraren irakurtzen. Huna zer igortzen zion neskatxa prestuak:

Senperen egina, aboztuaren 22an.

Gure Piarres maitea,

Zu etxetik urrunduz geroztik, hitsik daude gure bazterrak. Hirri guti da hemen gandi. Ezpainak ikaretan, ama gaixoa harat-hunat badabil etxean; othoitzetik ez da gelditzen, eta nigar bat baino gehiago badiot ikusirik. Arima-herratu bat iduri du aldiz aitak, eta, maiz aski, xut-xuta hantxet dago, behereko sorhoan, keetaren aldean. Han azken aldikotz ikusi zinituen, eta dudarik ez da han agertzen ikusi nahi zinduzkela berriz ere, eta lasterxko. Ganix furfuria batean

lothua da kanpoko lan guzieri; eskerrik ez dio gehiago hain maite zuen turrutari. Haurrak jostatzeko ganarik batere gabe dira, eta Xuriko saingaka artzetik ez ahal da behin ere athertzen.

Zato laster etxerat, Piarres maitea; huts bat bada hemen zu joanez geroztik, zutaz bertzerik ez baita huts hura betheko duenik sekulan. Gure auzoan, Lizartzan, Oihanaldean bezen kexu dira eta zutaz errenkura, ez ahal baitzira biziki harritzen. Ahapetik eta beharri muturretaraino gorrituz, atzo azkenik errana daut Goañak, zuretzat othoitz egitetik ez dela gelditzen. Hainitz igurikatzen du eman izan dautzun medailak gerizaturen zaituela eta begiraturen osoki.

Orhoit balinbazira, zu urrundu zinen igandean ginuen herriko lehen komunionea. Oi lehen komunione ezin ahantzizkoa! Jesus, zuk barka! bozkariarik gabeko eguna eman dautzugu, eta zuk ere guri, hala hala! Nigarrik baizen ez zen elizako xoko guzietan... Othazehe jaun misionestak gure nigar hoik utzi ditu phedeikari. Berak gerlarat joaitea zuen biharamunean. (Gure bikarioen aldi noiz othe? Hetaryik bat ohean eri dugu zonbeit egun hautan. Balinba ez du gerokorik!) Kantuak berak nigar ziren gure eliza maitean; eta selauruetan, senpertar gazteen jar-alkiak, zuen alkia, Piarres, murriz murrizta zuek gabe ikusten gintuen lehen aldikotz!

Jaun erretoraren bihotzmina hunkigarria da egiazki. Zuek urrundu zaizten egunean berean, aldare aintzinean, erdi-erdian emana izan da xirio handi bat. Jesusi gure izenean zuetaz bethi mintzatuko zaion Gerlako xirioa. Zuek berriz herrirat itzul arte ez da hilen sekulan, hantxet, Jesus ona dagon tabernaklearen aintzinean. Herriak bere gain hartu du xirio hura bethi hola phizturik egonen dela, ooren diruak baino gehiago ooren amodioak bizirik bethi atxikiren duelakotz.

Gehiagokorik oraino egin edo eginen dugu zuentzat. Huna zer: herriko lau ehun familia badire, bozik hitzeman baitute: egun oroz, zortzi orenetarik eta ilhunte arte, lerro-lerro, aldizkatuz, oren oso bat norbeit egonen dela bethi Sakramendu Sainduaren aintzinean, guzien izenean zuentzat othoitzez... Ah! Piarres, Piarres, oro gerizatzen ahal bazintuztegu!...

Atzo ginuen gero Adorazionea, Senpereko Adorazionea! Badakizu ederra egiten ohi denez!... Eta bizkitartean, zein hitsa atzoko Adorazione hoi! Itzal handi bat bezala, zuen guzien orhoitzapena han ginduen gainean, eliza-barne kaskoan hegaldaka. Jendez bazen leherra, eta jende horri guziari nigar ederrik eginarazi dio, arratsaldean, Luhosoko erretora delako aphez beltzaran karsu batek!... Egia onik erran dauku, baizik eta Jainko Handi hura orok luzaz ahantzi ondoan, Jainko haren beraren ganat guziak orai heldu ginela ahuspez-ikaretan eta nigarretan! Jainko hura, gizonen arbuioez azkenean asea, bere azotearen higitzera zoala... Ah! Piarres, zer phedeikaria Gerla! Han izan bazine, Parce Domine, belhauniko guziek eta nigarrez, kantatu dugunean!...

Bainan, nola zintezken gurekin? Urrun, urrun zinen, hor nonbeit...

Non othe?... Badakigu iguzki-alderat lehenikan joanik, orai duela bizpahiru egun ipharrerat buruz joan behartu zautzula... Bainan non othe zira den tenorean? Jainkoak berak daki!...

Eta joan behar zen bizkitartean! Jainko horrek berak nahi zuen joan zintezken; Frantzia gerizatu behar zen, eta Frantzia gerizatuz, gerizaturen duzue gutarik baxotxaren herria. Ezen, gure herria zer da, baizen eta xoko bat Frantzian? Eta Herriaren amodioa zer da, baizen eta xoko horrentzat Jainkoak berak gure bihotzean eman duen kilika edo asikia?

Bai Jainkoak nahi zuen, zure xokotik joan zintezken gurea bezalako hainitz xokoez egin den Frantziaren begiratzera. Begi onez ez diozoke beha eginbide horri ukho egin dionari. Nigarrez ari gira hemen, bainan hori hola da engoitik...

Behazu, Piarres, Goienbidean gerthatu zaiotenari. Mugaz bertz-alderat joan da Batixta, bere ama xaharra, bere andrea, bere hiru haurrak hemen utzirik, geroxago horiekin ororekin uraz-haindirat, Ameriketarat joaiteko. Hamar egun gabe, haur gaixoetarik bat hil izan da; eta haren ehorts-egunean, aita dohakabea ez zen han, bere lagunaren aldean, gorputz ttikiaren hil-herrietarat segitzeko... Ezkilak dan, dan, dan ari, eta mugari hurbil, bixkar batean, nigarrez ikusi omen dute aita ihestiarra!...

Eta, orai hiru egun, Goienbideko andre gaixoa bere bi haurrekin joan da, bere aldian, Espainiarat buruz, eta

—ezin sinhetsia ere baita— atzo erori da Goienbidea. Lau pareta dira gelditu! Ikaratzeko ere bada, hiru egun lehenago guziak hantxet galduko zirela orhoitu eta!... Etxe zaharra bera errenkuratu da molde hortan; erran bederen diteke. Bere haurrak oro urrundu orduko, joan da lurrerat. Zerentzat eta norentzat behar zuen xutik egon gehiago?... Odol-husturik norbeit erortzen den bezala, bere jendeez hustu den bezen laster kraskatu da beraz etxe gaixoa! Eta orai, lau pareta doi-doia xutik han dagozi, ibar muthurrean, beso ihartu batzu bezala zerurat altxatuak!...

Joan behar zinduen beraz, Piarres. Bainan zato laster gibelerat; zu gabe, eskerrik ez dugu deuserentzat.

Laster ethorriren zaiztela badut orai beldurra. Gazteak bezala, zaharrak ere joanak ditugu gure zaintzera.

Xantiago, Eugène eta bertzeak han ditugu, Zokoko gazteluan, harat agertuko diren aleman guzien garbitzeko. Dabit ihiztaria, Mattin, Josep, Ganix, xixpak eskuan edo bizkarrean, karrika-buruetan plantaturik, izigarriak hor ditugu egiazki. Mattinek Gixonkiri hartua dio gaitzeko xixpa bat, eta xixparekin, bere gerruntze alimalea oro inguratzen dion sekulako kartuxeria. Zinez, izigarria dela! Gauaz gathe lodi batzuz hesten dituzte Donianeko eta Baionako bideak, nehor nehor ez baititeke handik iragan bederatzi orenek joz geroztik! Eta hola hola Amotzen, Lou Kaskoinekin; Ibarronen Mixel zainhartarekin. Segur ongi zainduak girela, eta segur, gerla laster bururatuko dela, guziak hola bermatzearekin!

Piarres maitea, hirriz horiek kondatzen dauzkitzut, berri hitsez bertzerik zuri nahiz helarazi. Bainan aithor dautzut hirri egiteko gana handi handirik ez nukeela.

Berriz ere, zato laster! Jainkoak hala nahiko du, agian!!!

Guziek besarkatzen zaitugu tinko-tinkoa, eta bi aldiz ere egiten zaitut zure ama gaixoarentzat, haren beraren manuz.

Zure Marie.

Bere letra luzea irakurturik, hura eskuan, ahalkerik gabe nigarrez ari zen Piarres. Eta aldi hartan oraino deus trufarik ez zion egin Garaztarrak, lanik aski bazuelakotz berak, zerbeit traba zintzurrerat ethorririk hari ere, betbetan...

V SATOR ZILOETAN

Biharamunean, taula ezkina puska baten gainean izkribatzen ari zen Piarres. Bere arreba Marieri huna zer zion ihardesten:

Ene etxeko maiteak,

Ene zoriona, barda, zuen lerroak eskuratu ditudalarik! Ene ikara ere!...

Hogoi aldiz, geroztik, ez baditut berriz irakurtu! Orai ere, hortxet ditut nere aintzinean, eskuaren eta begien menean.

Milesker, Marie. Oren goxo bat iragana naiz zuekin Senperen, Oihanaldeko sukaldean, sorhoetan hala hala eta keeta ondoetan. Deus ez da nik oraino ahantzi dudarik; guziak eta oro, nere begien aintzinean izan bazintuztet bezen ongi ikusi zaituztet.

Ikusi ere dut zuen lehen komunionekeo egun hits hura, Adorazioneko phesta ilhun, murrirtza. Herriaren othoitzza hunaraino sumatzen ez othe nuen? Sumatuko bederen dut othoitz horien guzien indarra. Gaixo ama, gaixo aita, gaixo haurrideak!...

Goñari erranen diozue esker-miletan hoberena. Haren othoitzak eta medaila baliatu zaizkit jada, obuza puska edo bala ttiki batek zakuaren gainetik ene zapatak ereman dazkidatarik! Segi dezala othoi nitaz orhoitze saindu eta maite hoi. Segur ez dutala ene medailarik bazterrerat utziko; bihotzari sobera hurbil derabilkat hortako!...

Begietarat heldu zitzazkitan beraz nigarrak, zuek oro nere ondoan hola sumatzearekin. Eta batere ez dakit nigar ere egin ez dutanez. Gaixo gerlako xirioa, gaixo gerlako zuen adorazione handia! Bai Jainkoak ekarriko nau zuen guzienganat...

Noiz othe? Hori ez dakit. Orai hamar egun, usteko nuen laster ethortzea. Aleman tzar hoik hain zalu zoazin gure aintzinean! Bainan orai, hor ditugu, sator eginak gu bezala. Zehe bat lur ez daukute hartzen gehiago, bainan zehe bat ez diotegu hartzen ahal guk ere.

Ez dautzuet erranen non giren; ez zaiku haizu. Bizkitartean, gure eskuara maitea, aleman edo frantses, nehor gutik dakielakotz hemen gaindi, ixil-ixila eta izenik eman gabe sobera, salatuko dautzuet zuek aiphatu toki horietan guzietan ibiliak girela, herritik parrapatan urrunduz geroztik. Eskuin, iguzki-aldean izanik, auzo-erresuma ttikirat, gain hartarat jo ginuen, guk uste ez ginuen tokian etsaia agerturik.

Etsai horren aitzinean, gibelerat gero egin dugu; hola behar baitzen, dudarik ez da, bainan ere hola nahiago zutelakotz gure aitzindariak. Eta aintzindari horiek manatu tenorean, orroaz gure baioneta-sistakoen aintzinean ereman dugu alemana. Baioneta hoik ez zaizko goxo batere.

Egun hitsak iragan ditugula, gauza jakina. Bainan orai, ongi aski badoatzi oro. Badugu zer jan eta zer edan ere, frango pulliki. Gure erreka-zilo handiek gerizan emaiten gaituzte. Eta gaineratekoa, utziko dugu Jainkoaren eta othoitzaren gain.

Ez beraz etsi batere, aita-ama gaixoak. Hean, aita, ni horrat orduko zer molde ederrean emanen duzuen Oihanaldea, Ganixek eta biek! Hean, ama maitea, zein garbi egonen diren hor, etxean, xoko-mokoak oro! Egun laburrik barnean, eskolak berriz hasiko baitira, hean zernahi nola ikasiko duten Frantxak eta Xanetak Seroretan, Darre zaharraren eskola girixtinoan Gantxumek! Ongi prestu balinbadira, Piarresek gerlatik zerbeit ekarriko!

Ikus arte, Marie maitea. Berex emaiten dautzutan paper horrek erranen dautzu nere adreza edo zuzenbidea. Maiz igorriko dauztatzu othoi berriak, hainitz berri. Oihanaldeko aingerua izanen zira, etxetik urruntzean galdatu ere dautzutan bezala.

Goraintzi on bat erranen diozute jaun erretorari, jaun bikarioeri. Heien beharra badukezue herrian. Dagozila hor, nehola ere ahal bada. Errient zonbeitekin nahasteka, baditugu hemen aphez gazte batzu, maiteak ezin gehiago eta soldadoetan hoberenak.

Hots, oro tinko-tinkoa besarkatzen zaituztet. Ama gaixoa bi aldiz besarkaturen duzu hatik, zuk ere, ene manuz.

Zuen Piarres.

* * *

Egun hartarik harat, loria bat bazuen Piarresek bihotzean. Bihotz hura kantari, arinago iduritu zitzaion erreka-zilo hetako bizia. Buruilaren ondarrera, uria, uria phesiaka jin zitzaioten gainera. Errekak lohi higuin batez bethetzen hasiak ziren jada. Egunak laburtu ziren, gauak ethorri bethi ta zaluago, ilhunago ere ba. Bainan, gauik ilhunenean, izar bat bazen, bethi jalitzen zitzaiona Piarresi; eta izar hura, Lizartzako bixkarretik altxatua, ixil-ixila, garbi garbia xuxen heldu zitzaion aintzinerara.

Xixpa eskuan, erreka luzean eginikako leihotarik batean bere aldian emaiten zelarik, oren luzeak labur kasik iduritzen zitzaizkon, Olhasoko kaskoan xuri-xuria altxatzen ziren bi etxeez orhoitu eta. Herrestan lanho itsusi batzu Craonneko azpian nahiz hedatzen ari ziren, bihotzean bero zuen muthil gazteak; eta ezazol hantxet egoiten zen hotzaren asiki guziera. Bere ama gaixoari egun batez emanen zion alaba onaz gogoia harturik, zernahiren egiteko indar bazuen Piarresek. Bai, Jainko handiak begiraturen zuen bururaino; sobera othoitz eta maitetasunen artetik beharko zukeen ethorri herioak, hura guduan jotzekotz!

Bertzalde, bazakien, behar orduan, bere buruaren gerizatzen. Kanoi pezak

edo bala ttikiak erauntsian gainerat heldu zitzaizkotelarik, bazoan hortako eginak ziren geriza berezietara. Bainan, ohartu ere zen laster, geldirik egonez hementxet gerizan zitezkenak, berak askotan bazoazila haraxerat, herioa heien beha hantxet berean baitzagon, heiek ez zakitela...

Eta holaxet, furfuriarik gabe batere, Jainkoak oro zeramazkala orhoiturik, eta haren nahia ez balinbazen, ile bat ez zitzaiola eroriko gogoan harturik, ikare ilhun itsusirik ez zuen bere baitan sumatzen. Ernerik zaduzkan begiak, ernerik hala hala gogoaa...

Zonbeit egun hartan jada, gizonak galtzen zituzten beren erreka-ziloan. Nahi bezenbat gorderik ere, bat edo bertze erortzen bethi, eta oro buruaren gainean joak! Nor eta non ere baitzen kolpearen igortzailea, xuxen ari zen aleman madarikatua. Eta deusik ezin egin, norat joka ez zakitelakotz gehiago.

Noiz arte behar othe zuten galmenean hola egon? Piarres ez zagoken larruaren barnean. Ohartua zen beraz kolpeak oro buruaren gainera heldu zirela; eta ordutik, bekaizti zen, bala hek ez zitezkeela erreka ziritu hertsia hertsietarik jin, oro molde berean.

Arratsalde batez, heien parrean zen eta ongi hostatua oraino zagon arbola bati beha eta beha luzaz egon zen, begiak unhatu arte. Bainan, deuseri ezin ohartu zen.

Hala ere, ilhuntean, ixil-ixila, nehoi deusik erran gabe, bere xixpa eskuan urrundu zen eta joan erreka-ziloaren buru burura. Han, paretarekin bat egina, xoko-xoko batean eman zen. Lau hogoi urhatsetan zuen orai gaurgoiti begietan hartua zuen arbola. Eta, mogitu ere gabe den mendrenik, hantxet zagon beha eta beha berriz ere. Oren laurden luze bat iragan zen, eta deusik ez bethi ageri.

Betbetan, iduritu zitzaion hostaila bat higitu zela arbolaren erditsutan; eta haizerik batere ez zen bizkitartean, ez eta ttikienik ere! Hobeki orduan behatu ta, horra non bi mustuka ilhun-ilhuni ohartzan den azkenean.

Hirri maltzur bat jin zitzaion orduan ezpainetara:

«Ah! hor zaiztea, xoriak! Ez zaizte hortik berehalakoan hegaldatuko!...»

Eta pulliki, pulliki bere xixpa aintzinaturik, luzaz ongi begixtatu zuen mustuka hetarik bat, eta Panp igorri zion bere tiroa. Eta, pisu-pisua arbolatik zerbeit erortzen ari zelarik oraino, bigarren tiro bat igorri zion hala hala bigarren mustukari. Eta bigarren mamua, adarrez adar, aldaskaz aldaska, zabal-zabala lehenbizikoaren alde-aldera joan zen hura ere. Bi alemanak, hilak hantxet zauden orai arbolaren azpian, nehor gehiago ez baitzuten hek hilen Piarresen erreka-ziloan...

Sistaka balak jin ziren orduan eta berehala, erauntsi izigarrian, alemanak beren ziloetan errabian atzarturik.

Bainan, Piarresen tiroeri ohartuak jada ziren haren lagunak eta erne zauden hek ere, banpa banpa tiroka ari alderdi guzietara.

Lagun hetarat itzuli zelarik Piarres, bazuen oroenganik begitarte! «Biba hi Piarres! Hori zerbeit baduk hatik!».

Eta kapitaina bera, oihuetarat ethorririk, eskuaren tinkatzerat hurbildu zitzaion:

«C'est bien, mon garçon! On n'oubliera pas ça!»

Senpertar adixkideak han zituen jada aldean; eta Joanesez, maina gisa, inharros-aldi bat eman zion, pareta baten arthikitzeko heinekoa. Bainan bertzerik beharko zen zehe batez Piarresen mogiarazteko. Lariatua zagon bertzalde egin zuena eginik eta asko lagunak bizia hala gerizaturik. Eta hori aski zitzaion saritzat...

* * *

Egunak, asteak, hilabeteak ere gero joan behar ziren holaxet. Noizetik noizera sukarra jauzi balitzaiote bezala, alemanak hasten ziren tira eta tira, obuzak obuzen ondotik heldu zirela, pisuak, gaitzak ere jada. Gorderik orduan egoitea zuten gure soldadoek. Eta geroan ere, xuhurki baizik ez zioten etsaiari ihardesten, xuhur arras eta ahul ginituelakotz oraino gure gerlako tresnak eta puskak oro. Ordu

arte, sobera gogo hartua izan zuten politikeroek, Jainkoari, aphez eta seroreri, haurren eta erien arimeri egin behar zitzaioten guduaz. Nork atxeman Frantzia gerizan emaitako behar zen astirik? Bi lan hoik nork betan egin zezazken? Eta hortarik heldu zen, eginen ziren baino miletan gehiago hiltzen zirela gure gizon gazteak. Eta holako ezazolkeriaz erhotuak hantxet zauden Piarres eta haren lagunak...

Zer ez zuten ikusten beren ziloak ezin begiratzuz, etsaieri erreka bat ezin hartuz gehiago! Buruilaren 24ean jada, alemana burrustan ez zitzaiotena jin Heurtebisen, mitralleuza mitralleuzaren gainean berekin zakarkela? Zilo bat edo bertze hartu ere zioten frantseseri lehenbiziko oldar hartan. Bainan gure baioneta xorrotzek bere errekañoetararat sistaka eta zalukara berriz arthiki zuten bas-urdea.

Eta holaxet, elgarri bethi lothuak, Craonnelle, Vauclerc, Heurtebisen, tira-miaka ari ziren, kasik egun oroz, egun galdu eremu txarra biharamunean berriz aztaparka bilduz. Ez izanen han kanoi pullit hetarik zonbeitño, obuza argi argiz lephoraino bethe kanoi hetarik! Joanesek egunean ehun aldiz aiphatu gerlako tresnak oro han izan balituzte bederen! Zer phesta!...

Bainan ametsak baizik ez baitziren ordean Joanesen, Piarresen edo bertzeen ametsak! Eta ederki pekatzeazuten beraz anhartean gure soldado gaixoek...

Zorionez, berriak heldu zitzaizkoten orai herritik, berriak maiz eta ardura, nahiz ez guziak bihotzaren alegeratzaile. Lehenbiziko hil-mezuak hegaldaka joanak zirela jada Senpereraino, holaxet jakin zuen Piarresek, eta bihotza ilhundu zitzaioten orori, othoitz bat ere jin berehala ezpainetara:

«... Lehen lehena senperrarretarik, Ziburuko-bordako Jan Batist erori zen han nonbeit, gudu izigarrian. Eta nondik eta nola nehork ez zakiela, berri hitsa hedatu zen berehala herrian, haren andre gazteak deus jakin aintzinean. Igande goiz batez, goiz mezarat emazteki gaixoa zoalarik, urrikalmenduz eta gogoari eman gabe zer zimikoa egin zezoken, auzo batek erran zion betbetan, halako dolamen batean:

«Norat zoazi, Xaneta?... Hobeki egin zinio, etxerat itzulirik berehala. Deus onik ez duzu jakinen karrika hortan...»

Eta Xaneta dohakabea, zuri-zuria egina, hitz bat gabe gelditu zen hantxet, bidearen erdian, eta nigarrez gero hipaka itzuli, Ziburuan barna, malda luze eta xutaren kaskoan, xuri-xuria iguzkiari, doidoia utzia zuen etxeari buruz...

Jaun erretora joan zitzaion gero laster, bere bikarioetarik batekin, —bertzea gerlarat joana zen zonbeit egun hartan jada—. Eta etxe hartako bihotz-mina zerbeit bazen orduan:

«Gaixo Jan Batist! Athean harat doala ikusten dut oraino, jaun erretora! Horxetik egin daut bere agurra!... Azken agurra!... Oh! ez ditakena da! Ezin dirot sinhets!...»

Ama xaharra nigarrez ari zen, han supazter-xokoan, kadira aphas baten gainean. Haur ttiki bat nigarrez zagon bere ohakoan, aita-gabe, ume-xurtx bat baizik ez zela gehiago balaki bezala harek ere, eta aita haren ondotik zerurat jada hegaldatu nahia baliz bezala!...

Eta geroztik, Ziburuko-borda kaskorat lehenik hola iganik, handik gero herri guzirat hedatzeko, herio ilhuna etxez etxe badabila, atheari kask eta kask aste guziez joka, orai hementxet, hantxet gero ondoko egunetan. Eta herriko xokorik ez da harek jo edo joko ez duenik.

Paxkal jaun merarenganat heldu dira lehenik berri gaixtoak, orri beltzak. Eta Paxkalek bihotzik aski berak ez izanez lan dorpheari buruz, jotzen du berehala jaun erretorarengana. Eta Paxkalen xakurra aintzinean, horra biak, apheza eta auzapheza, herriko etxe bati buruz badoatzila, makilak eskuan biak, kopetak ilhun, ilhunago oraino bihotzak. Ez zaiote galdetu behar norat doatzin. Bainan, etxe guzietarik, heieri beha dagozi ixil-ixila eta ikara batekin. Eta, noiz ere, errege-bidea edo bardin intha utzirik, bazter-etxe baten parrean gelditu baitire, etxe hartako jende gaixoak oro, bihotza jada zaurturik, badoazi barnera. Jaun erretora sartzen da. Ama batek ez dio maitekiago bere haur eriari behatzen, nola harek orduan nigarrez ari diren burhaso, andre eta haurride heieri. Zer erraiten dioten? Ez

nakike zuri salatzeko. Jaun mera, hura, bere mustatxeri tiraka, nigar handi bat begi ttiki ttiki batzuetan, ixil-ixila egoiteko baizik ez da, bere bozaren beraren entzuteak izitzen balu bezala!...

Eta gero, gauzetan hunkigarriena ikusten da barne hartan. Jaun Erretora, Jaun mera, aita-ama gaixoak, haurride edo lagun maite hek oro, guziak belhauniko emanak sukaldearen erdian, nigarren artetik guziak othoitzean ari! Oh! lehenbiziko Requiem hura, sukalde hartan, hil gaixoaren arima hegaldaka, inguruka han dabilala, eta guziek, han, egiazki, beren erdian sumatzen dutela!

«Oh! Piarres, agian ez dira Jaun erretora, jaun mera sekulan hola gure etxerako! Ez dautzut erranen, aldi huntan oraino, non jada ibiliak diren beren mezu ikaragarriarekin. Aski goizik jakinen dituzu hoik oro, eta bihotzdun behar duzu. Ez dautzut ere erranen, han edo hemen, sobera min egin diotela hil-berriak, oiuhu bat edo bertze jali dela ama baten, lagun baten ahotik, eskualdun girixtino baten ahotik sekulan athera behar ez lukeen bezalakoa. Jainkoaren gain eman behar balitz bezala, behinere, gizonaren tzarkeriatik heldu den makur bat!... Bainan, Jainkoak, heien bihotz-mina ikusirik, barkatua diote engoitik. Hain ona ez da? Eta bertzalde, holako mugetan, othe dakigu zer erraiten ere dugun?

Hala-hala, bihotza hautsirik, bainan beren buruaren jabe egon direnetarik zonbeitak zer solasak ez dituzte utzi jalitzera! Hetarik batek, mintzoa kraskatzen zitziola zintzurrean, hau erran dio jaun erretorari: «Jaun erretora, hila dela nahiago dut aditu, ezen ez eta mugaz bertzalderat iragana.»

Orhoit balinbazira, gure ama onak ez zautzun bertzerik erran, Aguxtin Beratarra, zu lilluratu nahiz, Oihandalderat ethorri zitzaukun arratsean...

Jakinak ditugu alemanek Belgikan egin izigarrikeriak. Mugaz haindirak gure gizonak oro joan balira, nork behar gintuen gu begiratu? Bere haurrak, bere lagun bat, bere burhasoak, bere lurra zaintzen ez dakienak, bulta batentzat gal dezan gero lur hoi bederen... zuzen ez othe da? Bertzeak oro joaiten eta, harek nola ez du joan behar? Laugarren manamendu bat nola ez da harentzat, bertzeentzat bezala?

Nehoren nahigabeez loriattetik begira gaitzala Jainkoak, bainan ongi egin duzu beraz, Piarres, gu guzien zaintzerat joan baitzira, hor-harat, urrun. Jainko zuzenak hola nahi zuen. Bainan Jainko zuzen horrek berak berriz ekar zaitzala gutarterat!»

* * *

Berri horietaz bertzerik heldu zizaioten bizkitartean erreka-zilo lohitsuatarat.

Jakina zuten beraz Senpereko bi bikarioetarik bat, zaharrena, joana zela gerlarat. Berantxago aldiz joan behar zen bertzea. Doi-doiak egin zuen erretora bera ez baitzuten hantxet hartu, Uztaritzen, Erreforma egun batez. Zaharregiz utzi zuten, eta ere, soldadoz leherra bazelakotz oraino tenore hartan, non-nahi, Frantzia behearean.

Hola hobe zen beharbada herriarentzat, ethorriko ziren oren ilhunetan bihotzak norbeitak sustatzeko. Eta izan ere zuten sustatzearen beharra, udazkenean hostoak lurrera bezala, hil-berriak xoko guzietarat hedatu zirelarik.

Eta gero, zer ez zen atheratzen jende ahul batzuen ahotik? «...Españolak heldu omen ziren karraskanBelateko lephoan hunarat, frantsesen kontra, alemanen alde oro emanak. Karlixtak jada, Elizondon eta Beran metaka bilduak, hantxet zauden, gureganat hedatu beharrak...». Eta horiek oro, guarderi beren xixpa berriak edekirik, xixpa zahar batzu Baionatik ordainez ethorri zirelakotz, karro handi batean. «Emazteak eta oro, xixpa horiek eskuan, soldado moldatu behar omen ziren ondoko egunetan...» Hots, berri horiek oro, Ahuntz-karrikatik edo bertze nonbeitik airatuak, hegaldaka bazabiltzan, xoko-moko guzien nahastaile. Eta jaun erretorak bazuen zer egin xorokeria horien oren barraiatzen!

Gauza jakina, zorigaitzez, Espainian, asko aphezetarik hasirik, hainitzak gure kontra zirela. Alemanek hasi zutela gudu izigarria... ahantzia zuten; ahantzia zuzen guzien kontra, Belgikan barna jinak zirela, xaharrak, emaztekiak, haurrak, ehunka, milaka hilik edo preso altxaturik, Dinan eta bertze hirietan. Frantses

framazoneriaren higuintzak, Frantses-Herri katolikoa ahantzarazirik, aleman heretiko protestantaren alde emanak zituen! Orhoitzen ere ziren beharbada, zuela ehun urthe, Napoleon Handia zuzen kontra Espainian nola ibilia zen... Eta orduan, alemanen krimarik ez zen hoientzat.

Bainan, Espainia hortan, harmekin guri jazartzeaz bertze egitekorik bazuten berek tenore hartan. Eta, bertzalde, mugaz haindian, Errege Alphonse lehen, adixkideak baginituen, eta adixkide minenak, Frantziaren aztaparkatzera nehor guti utziren baitzuten. Ohore, bethikotz, alemanen gezurrengatik, eta guziengatik, zuzenaren alde, beraz Frantziaren alde, muga hartan agertu diren gure adixkide hazkarreri!...

Klasa klasaren gainean, gizon-araldea gizon-araldearen gainean bazoazin bizkitartean gerlarat.

Ziloak behar ziren tapatu, alabainan! Aboztuan, buruilan, zenbat ez ziren jada eroriak! Asterik ez zen, bi hiru ahoku biltzen ez baitziren Senpereko elizarat, oro egun berean, herri guzia eliza hartarat biltzen ere zela. Orogen zauri ez zirena behar... gerlako zauriak? Harrilauza handien gainean, hiru, lau, bost lerrotan belhaunkatuak, emaztekiak han ziren, bihotz-erdiragarri beren kapa beltzen azpian. Oro ixil-ixila nigarrez ari. Gizonak (aita gaixo batzu, anaia gazte batzu) selauruetan ilhun-ilhuna hedatuak.

Eta meza hura orduan, kantu hek, othoitz hek! Ezin ahantzizkoak egiazki... Guzien gogoak han, gerlatoki gorri-beltzean, atzo holakoak erori, bihar bertze batzu eroriko diren tokian! Ama gaixo, andre maite horien aldi egun, nigarrez hortxet urtzen ari baitire... Bihar, bertze horien aldi, eta, gerla luzean gero, kasik ororen aldi. Bainan —girixtino sinhestearen eta othoitzaren zinezko indarra!—, ororen bihotzak hazkartzen ziren azkenean, kopetak altxatzen, nigarrak ezitzen, neskatek zauri-min guzien gainera esperantza handi bat ezti-eztia kantuz hedatzen zutelarik: «Gure hilak zeruan ikusiren ditugu!»

Ortzegun guziez gero, Gerlako Mezara biltzen ziren etxeko doloratuak oro. Etxe bat ez zen, norbeit meza hartara igorriko ez zuenik. Hiru-hogoi, lau-hogoi, ehun komunioetaraino bethi; eta Gerlako Xirio handiaren gibelean bazen othoitz, bazen galde:

Non othe zarezte, gure soldado onak?
Non gure semeak, aitag eta jaunak?
Guk, bethi grinetan gauak eta egunak,
Zer ari zaretan, orai zer eginak?

Jauna, hazkar zatzu gure haurren bihotzak!
Ez ditzala hunki heriotze latzak!
Ez ditela eror, guri urrun, hil-hotzak!
Aingerua, nere haurra oh! salbazak!
J.B.

Bainan igandetan hala hala, berriz phizten ziren bihotzak. Gerlako martirentzat othoitz bat egiten zen suharra, eta berri on zerbeit bazuen bethi erretorak bere arthalde gaixoari erraiteko. Eta herri guziaren oihua hazkar bazoan Jainko handiarengana:

O Jainkoa, Jainko zaintzalea,
Frantses Herriaren kontsolatzalea,
Hel! hel! gure gerizatzalea,
Hel, hel othoi, etsaien xehatzalea!
Alemana, Jainko Zaharrarekin
Pozoin traidore guziekin;
Jin dadila... nahi duenarekin!
Zer zauku?... Jauna da gurekin!
J.B.

Eta jendea bazoan etxera, asteko hazkurri-biatikoarekin. Han, nonbeit, hiri handietan gelditueta asko, ahalkegarri bizi zirela jada, dena phesta eta josteta!... Arimaz egia, holakorik ez zela orduan gure Eskual-Herrian; alabainan, gerlaz eta gerlariez sobera hartuak ginituen gogoak!

Geroxago ba, gerla luzatzearekin, alokazioeak bethi aintzina etxeok hunkitzearekin, asko jende ahul eman da gormandizari eta beharrik gabeko diru igortzeari. Zorigaitzez!... Bainan ez oro orduan ere; eta nehor guti haste-haste hartan. Gizonak urrundu, ezinbizia sartu. Horra zer ikusi den lehenik, hainitz etxaldeetan beretan.

Gero, sobera iraun du gerlak. Sobera diru maileatu da jendeen artean. Eta diru hartarik guti eman du jendeak, lehenago bezala, mihisen artean. Papera, hosto zela, hostoa bezala firrindilaka ibili da, jo harat, jo hunarat. Eskerrik ez zuen. Urhe-zilharrik ez zen gehiago moltsa luze ferdetan, ez eta moltsa ferderik ere. Emaztekiek —hainitzek— burua galdu dute halako paper-erauntsiaren azpian.

Bainan, hastean, zer ezin-bertzea bazterretan!

Oihanaldean, Thomas han zen, etxean gelditua; han ere Gantxume, ahamenean lanari hein bat lothua. Eta Gaxuxa, Marie, sobera emazteki prestuak ziren, orai ala geroan urari beheiti dirurik sekulan igortzeko. Betirisantz ez zen agertu behar behin ere Olhaso kasko hetan...

VI CRAONNEN

Buruilaren ondarrean, Piarresi galdetu zioten herritik, hean 249en Erreximenduko berririk deus bazakienez?

Auzoan berean, Olhason, grinarik minenak jaten ari zituen jende gaixo batzu. Eta zorigaitzez, garbitasunik batere ez zezaken igor Piarresek. Bi erreximenduek ez zuten sekulan elgar ikusten. Hilabete haren 19an, senpeter bakar batzueri doidoia eskua tinkatu zioten erreka-ziloetan, Baionatik ethorri soldado zaharragoak gazteen orde erreka hetan moldatu zirelarik. Geroztikako berri gutti zakien. Hau bakarrik: hogoi eta batean, galtze handiak izan zituztela, gain hartan, 249eneko soldadoek, etsaia sistaka alderdi guzietarik betbetan atheraturik eta heien tartean sarturik...

Eta bihotzean min zuen muthil gazteak berri hobeagorik ez baitzezaken igor Felix, Mixel eta bertze heien lagunez. Etsaia tzarrean zuten arras, egun hetan guzietan. Berrogoi eta hamar hurratsetan ziren elgarretarik, Craonneko malda madarikatuan; eta tenore hartan, harrabots guti aski zen han gaindi, gizon baten hil-gogor erorrarazteko. Begiak erne zauden batzu eta bertzeak. Aintzindariei manatua izan zitzaioten beren galonak oro khen zitzaizten edo gorde, Gozéeko guduaz geroz alemanak aintzindari heieri lehen lehenik aihertzen zitzaizkotela guziak oharturik.

Ilhunte batez, hor, berria heldu zaiote Piarresi eta haren laguneri, ezkerretik aldean zituzten Zouavekxuri-gorriak beharko zituztela ikusi gau hartan, alemanek beren erreka heien erreka guzien azpira hedaturik eta bolboraz hanpaturik.

Lo guti ordutik gain hartan guzian. Gau-beilariak beren xokoetan xutik han zauden, begiak zorrotz, beharriak xut, den mendreneko harrabotsari berehala ohartuak. Heien aldean, erdi etzanak, lagunak oro, xixpak zangarren artean, sukar batean beha zagozin... Taka-taka ari ziren mitralleuzak, kroa kroa obuzak.

Betbetan, gau-erditik eta bi orenak irian fusées alimaleko batzuek argi-argia emaiten dituzte frantsesen erreka, ilhunbean uzten aldiz hetarainoko eremu guzia. Piarres eta haren lagunak, jauzian xutiturik, tira-bideetan emanak dira jada. Bainan, iguzkitara jaliak balire bezenbat ageri-agerian direlarik berak, deus ez dezakete ikus, hala hala, alemanen ilhunbe beltz-beltzean. Eta aleman horiek bizkitartean han zituzten jada, hamabost urhatsetan, herrestakan jinak, ixil-ixila.

Ez aski ixil, zorionez; ezen, beren mintzairean manu zerbeit hedatu behar izan zuten ahapetik. Frantsesek aditu, eta rau, rau, gure bala ttikiek errautsi zituzten eta suntsi-arazi, beren hilak eta kolpatuak hantxet uzten zauzkutelarik.

Piarresen kapitainak, ordu berean, aldeko konpainiatik soldado multzo bat haren gogortzera ethorriarik hain xuxen, manu bat adiarazten du: «A la baïonette! 1 et 2 sections, en avant!» Axuanta jalitzen da bere gizonekin; sarjant bat hala hala bere multxoarekin... Hamar urhats gabe, biak erortzen dira, biak hilak; dotzena bat gizon lurrean dira.

«Troisième section, en avant!...» Piarresen aldi! «Gureak egin dik, to!» Eta Joanes Garaztarra, bi plegu egina, oro baino lehenago firrindilaka atheratu da, Piarres eta haren lagunak ondotik dituela. Hamar bat gizon berriz ere erortzen dira, alemanek beren ziloetarik bazterrak oro balez ihaurriarik...

Eta aleman eta frantses, han zauden orai, pezoin hertsu baten bi aldeetan, elgarretarik lau metretan, burua batek altxatu orduko bala bat han zuela buru haren erdi-erdian.

Gerlaren abrekeria! Lau urhatsetan elgarren hiltzen ari, batzuek bertzeen erreka-ziloak hartu nahi, eta ooren buruan ezin har batzuek ez bertzeek!...

Argi-hastean, beren atherbeetara herrestan heldu izan ziren beraz Piarres eta haren lagunak, erreka-ziloetan gelditu soldadoek alemanak pezoinaren gibelean xutizetik zorionez trabaturik. Bertzela, oro hantxet behar ziren gelditu!...

—Behar ederretako!... Joanesek ziona. Izan balitz Belgikaraino berriz igaiteko, paso. Bainan lau zehe lurren hartzeko! Karatxo! Den tenorian, ez ahal dik tripako-min txarra gure kapitain errabiatiak!... Harek tripako mina, eta hil-gaixuek sekulako mina... Ene solasa ez zauk naski laket, Piarres? Bana, to, hala duk eta!... Emak esku, Senpere, eta ziek ere, Paul, Mixel eta Philipe! Balinba ez diauk holakorik berriz inaraziko gure jauntto horrek!

—Emak aphabetago, Joanes! Boxek entzuten bahaute...

—Boxek?... Ba, badie beste itekorik! Muthurra guk hola freskaturik, ez dituk bas-urdiak bano gehiago mogituko. Bizpahiru baitiat naski nihaurek kalituik!...

—Eta guri kalitu dauzkigutenak? Errekiak bat erranik hobeki eginen diagu, ene idurira...

—Hala hala duk, to, Piarres.

Jainkoak bere lorian har ditzala guziak!

* * *

Biharamunean, Oulchera jautsiak ziren bezperako gudulariak. Etxe handi eta urratu baten aintzinean iragaitearekin, kolpatu andana bat luze-luzea etzanak eta gorri-beltzatuak ikustearekin, zonbeit jada hil-urrien ere eginak, kaporal gazte bat athera zitzaion Nicolas gomenantari. Eri gaixoen sustatzera joaitea galdetzen dio.

—Zertako? Nor zare zu?

—Lacu, kaporal furriera.

—Ez ahal zare apheza?

—Hala naiz.

—Oh! Jainkoak esker duela, aphez bat baitakit nere soldadoen artean!

Eta besotik harturik kaporalak, gomenantak berak bazeraman kolpatu gaixoenganat...

Eta geroxago, aphez gazteak, lagun gehienak elgarretarat bildurik, othoitz bat egin zuenean kasko hartan erori soldadoentzat, Leblanc gomenanta ere bere aldian han zen, gizonen erdian, hek bezala othoitzean ari. Eta, urruntzean, eskua hartu zion kaporalari eta inharrosi, erraiten ziola:

«Esker mila, kaporal, gure hil maiteentzat egin duzun gauza sainduaz; esker mila heien eta heien familia gaixoen izenean, gu guzien izenean ere bai.»

Horra tenore hartan, asko gure aintzindari zer gizonak agertu diren, guzien aintzinean, ahalkerik batere gabe.

Eta handik laster, Espainiako gure etsaietarik zonbeitek, arrosarioak eskuan, arrosario haren erraiten ari erreka-ziloetan ikusi izan balituzte Bureau koonela, Leblanc gomenanta, eta Dragonetako bertze kapitain bat oraino, beren buruekin

eginen zuten beharbada, framazonez bertze gizonik ere bazela Frantzian...

* * *

Lehenbiziko egunetan xuhur bezenbat nasai heldu zitzaieten orai jatekoa, Moulin Rouge aldetik. Egun guzietan ogi handi baten erdia; pikokoa ez bazen, kontserbakoa bederen haragi bat frango pullita; egun gehienez, arno zorta bat molde onekoa. Ai, pinard maite hari begitarte egiten ziotela! Piarres, xoko batean, zintzurra xafarra eta xafarra ari zen; luzeago atsegina eta handiago alabainan: «Ala xede, erdia bederen mahats arnoz egina dela gure pinard!»

Zer gudua, arno hoi untzi handi batzutan ekartzen zuten soldadoen inguruan! Guziak oihuka, guziak intzirez, guziak zoin lehenka. Arima salbu eta, Oihanaldeko korralean, etxeko tturrinak oro hala hala kurrinkaz ari ikus zitezken, pandero handia eskuan Gaxuxa ilhuntsuan atheratzen zitzaiotelarik. Bainan, han ere, hazkarrena eta oihurik handienaren egilea bethi nausi... Eta Joanes hazkarra zen, boz bat bazuen bi kaskoien boza bezen ozena:

«Ut, hortik, tipula eta baratxuri jaliak! Zer uste duzie ala zientako ina dela mama gorri hori! Medikiak jakiten badautzie sekulan, xahu zizte harekin... A moi lé pinard! Pluss qué moi vous avez! Ce n'est pas chuste! Je lui dirai moi au capitaine. Notre escouade il en est toujours lé dernier!»

Eta bertzeek baino taza bat gehiago nolazpeit han bildurik, heldu zen Joanes, oihalezko untzia mukurru gaineraino betherik.

Salda-bero zorta batetarik hasten ziren, ogi zerra alimale batzu hartan bustirik, ederkixko hantxet jaten baitzuten. Gero kafea edo kafea iduriko edari bat, aski beroa hura ere. Azukrea xuhurxko; bainan gabea murrizago baita oraino! Noizik behin, aguardient xorta bat, harren phizteko barne hartan edo bardin hiltzeko... Eta nehork ez sekulan beltzuririk egiten pattantun borthitzari, zenbat-nahi borthitza hura izanikan ere!

Tabako-belhar poxi batek bazuen begitarte; bainan xuhur airetto batean hunkitzen zuten hura, eta herrirat haren galdez ari ziren oro. Jatekoaz ez ziren baitezpada errenkuratuak; eta bertzalde, etxetik harat orduko, ustelduko ere ziren frango puska... Egor zezotela beraz galduko ez ziren gauza zonbeit, xokolet, zigarro, izkribatzeko paper eta bertze. Gauaz hotzak ari baitziren jada, trikota on bat, galtzerdi pare bat edo bertze nahiko zituzten. Dirurik ez, oraino bederen; ez ziren alabainan haren biziki xahutzeko menean.

Garbitasunak emaiten zaizkoten lanak. Lehenbizikoa pusketan joanik, bigarren athorra bat zuten... zuten guzi guzia. Eta, ahalkerik batere gabe aithor zuten orok, ardiño batzu alhan aspaldian hasiak zituztela bizkar-hezur gainean. Oihaleria poxi bat laket izanen zitzaieten beraz, eta lehen bai lehen...

Eta galdetu puskak jin zitzaizkoten urriaren egunetarik harat. Piarresek eskuetan zauzkan orai, Mariek eginikako galtzerdi bero bero batzu, Lizartzatik ethorri eta Goañak eskuz berak moldatu trikota lodi bat, amak igorri athorra, xokolet eta zigarro, manka-xokotik atheratu erneta-sagar pullit, eta holako zernahi puska. Ahutara bat paper xuri ere bazen han, gerlako berrien galdez ari erranen baitzintzen.

Eta denbora bazoan holaxet: bi egun —lau egun ere geroxago— erreka-ziloetan; bi egun hamabortz ehun metra gibelago, Oulchen; lau egun gero, Beaurieun edo Maizyn, ziloetarik lau-bost kilometretan; edo bederatzi kilometretan, Glène zerizon herrian.

Glènen, eta Beaurieun ere, edo Maizyn, frango ontsa moldatzen ziren oraino, eta garbitasun puska bat egiten zuten. Bainan Oulchen, erreka-ziloetan bezen gaizki ez othe ziren frangotan? Han oroz-gainetik, erauntsian heldu zitzaizkoten kanoi-peza, shrapnells eta bertze, obuza ziliporta guzietarik. Kafearen hartzen egun batez ari zirelarik, xutik doi-doi zagon etxe batean, obuz bat alimalea burrunban heldu sumatu zuten Piarresek eta bertzeek. Hegazpearen ondo-ondotik sartu zen hainbertzenarekin, eta hogoita hamabortz gizonetarik... hamabi ezarri zituen hantxet odoletan. Eta lur-barneko soto handi batetara hil eta kolpatuez bertzeak oro lasterka zoazilarik, oihuka eman zen Piarres:

«Eskerrak zor izanen ditiagu berriz ere Jainkoari! Hori zerbeit bazian hatik!...»

Gain hartan, erreka-barnean, alemanak atheratzen ez zitzaizkotelarik, uri eta lohi, geroxago horma eta elhur, bazuten partida! Eta, 34garren Erreximenduko soldadoen ondotik, heien ordain, han egon behar, bi egun oso; sei konpainia betan; 12garren Erreximenduko bertze sei konpainia heien aldean. Eta handik laster, ezkerrean bulta batez izan zituzten anglesak ipharrerat igan zirelarik, edo secteur guzia beren gain hartu behar izan zutelarik, lau bost egun luze, edo gehiago, bien orde! Etsitzeko ere bazen! Eta herioa nondik-nahi heldu, hegaldaka! Obuzen orde, askotan, erortzen zitzaizkoten grenadak bainon handixagoko bonba berezi batzu, ttikiak bezen tzarrak, harrabots hazkar batean zapartatzen zirela, kausituak oro kolpatzen, hiltzen eta bardin ehorzten zituztela. Baionatik erreximendua urrunduz geroz, hiru mila gizon baziren holaxet fundituak! Aintzindariak aithortu berriak ziren hoik.

Burla guti zabilan heriotzeaz, Jainkoaz, aphezez.

Goizean ba eta arratsean ez, hango legea hori zen alabainan! Eta gauza sainduz trufa guti holako gogoetekilan!... «Sinheste gutti bat baizik ez nuen hunat ethorri aintzinean. Bainan, zure hemen ikusteak eta gerlak... errotik bertzelakaturia naute.» Horra zer zion, egun batez, aintzindari gehien batek Lacu aphez gazteari.

Eta, urriaren 4an, Bergey omonier aiphatuak bezperan elizako athean paper bat itzaturik, baizik eta 49eneko soldadoentzat meza bat erranen zela biharamunean, sekulako gizonak bildu ziren eliza hartara. Eta urrunera kanoiak orroaz ari zirela eta etxeak daldaratzen, uli bat entzunen zen han, barne hartan, xoko-moko guziak oren-erdi bat aintzinetik hartuak zirelarik bizkitartean. Ebanjelioan, Bergey apheza hurbildu zen lehen lehen soldadoetaraino. Gizon gaitza egiazki; eta orok han bazakiten gizon hura kurtu ez zela behin ere obuza eta balen azpian, bainan bai miletan, kolpatu gaixoeri edo hiltzera zoan gizonari hurbil-hurbila ama batek bezala bere hihotz beroaren emaiteko. Kurutzearen seinale nasai bat egin zuen; eta orok, ikare batean, seinale hura bera egin zuten, haren aintzinean, haren bi aldetan ziren soldadoek. Eta orai, bere boz gozo eta ozenarekin mintzo zitzaioten apheza, ezti-eztia lehenik, hazkarkiago gero, bethi ta hazkarkiago eta karsukiago. Ez zen gehiago kanoi orrorik, begiak sukar batean hari begira zagozin gizonentzat; aphez maitearen boz hura zen bakarrik aditzen, edo hobeki Jainko handia bera zen mintzo bere haur ttiki-ttiki batzueri. Eta mintzo zen heien miseria handiaz, heien arimez, heien herriaz, Frantses-Herri handiaz, etxean utzi zituzten gaixo guziez, etxe hartarik sekulakotz urundu ziren heien lagunez, azken guduetan erori zirenez. Mintzo zen Belgikan, Frantzia-ipharrean, herrestaka gibelerat heldu zirelarik iragan oren dorpheez. Mintzo zen azkenik kurutze baten gainean heientzat hil zen Jainko-gizonaz, Ama Doloretakoaz...

Nigarrez ari zen Piarres, nigarrez haren aldean Joanes Garaztarra eta bertze lagunak. Nehork nehoi behatzen ez ziola, bazakiten orok oro nigarrez ari zirela. Egun guziez ordu arte aphezen jaten ari zirenetarik zonbeit, harat ethorriak... ikusteko, ikustekoak ziren berak, urez hantu beren begi handiekin.

Eta omonier suharrak orai, erhiaz erakusten bezala ziozkaten heien buruen gainean, zerua, zeru hartan Aita bat, Aita haren aldean jada... Frantziarentzat erori martirak, hemen pairatu zuten neurrian berean, han goretsiak eta sekulakotz saristatuak... «Gora, gora zuen bihotzak, ene lagun maiteak! Gizonek desegina berriz moldatzen du zuen Aita zerukoak! Arimarik ez da hiltzen!...»

Zer ikarea bihotzetan, zer sukarra oren begietan!

Eta orai, kantuz, orroaz ari ziren guziak:

«Pitié, mon Dieu, c'est pour notre Patrie!...»

Kominionea zen gero; eta soldado multzo bat, aintzindari zonbeit, belhaunikatu ziren, arimak eta bihotzak hazkartzan dituen ogiaren hartzeko: gure borts adixkideak han ziren lehen-lehenetarik.

Eta elizatik atheratzean, eskualdun andana bat elgarretaraturik, hetarik batek erran zion Piarresi:

«To, jakin izan bagindu, guhau ere kofesatuko gintuan, zuekin hortxet kominiatzeko...»

Eta Piarresek, sano-sanoa ihardetsi zion:

«Guk zuen beharrik baino gehiago ez zinduten gure beharrik, egin dugunaren egiteko. Zoazte oraino ere, muthikoak; hogoi bat aphez segurik baituk barne hortan, mezak emaitakoak baitituzte. Soldadoak dituk, gu bezala. Zernahi gertha ere, kofesatuak izanen zaizte. Toki huntan, boketattooa eginik hobe duk... Bertze egun batez gero kominiatuko duzue.»

Eta hala hala zen, soldado-aphezak non-nahi baziren, mezaren emaiten ari edo kofesatzen, xoko guzietan.

Piarresek holaxet ikusi zuen eta solastatu Elissalde, Uztaritzeko aphez on eta zaintsua. Eri-arthatzaile hala hala han gaindi ibilki jakin zuen Mendiondo, Katedraleko jaun bikarioa. Eta loria zitzaion holako adixkide onekin Eskual-Herriaz, Eskual-Herriko bere xokoaz eskuaraz mintzatzea.

Pausan holaxet zirelarik, ez bakarrik goizetan, bainan arrats gehienetan, berriz biltzen ziren oro eliza maitera, arrosarioaren goratik erraiteko eta Sakramendu Sainduaren Benedizione baten hartzeko...

Bihotzak gehieneri hola galdetzen ere zioten, eta bihotz hura hazkarturik igaiten ziren gero beren erreka-ziloetara. Ilhunbean argi bat bezala zitzaizkoten, Maizyn, Beaurieun edo Glènen, Jesus maitearen ondoan iragan oren goxoak.

VII HUNA ABENDO BELTZA...

Urriaren hamarrean, beren fusées-argi debruak laguntzaile, athera ziren berriz ere alemanak. Bainan, jin bidez itzuli ere, eta zalukara. Toki hartako ara hartua ginuen jada; eta etsaien bonba tzarretarik bat edo bertze gainerat heldu aintzindari batek ikusi ahal izan zuelarik, oiuhu batez gerizan emaiten zituen bere gizonak: «Oro eskuin, berehala!» Eta hainbertzenarekin, ezkerrean zapartatua zen bonba izigarria.

Zorigaitzez, ez zitezken oro ikus, denbora ilhunetan oroz gainetik, eta gizon hetarik bat edo bertze kolpaturik edo xehakaturik erortzen ziren. Orduan, su-ziri batzu argi-argia goiti iganaraziz, hel egiten ginion frantses artilleriari; eta kasik begiak hesteko artean, gure obuz handiak han erortzen ziren etsaiaren gainerat, gure ziloetarik eta hogoita hamar bat urhatsetan... Eta bazterrak zalu errexitzen ziren gure aintzinean.

Urriaren ondarrean, Heurtebiseko etxaldearen aintzinean, zazpi aldiz, hatskolpe, segidan athera zen etsaia, eta kasko hura guzia aleman gorphutzez estalia gelditu zen, gure ziloetarik guhaur atheratu ere gabe. Bainan, Craonnelleko gain hek oro irauliak hala ikustearekin, Piarresek min zuen bihotzean. Herri hartako jende gaixoek, etxe, lur eta azienda, denak galduak zituzten, biluziak beraz larruraino. Piarres laboraria zen, eta gerlak hola murriztu herria ikus eta, Oihanaldeaz orhoitua zagon.

Errabia batek hartzen bezala zuen orduan; eta, egun batez, obuza batek haren aldean lieutenanta puskaturik, xixpa eskuan plantatu zen, hamabost metra guziez moldatuak ziren altzeiruzko estalki handietarik baten gibelean. Hainbertzenarekin, kanoi-ziliporta alimale bat, bizar-naala bezen xorrotxa, bi urhatsetan sartzen zaio pezoinaren erdi-erdian... Ah! Boxetarik bat, batto bederen ez othe du garbituko?... Berrogoi eta hamar metretan, lurrerat erori etxearen harri-tartean, iduritzen zaio aleman baten burua doi-doi mogitzen ari ikusten duela. Xixparekin ongi begixtatzen du, tiratzen, eta... sist, orduan berean, bala batek berari zilatzen dio kepiaren kasko-kaskoa. Boxak eta Piarresek elgarri betan tiratua zuten beraz. Eta, boxa, bere kaska galdurik hura ere, eskuaz ari zitzaion minik ez zuela, trufaka. Piarresek, bere aldian, kepia inharrosi zuen, oihuka: «Hik ere huts egin nauk, bada, debru muthur-beltza!»...

Bainan, Joanesek jada hartua zuen bere aztaparretan; eta, anaia bat bezala, gaizkika ari zitzaion:

«He, Senpere, hire lagunak utzi nahia hiz, naski!... Démi-tour, s'il bou plé!»...

Erhotua, Piarres, bere menean zituen puska guzien boxari arthikitzen ari zen orai; xardina untzi, kontserba untzi, ogi-ondar atxeman guziak, besagainka botaiak, alemanarengana bazoazin firrindilaka:

«Bertze hainbertze erreferazak, ikusteko!»

Eta alemanak halako deusik ez izanez erreferatzeko, neurritz jada zituztelakotz beren jatekoak, deusik ez zen beraz jin haren zilotik. Sosegatu zen orduan Piarres eta hirriz ere hasi... Joanes, erdi goratik ari zitzaion:

«Tapatu duk oraikuan, Piarres! Beren xardina-untzietako burdinak eta oro jaten ditie eta alimale horiek... Bizpahiru egunez asetzekua aurthiki dakok beraz, eta ez ahal dik irri gaixtua egiten bere zokuan!... Garratoin debru hotarik behar dakok botatu best-aldian, beren ume guziak agian han inen baitituzte gero!»

* * *

Jatekoa xuhur balinbazuten ere, xardina-untziez bertze burdinarik arthikitzen zuten etsaiek gure gainera.

Noiznahi galtzen ziren gure gizonetarik zonbeit.

Eta bizkitartean, Baionako soldadoen aintzinean frango prestu zagon oraino alemana!

Noiz arte behar zen hola bizi, ziloetan herrestaka? Batzu edo bertzeak noizko zitezken Parisen... edo Berlinen?...

Zernahi berri bazabilan han gaindi. Gure adixkide rusoez sekulako guduak bazituzten irabaziak, han, iguzki-aldean. Ipharrean, jauzi handi bat eginak ere ginen guhaur, eta gure kabaleriako zaldidunak alemanen ondotik zabiltzan fur-furia gorrian. Légion Etrangère deithu soldado aiphatuak ere ethorriak ziren, harat, Moulin de Pontoix deithu tokira... Zer behar othe zen athera horietarik guzietarik?...

Eta gero, deusik ez...

Hotz egiten zuen, biziki hotz; eta estalkirik aski ezin bilduz, harrapaka ari ziren oro. Hazilaren lehenean, Oulcheko kaskoan zen Piarres. Begiek ikus ahala urrun, zer bixta ederra! Bainan bazter ikuska egoiteaz bertzerik bazuten gure soldadoek. Odolaren berotzeko ere pitta bat, beren ziloen hobeki moldatzen ari ziren, phala eta haintzurak eskuetan.

Pausurat jautsi zirelarik umatuak eta hormatuak, Joanes Garaztarrak ekarri zioten berria, baizik eta Xikito pilotari aiphatua sarjant egin zutela, kaporal ere ez zelarik oraino:

«Bere xixtera zahar bat ekarrarazi omen dik etxetik; eta, gero, aintzindarien baimenarekin, grenada bat xixtera hartan ezarri, eta tira-ahala errebesian aurthiki; grenada bat lehenik, gero bigarren bat, gero hamar, hogoi, eztakiat eta nik zenbat. Eta han, ba omen ditik, sei kapitain, zazpi lotinant, hamalau kaporal eta berrehun soldado aleman garbiturik!... Emak hor, Zikito!... Kanboko plazan ere baino hobeki ari duk, ezen harek aurthiki pilotaño horietarik bat ez diakoie itzultzen!... Ikusiko duzie ixtantian inen dutela kapitain edo koonel. Beharrik, gerla... berak akabatuko diauk, bestenez Joffre jeneralaren ordain ginikek hiru aste gabe!...»

Eta, Fisme-tik kaporalak arno-xahar botilla zonbeit ekarririk, Xikitoren ohoretan xurgatu zituzten, Jainkoaren lorian... Lau-bost kilometretan kanoia orroaz ari zen!... Halako phestarik ez zauden berriz eginik!...

Hain xuxen, lehen aldikotz, eskualdun kazeta ethorri zitzaioten, herritik amak igorrik. Hosto bakar batbaizik ez zen kazeta hura, eta ttiki ttikia, papera hainitz jada kariotua zelakotz. Bainan, Eskual-Herriko usainaz bethea baitzen ordean!... Eta sukar bat bihotzean, eskuak ikaran, irakurtu zituzten hantxet eskuarazko berriak, lehenbiziko lerrotik eta azkeneraino. Lanho bat itsusia herrestan bazabilan han gaindi... Bainan gure bortz adixkideek ikusten ere ez zuten; ez ziren gehiago Beurieuun, bainan han, Laphurdin edo Garazin, kazeta txar harek hartu ta beren sort-herrietarat oro eremanak...

Handik zonbeit egunen buruan, klasa berria ethorririk Maysirat, Baionako berri zerbeit jakin zuten oraino. Eta soldado gazteeri hirriz eman zitzaieten Piarres:

«Toki txarrerat ethorriak zaizte hunarat, gaixoak! Zonbeit egunez oraino, hemen begiratuko zaiztuztete, urrunera entzuten duzuen orroa horri zuek trebatu arte! Eta gero, gain hartako jauregietara jinen zaizte. Ez etsi! Bada han orenen toki...»

Eta hirri ahul bat, erdi nigar bederen zen hirri bat egiten zuten hogoi urtheko haur gazte hek!

Bere bihotz onaren jabe sekulan ez zelakotz, Joanes hasi zitzaieten orduan aldetik:

«Ez izi, ez, muthikuak! Ez dituk ez oro han gelditzen; ez behar ere! Bost hunarat jinak, huna nun giren bostak, eta gure hortz guziekin. Jinko bat baduk ba gain hartan... Eta, hain xuxen, orai orhoitzen bainiz, guazin oro elizarat. Bergey apheza mintzatu beharra omen duk berriz ere. Hura zerbait badenez ikusiko duzie. Hilak phitzarazten ez batu, ez duk segurki haren obenik! Guazin!»

Eta oro elgarrekin sartu ziren elizan.

eskualdunen meza zen hain xuxen. Bethi bezala, xokoak oro hartuxeak. Sekulako soldadoak hurbildu ziren mahain

saindura. Eta, bere herritarren berotzaile, Cazenave hazpandar aipatuaren anaia bat, bere boz ederrarekin, apuñatik kantuz ari zen:

Uholde baten pare, orai bekhatuak
Gaindiz bazter guziak ditu ondatuak!
Non dire fededunak, non dire justuak!
Azken eguna hurbil othe du munduak?
Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu;
Jaunaren haserrea
Othoi ezti zazu.

Gero oraino kantatu ziren: Krixto Erregeri, Amodio-ohore, eskualdun Anjelusa. Eta gizon hek orok bero zuten bihotzean, beren herrietako eliza maiteetan izan balire bezenbat. Eta, gogoz, kasik begiez, han ziren eta... beren herri xurietan!...

Eta asteak bazoazin bethi aintzina. Bethi eta dorpheago egina zen aroa; eta Beurieuoko oihanean erreka-ziloen egiten ari zirelarik gure gizonak, zer jasan bazuten egiazki! Lehen aldikotz, elhurra pisu-pisua erori zitzaieten. Bainan, xuri eta beltz hola eginak, hits iduritu zitzaizkoten bazterrak, oihan zoko hartan. Eta gogora jin zitzaieten, sasoin dorpea dela negua, xorientzat, alimaleentzat, eta elhurrean bizi behar duen jendearentzat... Zenbat hitsago beraz, gerla-tokietan hek bezala herrestan bizi behar zuenarentzat!

Arratseko zazpi orenetan, ilhun beltzean Beurieutik eta Oulcherat igaiten zirelarik, zer erorikoak han gandi!

Hirri egiteko ere baziteken, bertze muga batean izan balire!... Bainan hirri guti, arras guti entzuten zen orduan bazterretan. Ahapaldi gizen bat edo bertze doi-doia, bere zapeta, han, lohiaren erdian norbeiti gelditu zitzaiolarik. Zalukara eta kuku-mauka ez bazuen zapeta hura berriz biltzen, mainguka edo xingilka aintzina joaitea zuen, lagunak hura ez lehertzekotz edo harek bere lagunak ez trabatzekotz. Oinetako galduen ordainak non-nahi bazitezken gero gain hartan, obuza zonbeitak lehertu pareta baten azpian ehortzi soldadoen zango muthurretan...

Baionatik ereman galtza gorri pullitak, zuri-zuria eginak ziren aspaldi hartan. Zer mirakuiluz othe zagozin oraino beren jabeen gerruntzetan! Nola eta zeri kokatuak?

Bainan, Oulchetik eta ziloetaradinoko azken hamabost ehun metra heien egitea zen zinez izigarri! Ilhunbean bethi; noiznahi uri-erauntsiaren azpian, eta bertze burdinazko-erauntsiaren azpian ere bai, boxek ongi bazakitelakotz noiz beren ziliporta tzarrak igor. Bide hertsu bat, dena lohi, dena ur. Eta handik igan behar, bi plegutan, beren buruak ahal bezenbat ttiki eginik, baionetak eskuan tinko

atxikiz, harrabots gutiagorekin iragaiteko! Eta norbeit, han, aintzinean, kolpatua edo bardin hila eroririk, elgarren gainera muthurka joaite hek!... «Halte! Faites passer; Ordre du Lieutenant!» Oi, gelditze zinez ilhun eta xifrigarriak! Herioa, burrunbaka, hurbil-hurbila non-nahi han ibilki, ezker, eskuin, aintzinean, gibelean!...

Eta gero, gain hartaratu zirelarik, izerdi-busti hura!... Heien aintzinean han zirenek doi-doia hitz bat erraiten zioten, zer berri zen erreka lohitsuak jakinarazteko doia; eta, mamu batzu bezala berehala suntsituak ziren gau ilhunean, ahal bezen laster bazoazila harat, gibelerat, gal-menetik urrun... Eta oren bat gabe gero, hotzak iraganak hantxet zauden Piarres eta haren lagunak, ikare daldaretan klask-klask hortzek egiten ziotela. Horma ari zuen, horma xuria, harriak eta oro hantzen zituela eta halako harrabots batean kraskarazten. Haize bat heldu zitzaioten aldiz, haize mehe figura bat, Joanesi bere sudurra ereman nahi baitzion tenore batez:

«Ez dezakeat bada sakelan ezar! Luzexkua in ziakan Jainko maitiak!... Ene oheño hori botillarekin bero bahezaat, Piarres? Untsa maitia hinditake! To, Miarritzen, horma edo karroña kario erosten omen baitzuten joan den udan, merke balukek hemen gaindi! Adixkide edo ezagunik balinbaduk han, makila xuriño horietarik kintal bat igorriko diakoat, aguardient zorta batian truk...»

Erreka-ziloak deseginak kausiturik, heien berriz moldatzen ari ziren orai; eta, zorionez, lanean arindu bezala zitzaioten beren hotz-ikara itsusia.

Bainan gero, berriz elhurra, berriz ere horma! Bidonetako arno edo kafea bethi kasik hormatua zuten, pokadu zerbeiten egitera lotzen ziren aldietan:

«De la glace à tous les repas... Chic! Le gouvernement nous soigne un peu, là!» Eta hirriz heien aldean eman zen orok jada maite zuten lieutenant berria.

Eta Joanes, bere ezin egonarekin, Piarresi ari zitzaion:

—Ez duk harat hunatik, maitia duk gizon hori! Gure parreko aleman koko-beltzek nun ditie holako aintzindariak?...

—Hé, là! qu'est-ce que vous dites dans votre diable de basque?

—Oh! rien, rien, mon liéténant... que lé temps il en était choliment bilain!...

Elhurra bazen, bi zehe lodi... Eta gizon hek orok erdi-zorion bazuten, «uria bederen ez zitzaiotela gainerat heldu!»...

Gaixoak!!!...

VIII BETHI HAN

Urtharrilaren ondarrean, 25, 26 eta 27an, fur-furian berriz ere athera zitzaioten etsaia, bere artilleriarekin bazterrak oro erhausten zituela lehenik. Eta, Beaurietik, Oulchetik, Maizytik tarrapatan igan ziren gure soldadoak; 34^o Erreximendukoak hala hala. Xuri-beltzak ikusi ere ziren tenore batez, zilo bat edo bertze galdu, begien hesteko artean. Bainan, gure kanoi erne eta biphilak karrasian hasirik, gure Rimailho pisuaren pezak, fu, fu zerurat iganik eta gero trein baten harrabotsarekin zerutik jautsirik, bazterrak errexitu ziren Vauclerreko errotaren ondoan, Heurtebiseko etxearen aldean. Eta hirugarren arratsean, baitezpadako erreka-ziloak oro berriz guretuak ginituen. Kaskako bat ona harturik, odoletan suntsitua zen etsaia.

Bainan, odoletan geldituak ginen gu ere, eta brancardier gaizok bazuten non zer egin! Beren angeelak bizkarrean, ixil-ixila heldu ziren Oulchetik, Craonneltetik.

Bi, hiru, lau orenez, han, zabal-zabala eta intzireka egon kolpatuak, pulliki pulliki altxatzen zituzten. Eta maizago oraino, hil bat edo bederen hil-urren bat eremaiten zuten beren oihal handietan. Eri-arthatzaileak hil eremaile eginak, zorigaitzez!

Hil hetarik batek eskuan oraino zaukan soldado bakotxak zakuan berekin bethi deraman lothura xuria. Erhiekin hura ezin hautsiz, hortzekin urratu beharrez hasia bide zen. Lasterrago jin zitzaion... herioa; eta odol-hustua hantxet zagon pezoinari kontra.

Piarresen alde-aldean, xixpa eskuan mogitu gabe soldado luze-luze bat, bulharrak aintzin, jauzian zilotik atheratzeko bezala bi plegu egina, hantxet zagon hura ere, bere begi handiak han nonbeit galduak...

«Zer ari haiz hor, to?...»

Eta Piarresek hunkitu orduko, kraskez lurrera joan zen mamua: hila, hoztua, gogortua jada. Xilo ttiki bat doi-doia ikusiko zinioten foltsuaren ondoan. Begi zuri heiekin nori edo zeri beha zagolarik hila othe zen?...

Piarres, buru-has, errekien baten erraiten ari zen. Eriak bazeramazten bizkarrez, odoletan, xuri eta gorri, ikaragarriak zinez, hortzak ezpain ubeldu batzuetan asikian sartuak. Kolpatu zonbeit —xutik oraino egoiteko on zirenak— hautsiak, makurtuak, bazoazin hek ere. Erreka xokoan, guardiako soldadoa, xutik, ixil-ixila, herioaren beha zagon...

Eta, hala hala, Herioaren erresuma ez othe zen han, gain hartan?...

Craonnelle, Vasseignes, Oulchen, xutik oraino zauden etxe bakarren artetik, bazen gero harramantza! Zoko guzietarik ilhunbean atheratuak, aintzindari-muthil, mezulari, kozinari, puska-bilari, oro kukumauka elgarri gainka ari! Oihurik ez, bainan halako haro ilhun bat, itsaso zoko bat erranen baitzen. Ezkerretik, eskuinetik, gerlako-puskak heldu ziren burdin-karraska batean. Biharamuneko gudueri buruz moldatu behar gain hetan... Gudua! Bethi gudua!...

Betbetan, oro kolpez ixilduak ziren: kolpatuen karrosa handiak, beren bandera xuri-gorriak aintzin, harri eta egur guzien artetik, bardin gaisetrik, andarka heldu ziren. Eta ixil-ixila, bide egiten zioten orok. Eta gero, oihu bat, galde bat:

—Hainitz kolpatu bada?

—Sobera, zorigaitzez! Bertze hainbertze gain hartan utzirik heldu gira...

Eta, Piarresek, bere ondoan iragaiten ari, ikusi zituen orduan eri gaixoak, luze-luzea etzanak: begitarte zuri batzu puska ilhun batzuen erdian. Odol-usain bat bazoan heiekin, bihotzaren uzkaitezkoa...

Eta orai, puskaketariak badoazi gau ilhunean, kafe-untziak edo tupinak eskuan, ogi handiez edo jatekoz hanpatu muzetak arrosario izigarri batzu bezala lephotik dilindan... Egur alimale batzu ere baderamatzate, edo, bardin, halako keeta ttiki batzu, bi pezoinen arteko bide hertsu guzia hartzen dutela, kask eta kask paretak jotzen dituztela non-nahi. Buruak ahul, zangoek huts egiten diotela, zer behaztapak berriz ere, erasian ahapetik eremaileak ari direla!

Betbetan, kroa, kroa, fusée argi-argi bat kasko hartan altxaturik, gizon dohakabe hek oro, intzireka, zabal-zabala eman dira bide hertsu lohitsuaren erdian. Aleman mitralleuzak karraskan ari dira eremu haren guziaren ephaiten. Eta bihotzak tanpa-tanpa egiten diote Piarresi, Pauli, Mixeli, han, beren beharrien ondo-ondoan...

Gelditu da erauntsia edo bederen urrundu. Eror eta altxa, azkenean, huna dohakabeak lehen lerroan, lehenbiziko erreka-ziloan. Ilhunbean hantxet eta itsurat uzten dituzte beren ogi, jateko, egur eta keeta, puskek oro; eta parrapatakan jausten dira Oulcherat, herioari berriz ere eskapaturik...

Eta, gain hartan, erreka-zilo handian, doidoia ethorri zaioten ogiari edo altxagarriarik batere gabeko irrisazuri eta hitsari lothurik, ezin asez ari dira Baionako soldadoak, etsaiari berrogoi eta hamar urhatsetan... Eta gero, usainik eta gosturik gabeko kafe ephel bat hurrupaturik, elgarri kontra kurumilkatuak lokartu dira, zaintzaleak ernerik han dagozila, paretarekin bat eginak, mogitu gabe, ageri ez direla ilhunbean...

Tanka-tanka gure parrean, alemana lur zilatzen jada ari zen aspaldi hartan, guri hurbilago bere espion-beilariak hedatzeko. Eta lan horri buruz, hastean, guk ez ginuen tresnarik ere!... Noiz gure ziloetarik athera beha ginauden, oihuka eta agerian etsaia berriz gure baioneta sistakoen aintzinean eremaiteko...

Ametsak, amets xoroak hoik oro! Hilabetheak eta hilabetheak han behar ginen egon, urriaren 12ko, urtharrilaren ondarreko guduetan erori soldadoen kapota urdinak eta galtza gorriak beren barneko gorphutzez husten ari zirela, egun guzietz gehiago, gure gathe eta alhanbren aintzinean...

Vauclerreko kaskoan hola gelditu gizon gaixoak! Hetarik zonbeit, harat hupatu orduko, zortzi egun gabe holaxet eroriak; kasik oro herritik doi-doia ethorriak, herri maite hartaz begiak oraino betheak; gerla zer zen ere ez baitzakiten, eta tiro bat berek arthiki gabe, zabal-zabala hantxet hedatu baitziren, bi besoak aintzin! Nork egundaino zakizken heien izenak berak? Lagunek ere doi-doia ikusiak baizik ez zituzten... Eta hantxet eroriak ziren elgarren ondoan, elgar ezagutzen ez zutela! Heientzat ez zen izanen ez kurutzerik hobiaren gainean, ez eta ere... hobirik. Heien gorphutzak egonen ziren han, kalernaren azpian, bala ttikiak xilokatuak eta erainak ere alderdi guzietarat, egun guzietz ezdeusago eginak, hedoi pisuak eta uriak higatuak, hormak mikotuak, azkenean lurra beretuak...

Zenbat etxe xuri Eskual-Herrian, hola erori soldado gaixoen berriak, luze eta luze, debalde han igurikatuko baitziren!...

Eta bihotzmin bazuten senpertarrek, martir gaixoeri ziloetarik beha eta beha egoiten zitzaizkoten aldi guzietz...

* * *

Craonnelletik Heurtebiserat, kasko hartan guzian, xut-xuta, hotzez ikaran han daude beraz beilariak, hormatuak, nonbeit gerizatu nahi, eta non... ez jakin...

Estalki higatu eta ilhun batzuen azpian, berez-bere uria sartzen den geriza txar batzuetan, belhaunez burua hunkitzen dutela kurumilkatuak, lo daude gizonak... denak han nahas-mahas. Zilo handiagoetan ere geroxago, zer hatsa! Khe-usain, kozina-bafada eta bertze, pestia guzien erdian metan bethi emanak!

Bainan, huna betbetan manu bat:

«Harro hortik! Mogi lanerat!»

Eta, gizon moxkor batzu bezala xutitzen dire hola manatu soldadoak eta badoazi lanerat. Piarres eta Joanes, Paul eta Philipe han dira hek ere, ahoa kirets, mendiskaren kaskotik eta Blanc-Sablon, Oulche eta Vallée Foulon alderat, Andereen-Bideari hunarat, suge bat iduri heldu den erreka ziloan. Herioaren menean berriz moldatu behar erreka hoi!

Gau-erdi ditake, edo holako zerbeit; ilhun da zerua. Horma ari du borthitza, besoak gogortzen baitiozkate gizoneri. Bainan, laborariak ez direa han guziak, bakar batzuez bertzeak oro? Frantses lurra nork hobeki geriza dezake, lurrarekin borrokan, bethi etsai eta bethi adixkide, beren bizi guzia ari diren gizon hek baino?... Begiak erreka lo-eskasiarekin, buruak pisu, foltsuak tinko-tinko, lanean ari dira beraz, eta ahal bezen ixilik; noiznahi kurtuak eta zabal-zabala etzanak, fusée bat, karraskan biratuz biratuz, hedatzen delarik zeruan eta gero erortzen, hauskoaren azantz berarekin.

Argi horren ondotik, ilhunago baizik ez dira bazterrak. Izerdituak ari dira bethi, besoak bethi ta pisuago, esku-barneak tresnarekin minberatuak... Sekulako lan ba othe dute?

Huna bizkitartean argi-urratzea. Laster orai, urrunduko dira lehertuak, umatuak, gerruntzeak bi plegu eginak. Izerditan joanen dira, zoin beren ziloetarat, hormak han iraganen baititu, hotzez ikaran lurrerat eroriko direlarik eta lokartuko...

Betbetan, langileak non ari ziren oharturik edo bertzela, etsaia karraskan hasi da bere mitralleuza edo kanoi-ttiki madarikatuekin; eta, pezoinari buruz, bihotzak erhotuak, elgarri kontra kurumilkaturik senpertarrak eman direneko, herioa han dute beren erdian...

Zorigaitzezko lana! Paul gaixoa, sahetsaren gainerat eroria, odol xirripa ttiki bat heldu zaiola ezpain xokotik, ez da gehiago mogitzen... Bala batek joa da sahetsean, eta, ondikotz, sekulakotz joa! Hegaldaka joana da arima, gudurik gehiago ez den Jainkoaren herrirat... Philipe, alde-aldean, odol-husten ari da

ixterretik, bonba ziliporta batek ixter hura xirxikaturik. Elhurra bezen xuri bera egina, ezpainak ubelduak, intzireka huna muthiko maitea; eta, hitz bat gabe, begi iraungi batzuekin behatzen diote bere bethiko laguneri.

Joanes, nigar alimale batzuekin deusik ikusten ere ez duela, belhaunikatua hantxet da Paulen ondoan, bere esku trunkoekin zer egin ez dakiela batere. Piarres, ahal dituen lothura guzien hedatzen ari da Philipe gaixoaren ixter gainean. Eskuak ikaratzen zaizko, zauri itsusia ikusirik...

Zorionez, hainbertzenarekin, burdin-erauntsia urrundu da, eta eri-altxatzaileak laster harako dire. Huna non diren. Hilak eta biziak, oro altxatzen dituzte ixil-ixila. Paul baderamate holaxet, hilen artean. Eta hura hola, ezker-eskuin eremaielen sorbalda-gainean talastatua ikusteak bihotza erdiratzen diote Piarresi, Joanesi. Bizirik gehiago ez dutela ikusiko muthil gazte maitea? Ez dela hirriz bera xutituko, erreka-ziloan orai-orai bi plegu egiten zen gorphutz lerdena? Zer da bada gure baitan, gorphutzaz bertzerik, Paulen gorphutz hura ostixoan bizia atxikitzen zuenik? Zer ere baita eta, Hura hor zen doidoia... Eta ez bide da hor gehiago; ezen, huna gaineratiko gorphutz hura guzia...

Eta hura, xilo ttiki hortarik orai berean joan bide da... Joan, arima, bizia! Hura joanik, hila horra non deramaten beren Paul maitea!... Ezin dirote sinhets, eta othoitz bat ere ez zaiote heldu ezpainetarar; nigar kirets batzu doi-doia begietara, begi hek erretzen diozkatela...

Ernatu behar da bizkitartean. Oren-erdi bat gabe, argia ditake, eta nehor ez da egonen ahalko gain hartan guzian, alemanak sarri harrotzearekin.

Philiperen aldean belhaunkatuak, Piarres, Joanes, brankardierak lagundu beharrez, ari dira kolpatuaren hedatzen: «Pulliki, pulliki, gizon debruak, edo guhaurek eremanen diagu Oulchera!...»

Eta, kexu-kexua, bere bihotz beratza gogortu nahi balu bezala, Piarres lothu zaio eskutik Philiperi:

«Adios, Philipe!... Ez; ikus arte agian!... Eta gero, orhoit hadi arima bat badugula senpertarrek!...»

Bere ustez, Fismerat bazoan Philipe gaixoa, handik ospitale handi batetarat joaiteko, eta gero azkenean Senpererat!... Maizyrat heldu izan zen doi-doia, eta berehala han hil, eskualdun aphez baten besoetan!...

* * *

Argi-hastean, gogoak ilhun, buruak hustuak, belhaunak pisu, beren erreka luzean sartu ziren Piarres eta Joanes, bi adixkideak:

«Philiperik ez diagu naski ikusiren gehiago! Eta bi Paul baiginituen, ez ditiagu, hemendik-harat, bata bertzearentzat hartuko...»

Eta Mixel, Jérôme, Manex, bertze Paul, heien guzien biderat beren ustez ethorriak, hitz bat gabe hantxet gelditu ziren, begi atheratu handi batzuekin elgarri beira, elgarren bihotzak, tanpaka ari, sumatzen zituztela erreka-barne hertsian... Senperen ziren orai beren gogo guziarekin; eta, Senperen, belhauniko lehertuak, ikusten bezala zituzten bi ama dohakabe. Eta gero, beren amez orhoitu ziren...

«Hots, muthikoak, gaineko Nausiak hola nahi zian engoitik! Bainan, ez diuk etsitu behar, halere!...»

Biharamunean, Maizyrat jautsi zirelarik gure adixkideak, obuzek uzkaile etxe herresta batzuen tartetik bazoazin hil-herrietarat. Han, aphez batek othoitz labur bat ahapetik egin zuen, Vauclerreko kaskoan orroaz kanoi-pezak ari zirelarik; eta zonbeit zehe lurren azpian eman ziren Paulen, Philiperen eta bertze lagun gaixoen gorphutzak. Xuriz gero, kurutze beltz batzuen gainean ezarri ziren izenak... Ez haizeak alde guzietara jada harrotu nahi zituela, hil maiteen kepi gorriak hits-hitsa ikus zitezken orai, egunetik egunera handituz zoan hil-herri ttikian, odolez gorri-beltzatu lore handi batzu iduri baitzuten urrunera.

Handik atheratzean, beren adixkide garaztarra lagun, senpertarrak bazoazin aphezaren atxemaitera; eta sakelan zituzten guziak emaiten ziozkaten, zonbeit meza erran zitzan, lehen-bai-lehen, Jainkoarenganat hegaldatu arimen fagoretan...

«Eta orai, Piarres, egundaino baino adixkidiago behar diuk eta elgarri lothiago. Egun berian erretorari igorzkik bi lerro Senpererat, juan direnen eta gelditzen direnentzat othoitz in dezaten herrian!... Han eta hemen, gauza baliosak dituk aphezak!...»

* * *

Egun hartarik harat, elgar aski aztaturik bezala, aleman eta frantses, oro bazauden nonbeit han errexituak. Asteak, hilabeteak etsigarri bazoazin, etsaiak noizetik noizera baizen ihardokitzen ez zuela! Hiltze bat edo bertze, kolpatze gehixago nahi ta ez. Bainan zer ziren hoik, ikusien aldean?

Hirri zonbeit adi zitezken jada sator-ziloetan, eta kasik goratik. Nork erran du, hirriz ar diteken alimale bakarra... dela gizona? Eta, saskitik bezala, gizona gizon bethi agertu behar!... Hirriz ari ziren beraz gudulariak.

Primaderaren ondotik, uda bethean ziren jada; eta gerlak egin herexa guzien tartetik, sorroak eta loreak, herabe-herabe heldu ziren, emeki eta eztiki, lur-iraulien eta harrien erditik jalitzeko baimena lehenik galdetu nahi izan balute bezala. Gibelago, Beaurieun harat, erasian heldu ziren aldiz bixkar guzietako xara eta oiha pullitak, zuhaitzari Jainkoak bethitik eman manu gizona bethe beharrez.

Negu beltzean hormaturik egon ondoan, iguzkitara puxka bat hedatu ziren beraz Baionako soldadoak; bainan zuhurki oraino eta etsaiari beren buruak soberakinik agertu gabe. Idortu ziren lohiak, xukatu erreka-ziloak, eta musean ari ziren gure senpertarrak. Bai musean! Azkenik ethorri pusketerien erdian, karta pare bat atrebitu zen; Dantxariatik, Xerrendan barna, Senpererat, Senperetik Craonneraino hegaldatua!... Eta, doi-doiako bat hastean durduzaturik, lehenzortzik hasi ziren hantxet, biga bieri, bertze lagunak loriatuak heieri beha zagozila:

«Biak inbido eta pareak ba!...»

Eta, gauza espantagarri bat egiten zuten hantxet, etsaiari berrogoi urhatsetan, herioari urhats batean, musean ari baitziren gure eskualdunak, Maizyn edanen zuten arnoa zoinek bertzeari han irabazi beharrez!...

Gau batez, argi txar bat eskuetan, beren batteko eta erregeekin guduan holaxet ari zirelarik, harramantza zerbeiti erreka-ziloaren buruan ohartu ziren betbetan. Eta, zer hel ere, xixpak eskuan edo oraino baionetak, jausian joan ziren haraino... Ordu zen!...

Errekaren bihurtunetik batean, beren lagunetik bat, Joanesen auzo herriko garaztar bat, zilotik ustegabeen agertu zitzaion aleman bat garbiturik, bigarren bati lothua zen hartza bezala. Gaitzeko gizona zen gure buztintziarra, zuhaitz gazte bat bezenbat handiko gizona. Behartzen ere zitzaion tenore hartan!... Eskuineko aldetik, etsaiarenganat urrunsko zoan erreka-buru buruan gure beilari bat erdi-lo atzemanik edo bertzela, alemanak herrestan jinak ziren, ixil-ixila... Zorionez, ohartu zitzaioten gure buztintziarra! Erreka guzia berak hartzen zuela, kanit handi berezi bat ahoan, plantatua zen beraz bihurtunetik ilhunean; eta Piarres eta bertzeak aldean zituen jada gibeletik...

Bederazka, bat bertzearen ondotik heldu ziren beraz alemanak, elgarri zonbeit urhatsetan. Frango uzkur ziren alabainan, toki arrotza ere zutelakotz han gaindi. Hek ager-arau, bere esku alimaleekin lephotik lotzen zitzaioten Garaztarra. Tink-aldi bat ona emaiten zioten, mihia kanporat atherarazteko tink-aldia; eta, ixil-ixila, gibelerat jada botatuak zituen, Joanes, Piarres eta bertzeen aztaparretarat, ai baten erraiteko astirik hantxet ez zutela.

Lerro, lerro, holaxet, eta beren aintzinean iragan laguna zer egin zen ez zakitela, hamahiru aleman —soldado eta aintzindarixka, orotarik— jali ziren ilhunbetik, eta zalukara holaxet erori buztintziarraren krakoetara. Gehienak matatuxeak atheratzen ziren aztaparkatze izigarri hartarik. Lephoko zainak ezin aski zabalduz ari ziren, hats pitta bat berriz hartu beharrez. Harrituak ere zauden oraino, gerthatu zitzaiotena gerthaturik. Bainan, ororen buruan, mirakuilu bezenbat atsegin zitzaioten, bizirik hola atheratu baitziren eskualdun zigante alimalearen makoetarik. Eta, erreka ongi ilhuna izanagatik, ezagun zen halako beldur batekin

behatzen ziotela oraino beso-muthur heieri... «Hek aztaparrak! Gure Jainkoa!...»

Joanes han zuten aintzinean, hirriarik batere gabe phedeikuan jada ari baitzitzaioten:

«Ez ginakian heldu zineztela!... Min in dautziegu, naski, eta soineko pullit horiek ere puxka bat funditu! Barkatu othoi!... Jakiterat, eskularriak emain gintian, athorra-lepho horiek zier ez sobera zimurtzeko! Zertako ez, bada, xixtuño bat inen lehenik, demuntren teteliak!... Segur gure liotinantak gaizkituko ziuztela; bana, zihaturen hoben izain duzie, gero!... Allonne, en route mofés troupe!... Lé commandant il en sera très content fou voir. Il faudra confesser à lui tous les nouvelles, les péchés et tout...»

... To ez zakiat gehiago, Piarres! Ene frantses guzia hortan hustia diat. Bana, berdin dik, aleman gaizki ikasi horiek ere bestela iten ahal zitean! Gu musian ari ginelarik!... Eta gero, hamahiru jin behar! Ezin jin hamabi edo hamalau!...

... Xo! Horra liotinanta... Joanes Garaztarra bano hobe nitek orai... Buztintze!...»

Egia zion; hobeko zukeen Buztintze...

Handik oren erdi bat gabe, boxak kofesaturik eta toki segurean emanarazirik, gomenantak buztintziarra galdetu zuen bereganat, eta esku ikaragarri hek inharrosten ziozkala, galdetu zion:

«D'où êtes-vous, mon brave?»

Buztintziarrak frantses tuntik ez jakin!

eskualdun aphez-gai bat gomenantarenganat mezulari hain xuxen orduan suertaturik, haren medioz jakin zituen aintzindariak berriak oro, eta uste ez zituenak ere bai. Haste hastetik kasik, suan hantxet zen gure Garaztarra. Eta bost haurren aita zen, nehor ez zela gauza horri ohartu, eta berak ere deusik ez zakiela hura altxatuz geroztik eginikako legez!...

«Ta place n'est pas ici, mon garçon... Des soldats comme toi, j'en voudrais beaucoup. Mais un père de cinq enfants n'a pas le droit de se faire casser la figure... Pour l'instant, je vais te faire évacuer à l'arrière, et nous verrons ensuite à régler ton dossier. J'aurai du reste à le grossir de quelques lignes bien méritées. Adieu, mon brave; merci de tout ce que tu as fait pour ton pays...»

Buztintziarraren loria, eskualdun aphez-gaiak berri handia erran ziolarik! Bere haur maiteak! Ikusiko zituen beraz berriz oraino, eta gero, bethi, bethi!... Eta, xut-xuta hantxet, nigar egin zuen aita gaixoak...

Biharamunean berean, Fismerat behar zuen, handik gero Bordelerat joiteko. Adixkideak han zituen oro aldean, haren loria guziaz sanoki loriatuak. Beren untzietako xorta guziak bildurik, kafe ondar ttirritta bat edan zuten orok haren haurren zorionari. Eta gero, Joanesek papotik bere herritarra harturik, erran zion:

«Adios, Erramun!... Zozoak hi eta gu, hoin beste luzaz hemen egon baihez lege kontra, obuzen azpian! Zer den hatik ez-jakitia... Bana, hire hurrek beiratu hute... untsa duk hola... Eta, orai, sekulan Garazirat joaiten hizaneko, Hergarai eta Buztintze ez baitira elgarrenganik hain urrun, joain hitzakiat ene ama gaixuarenganat. Besatraka besarkatuko duk ene izenian, eta errain diok ez dutala gero batere etsitzen! Errain diok... Bainan, to, badazkik hihaurek hemengo manerak. Errozkok, bainan ez sobera minak. Musian artzen girela salazakok, to... Ez ditie han guziak jakin behar...»

Eta, amaz hola orhoitu eta, deusik gehiago ezin erranez, baztertu zen Joanes. Haia-haia, eta gibelerat behatu gabe, bere puskak bizkarrean, bazoan aldiz Erramun...

* * *

Min guti egin zioten goiz hartan musari Joanesek eta haren adixkideek...
Zorionez, letrak ethorri ziren bihotz-altxagarri. Bakotxak bazuen berea.

Eta, loriaturik, Piarresek huna zer kausitu zuen bere haren barnean: hosto xuriño bat, aldean-bertze koplaz estalia. Elgarretarat oro bildurik, eta bat-bertzearen sorbaldaren gainetik luze-luzea behatzen zutela, ari ziren orai koplak heien kantuz irakurtzen:

GERLA-TOKITIK, NERE AMARI
(Uso-Xuriaren airean)

1

Ama maitea, gerlatik,
bi lerro hauk, bihotzetik;
heldu zauztan bezala, gogotik
igortzen dauzkitzut, zilotik,
nigar ezti bat begitik
eskapatzen zautalarik! (berriz).

2

Gau erdi da, ama ona,
ixil dago alemana;
gau bat ederra, gau eztiarena,
gauetan xoragarriena,
nere bihotza zugana
hartu eta daramana! (berriz).

3

Ilhargiak, aintzinean,
behatzen daut, hor, airean,
ilhargi bera, ama herrian
zuri beha dago, zeruan!
Zonbat uros ni, gau huntan,
han banintz, ilhargi hortan! (berriz).

4

Ama gaixoa, ohera
oraikotz joana zira;
ohera... bainan ez lokartzera...
nigar eta nigar urtzera!
Nigar hoi en xukatzen
ahal banu jin ondora! (berriz).

5

Zonbat aldiz, han, etxean,
ohera ez naiz ni joan,
musu bat eman gabe sekulan
ama gaixoari, matelan!
Baten orde, lorietan,
mila banuzke, gau huntan! (berriz).

6

Urthe bat! Ama maitea,
zuretzat ephe luzea!
Hain maite nuen zure ilea
ainitz xuritu othe dea?
Ene amaren begia,

nigarrez urtu zirea? (berriz).

7

Bainan ez, amatto ona,
ez zirea eskualduna?...
Ez zira sobra nigar egina,
gelditu zira bihotzduna!...
Altxa Jainkoarengana
othoitzetan samurrena! (berriz).

8

Jinen gira gu gerlatik,
Jainko horrek lagundurik!
Jinen gira, kopeta gorarik,
eskuak lorez ihaurrik!
Etsaia guk suntsiturik,
ez da izanen gerlarik! (berriz).

9

Nere harma eskuetan,
othoitzño bat ezpainetan,
zer gau goxoa nik deramatan,
zurekin, ama, solasetan!
Bihar gero, erreketan,
zer bihotz gora duketan! (berriz).

10

Ama ona, goiz-aldera,
orai zoaz lokartzera!
Lo egizu; gu, harmetan gira,
erne gaude zuen zaintzera!...
Gure eskualdun Herrira
sekulan jinen ez dira!!! (berriz).

J. BARBIER

**HERRITIK NERE HAURRARI
GERLA TOKIRA**
(Uso-Xuriaren airean)

1

Seme maitea, goizean,
mezatik atheratzean,
zure letrañoa izaitean,
salto banuen bihotzean!
Zu, nigarrez... egitean,
ni aldiz... irakurtzean! (berriz).

2

Ez naizela ni lokartzen,
derautazu izkribatzen:
ez dautzu Amak hori ukatzen
loak ez nau ni ezagutzen;
etxetik haurra urruntzen...
Amaren loa joan zen! (berriz).

3

Nigar goxorik egiten
ikasía dut nik aurthen!
Jainkoak bakarrik nau entzuten,
bertze nehork ez nau ikusten:
Amak baizik ez jakiten
amak zer duen jasaiten!(berriz).

4

Zuk ilhargia bezala,
izarño bat, hala hala,
zeru ederrean badutala
nehorí zuk ez othoi sala;
musuak, mil eta mila,
han emaiten ditudala! (berriz).

5

Urrundu zinen phondutik,
sainga-ta saingaz athetik,
gure xakurra erasiatik
ez zauku gelditu geroztik...
Jin zarenean gerlatik,
janen zaitu gutienetik. (berriz).

6

Zonbat aldiz keetara
ez naiz egotu begira:
Noiz agertuko zen ene haurra,
noiz jinen ni besarkatzera?
Gauaz ere bethi beira
harrabots ttikienera! (berriz).

7

Soldado bat ikus eta,
bihotza saltatzen zaita;
ni bezenbat kexu zure aita,
haren grina handia baita;
bertzerikan ezin goaita,
bertze nehor ezin maita! (berriz).

8

Mahainean jar-alkia,
ganberan zure ohea,
dilindan dagon sega handia...
Zutaz mintzo etxe guzia;
heian, marrumaz behia:
«Norat joan den nausia?» (berriz).

9

Nere buruko ilea
da poxi bat xurítua;
bainan, bihotzez bardin gaztea
uste dut bethi egoitea!
Zu ikus eta, maitea,
Argítuko zait begia! (berriz).

10

Lurdeko Ama Birjina,
Jesus hain maite duzuna,

onhets, othoi, nere bihotz-mina!
Ezti nere barneko grina!
Semeetan maiteena
itzul, othoi, nere gana!!! (berriz).

J. BARBIER

Horra zer heldu zitzaieten herritik. Eta bi letra hoik igortzean, kondatzen zioten Mariek, Helbarronerat Pazkoen eremaitera jaun erretora joanik, nola Martiakoineko atxo batek galdetu zion, hean irakurtu zituenez Eskualdun astekarian agertu ziren kantuak?...

«Gogorki pullitak zauzkit bat ala bertzea. Bainan, igual du, ama nausi da semeari. Pullitago dira haren persuak.»

Eta jaun erretorak hirri egin omen zuen jende maite heien lañotasunari.

Hirriz ari zen Joanes ere, xaharraren athermaldia entzunik:

«Seme gerlaria hemetik, eta ama gaixua herritik, ez zitezkean molde berian mintza; bixtan duk. Bana, egia diok gure atxuak. Bego bethi ama! Ez duk nehor, bihotzez amari juain dionik!»

Ama! Berriz ere ama! Bethi ama!

IX HERRIRAT! ETXERAT!

Maiatzean, alemanak oldar zerbeit egin zuen oraino, eta bizi-bizia atrebitu zitzaukun. Bainan ez ginion amor eman batere, eta galtze guti izan ginuen arras, zeren burdinazko kaska pisu batzu gure soldadoek emanak zituzten orduan berean, lehen aldikotz. Ordutik harat, puskaz gehiago gerizan zituzten buruak. Eta berriz ere, errexitu zen etsaia; hainbertzetaraino errexitu, non, nehork asmatuko ere ez zuen berria eraiki baitzen ahapetik eta ixilka lehenik, haro handiangoarekin gero, uztailetik harat: «Baizik eta Permisioez, zonbeit egunentzat etxerako zirela guziak, zoin bere aldian»...

Berri espantagarria, zinez egiazki, eta bihotz-altxagarria bezenbat lotsagarria!

—Permisioeak, gerlan!... Ez ditekena duk hoi!

—Ez ditekena, Piarres? Zertako? Behin ere ez othe duk irakurtu, Napoleon handiaren denboran, Harispe jeneral eskualdunaren permisionearekin, Alemaniatic eta Baigorriat jo zutela eskualdun soldado batzuk, pilota partida bat lehenago hitzeman eta, hura jokatu beharrez? Oinez jua zitian, partida jokatu Baigorri, jokatu bezala hura irabazi; eta oinez itzuli zitian Harizperenganat, hitzeman tenoreko, tankez! Persiak ere irakurtu ditiat lehenago Eskualdunian, Hillun Garaztarra delako batek luze-luzia emanak...

—Egia diozu Joanes...

Eta, hola azkenik mintzatu zitzaietenaren aintzinean xutitu ziren gure adixkideak oro. Etxeber omoniera, brixtaoan bethi bezala heienganat jinik, han zuten ondoan, bere ile kuzkurrak kapeluaren azpitik jalitzen zitzaizkola, sotana gerruntzeraino altxatua, kurutze bat gerruntze hartan trebeska emana, bere begi erneak alderdi guzietarat zerabilzkala.

Bordes omoniera 34garren erreximendurat zonbeit hilabete hartan iraganik, Bergey apheza aldiz 18garrenerat, 49eko omonier egina zen Etxeber bikarioa. Eta maitexko zuten eskualdunek beren omonier berri biphila, maitexko zituzten haren solas-aldi erne, zaintsuak.

Hirri bat bere ezpain meheetan, Joanesi mintzo zitzaion beraz:

—Egia diozu, Joanes. eskualdun soldado batzuk egin dute, lehen, aipatu duzun balentria. Eta badut uste, denbora aski laburrik barnean, itzuli bat eginen duzuen, zuek ere Eskual-Herrian. Bainan, treinez eginen duzue, eta ez oinez; ez

zaut hatik iduri pilota partidarik eginen duzuela Lekumerrin edo Senperen, zuen xokoaz sobera goxatu nahiak izanen zaiztelakotz.

—Baditake orobat, jaun apheza... Bainan igual du, gerla laster agian bururatuko zitzaukula baiginauden, debruak joan ditu beraz gure ametsak. Adio gure mandoa! Permisionez etxerat! Molde hitsa hoi, laster eta behin bethikotz harat itzultzeko, aipatu gure xokoetarat!

* * *

Uztail-aboztuak, buruila ere iragan ziren bizkitartean, nehor herrirat hegaldatu gabe. Sukar bazuten orok beren bihotzetan, eta permisionez bertze solasik ez zen erreka-ziloetan eta pausa-lekuetan.

Lur huntako gauza guziek bezala, bere on gaitzak bazuzkeen aipatu permisionek. Herritarrendako zorionik baizik ez ziteken buru hortarik eta maitetasun gehiago ekarriko zioten gero, hiratuak, dena erhauts eta lohi ethorriko zitzaizkoten gudularieri.

Bainan, bardin zuhur othe zen gudulari horientzat? Urthe oso bat hala iraganik gabezia eta neke guzien azpian, heriotzearen menean bethi eta odoletan erori hainbertze lagunen erdian, ez othe zitzaizkoten zainak ethenduko, bihotza ttikituko eta ahulduko?

Dena bere loriari, soldadoa guti grina zen hortaz; bainan kexu ziren aintzindariak. Sekulako matrikulaeta zinfoniak behar ziren permisionez jabetzeko; eta nehor ez ziteken urrunt su-tokitik, herriko bi jaun bederen hartaz berme eman artean, berriz gerlarat itzuliko zela.

—Briepolatu! Berek emain ere diauie, Orionen gaindi, mugaz bertzalderat juaiteko gogua.

—Ba eta bertze batzuk zainduko ditie gure aita-amak eta haurrideak, Lekumerri eta Senpere! Utzkik, utzkik koko-beltz horiek haraino joaitera!...

—Hala duk hori ere, Piarres. Silentze dans lé rang, Joanes!

Urria jin, urria joan, udazkena iragaiten ari zen holaxet, Eskual-Herrian, usoak bazoazin, hegalez zaflaka, gerlarik ez balitz bezala ez-axolatuak, tiro bat ondolik ez zutela, edo sare-kolpe baten firrinda sumatu ere gabe. Omia-Sainduri lau egun lehenago, Piarres, Joanes eta Jérôme, heien lagunetarik bat, xoria bezen alegera, Fismetik airatu ziren azkenean, lau egun labur eta luzeendako!... Pariserat joaiterik ez zuten, haizu ez zitzaiotelakotz. Bainan, zer zoakoten? Eta bertzalde, hirriz Piarresek ziona:

«Doniane ez othe zen Petit Paris;
Bayonne son écurie?»

* * *

Eta holaxet heldu ziren bide luzean, unhatuak eta umatuak, erditan lokartuak, luze luzea etzanak. Hainbertze gau hetako loak oro ez othe zituzten hartzekoak alabainan? Frantzia behereko ixiltasunaz eta bake handiaz zozotuak bezala heldu ziren...

Non ziren bada kanoi-peza handiak eta ttikiak, non mitralleuza errabiatuak? Eta lo pisu-pisu batetarik atzarri zirelarik, begiak torra eta torra emaiten ziren lehenik, kanporat beha eta beha. Hantxeko alhor hek, zelai handi eta nasai hek oro, zertako ez ziren bada obuzek uzkailliak? Bertzerik ez zuten eta ikusi hamahiru hilabethe hartan!... Berak zer ari ziren, bagon-gurdi handi hartan? Non ziren erreka-ziloetako pezoin usainduak, non beren xixpak? Etxe hek oro zertako zauden oraino xutik, lurrerat abian izaiteko orde, Oulchen, Glènen, Maizyn bezala? Eta jende hauk zer ari dire, panpinaturik oro, lohia lephoraino sartu ez balitzaiote bezala gerlarieri negu guzian?

Emazteki hauk, neskatxa hauk hunaraino ethorriak, beren irin eta mirailak

eskuan? Gerlarik ez othe da? Gerlarik ez othe da izan batere, eta amets egin othe dute guduan zirela hamabost hilabete hartan, eta milaka milaka gizonak han erori direla?...

Zer ari da jandarma hura, hantxet, geldi-toki edo gara buru-buruan, argi-argia bere oinetakoak, argi-argia bere gerriko uhala eta botoinak, kepia galonez gaineraino josia? Joanes, beltz-beltza bere hogoi egun hartako bizarrarekin, hori-horia eta zuri-zuria bere urthe hartako erhauts eta lohiarekin, bi plegu egiten da bagoneko athe-leihoan, athe-leiho guzia berak hartzen duela. Hain xuxen treina abiatzen da, eta huna Garaztar debrua, jandarma ederraren aintzinean iragaiten ari:

—Dis-donc, lé cogne; il y en a révu d'instalache?

—???

—Passe à moi lé zirache, et à Piarres aussi...

—???

—De quel réchimane tu es?

—???

—Il y en a beaucoup dé perte dans ton réchimane?...

Ahoa zabal-zabala, bere muztatxa handiak baino handiagoko begi batzu errabian biribilkatuz, jandarma, ukhamiluak bildurik, hantxet zagon garaztar haga luzeari beha.

Piarres, gerruntzetik lothurik, tira eta tira ari zitzaion aldiz bere lagunari:

«Debru gizona! Haugi hunat edo ez gaituk hirekin herrirat helduko!... Gizon prestuak dituk jandarmak!...»

Noizpeit biratu zitzaion beraz Garaztarra. Eta bere begi ttikiekin, bere aho alimalearekin hirriz ari zen goxoki:

«Halauk eta! Bere ziraia okaztagarriarekin nardatu ere nik, senpertarrek diozien bezala. Hortxeko andere horrek bere irinarekin bezenbat nardatu nik harek bere ziraiarekin...»

Eta delako andere irinduari Piarresek ere behaturik, hirriz ari ziren orai bi adixkideak.

Eta bere irin xuriaren tartetik, poxi bat gorriturik halere, erasian ari zen anderea:

«Oh! ce qu'ils sont malpropres, ces soldats! On ne pourrait pas leur faire prendre un bain, avant leur départ pour cette honteuse permission?...»

Zorionez Joanesek, Piarresek eta heien lagunek ez zioten behatzen ere gehiago!...

* * *

Beren bizitze berriari poxi bat gehiago eginak orai, heldu ziren, bethi heldu, Landesetako pino-oihanen erdian hunarat, beren jateko ondarreri lothuak, xahakoari azken hatsa edekitzen ziotela. Arratsalde aphala zen.

Betbetan, xahako hori eskuetan altxatua oraino zaukala, gelditu zen Piarres, eta Garaztarrari zimikoan besoa hartzen ziola, ikare batekin mintzoan, erraiten dio:

«Larrune! Joanes, Larrune!...»

Eta hitz bat gabe gehiago, ixil-ixila beha zagozin hiruak; eta jauzika bulharretan eman zitzaizkoten bihotzak... Egia zion Piarresek. Heieri beha hura ere, Larrune jalia zen, han, urrun, aldare handi bat iduri, Eskual-Herri guziko koloreak eta usainak oro bilduak balitu bezen eder...

Eta orhoitu ziren hiruak, hamabortz hilabete lehenago, Pabeko bidean, azken aldikotz hola-hola ikusi zutela mendi maitea, heieri agur erraiteko goiti aski ezin altxatuz ari zela... Orai, aintzinerat heldu zitzaioten, bere haurrak besarkatu nahi izan balitu bezala...

Handik oren bat gabe, karraskan sartzen ari ziren Baionan.

«Bayonne! Bayonne! Dix minutes d'arrêt!...»

—Errat, to, Joanes, haugi gurekin Senpererat; Oihanaldean orok ezagutzen haute gaur-gero, eta badukek begitarte... Bihar segituko haut Uztaritzerat, gure etxeko karroarekin.

—Ez, Piarres, ez! Ama bat badiat nik ere, eta oren gutiegi diauk lau egun hotan, hetarik bat ere Uztaritzeko bidian hik eta nik galtzeko. Goraintzi Oihanaldekoeri, eta erreek, hire ezteietako, sinfalt han izain dela Joanes Garaztarra. Ikus artio, Piarres, hemen berian, gibeleratekoan... Dihizira hori betherik ekharrak eta xahako hori ere ba; zerbeiten beharra izain diuk, bihotzaren phizteko. Ikus artio, Jérôme, bi xahako ekharzkik hik ere, baten orde...

Eta, Baionari behako bat eman ere gabe, ederra ezin gehiago bere philda hits eta lorioetan, bi jauziz igan zen Garaztar maitea Doniane Garazirat buruz jada abian zen trein ttiki koxkorrera...

* * *

Ilhuntxea zuten Jérômek eta Piarresen, Donianen, Goñiren etxean pinta bat husturik, banpa-banpa Senpereko bidea oinez hartu zuteneko. Ixil-ixila heldu ziren orai, Azkaine eskuin utzirik, Mingotengan barna, Lizardiko parrean hunarat, ilhargi eder batek argitzen zituen gauza guziera beha, beren herriko zerez begiak ezin aski asez.

Huna Ibarrongo argiak... «Adio Théophile!» Bainan, ez dira nehon sartzen, ez eta ere, lehenago Gaxienek bezala, «une boîte d'eau-de-vie» frantsesez galdetzeko. Nahiago lukete etxean!... Hara, hain xuxen, Olhaso-kaskoa, hara, kasko hartan, Oihanaldea... Pil-pil egiten dio Piarresi bihotzak. Huna hortxet Senpereko karrika, huna eliza zahar maitea, Jainkoaren itzal handi bat bezala, bere dorre zabala aintzin, herriaren zain kurumilkatua. Zoin eder zaizkoten hoik oro, ilhun airetto batekin, ilhargi-xuritara!...

Zaldubian dira; Urgurin gandi joan behar da Jérôme, ibar muthurrean altxatzen den etxe xuhail pullitera:

—Ikus-arte, Jérôme; etzi arte! Omia sainduz, elgar atxemanen diagu, eliza ondo hortan. Goraintzi guziera hire etxean.

—Ba; ikus arte, Piarres, eta goraintzi hik ere Oihanaldean.

* * *

Hil-herrietako athe handiaren aintzinean othoitz bat eginik, Dolabaratzeko landan harat badoa orai, urhatsa bethi eta biziago. Mendealak emaiten du guti aski, eta aldapari lothu deneko, xakur-sainga bat sumatzen du, bertze mila saingen artean bethi ezagutuko zuena: Xuriko!... Eta hogoi urhats berak egin ere gabe, gainean zuen xakur maitea, lanik aski baitzuen muthil gazteak, haren beso eta musu erhotuetarik bere buruaren begiratzeko.

Bainan Xurikoren sainga mixteriozkoari oharturik hek ere, Gantxume, Ganix, Frantxa eta Xaneta, jauzteka heldu ziren ipularrean hunarat... Eta, Piarresen ez zakien gehiago zeri eta nori buru egin... Xakur eta jende, orok, oihuka, xanpaka, setiatua zaukaten; eta besorik aski ez zuen muthiko prestuak, ororen aski laster besarkatzeko. Hirri eta nigar, orotarik bazen han. Eta, bere bi arreba ttikiak sorbalda gainean, Xuriko lehen, Ganix eta Gantxume ondotik, oro bazoazin, Phesta-Berriz bezala, proesionean...

Athean hunarat lasterka, heldu ziren aldiz ama Gaxuxa eta Marie arreba; eta Pazko goizean lehenago bezala, Jon Doni Joane, gaztena, aintzindu zitzaion Petriri, zaharrenari. Bainan, Pazkoz Jon Doni Joane Petri bezala, ez zuen Mariek ama igurikatu; eta bere bi besoak Frantxaren eta Xanetaren gerruntzen tartetik

luzaturik, musu eta musu ari zitzaion anaia handi maiteari...

Eta ama han zen orai bere semearen aintzinean... Parrapatakan, lurrerat erdi-utzi bezala zituen Piarresek bere arreba ttikiak, eta, hitz bat erran gabe, elgarri lothuak han zauden ama-semeak... Hedoi beltz handi baten azpian bere burua gordetu aintzinean, ilhargia maiteki beha zagon zeru gainean.

Eta orai, zorionak lehertu balu bezala, bere seme handiaren beso-gainean finkatua, ama heldu zen urhatsean...

Athe-alazean, aita xutik han zagon, begiak argi-argia, ezpainak ikaran. Doi-doiako bat baztertu zen Gaxuxa, eta bi gizonak elgar besarkatu zuten, han, Oihanaldeko lorioaren azpian... Frantxa, Xaneta, Gantxume, Ganix bera, jautzeka, putinka ari ziren sukalde handian. Marie jada lothua zen, lazari beheiti dilindan zagon xingar-azpiari...

Eta gero, Piarres, jan eta edan ari zen, buruz-buru bere aitarekin; eta nahiz jadanik afalduxa zen, Thomas berriz lothu zen xingar zafla eder bati, bere Piarresek bezala egiteko. Etxe-arnotik ari, mathela koskoak gorri-gorria, bata bertzea bezenbat baziren aita semeak.

Otruntza bururatu ondoan, xixtuka kanpoan mendeala ari zela, supazter inguruan oro eman ziren; eta Piarresek ez zerabilkan mihia aski zalu, guzien galdeeri betan ihardesteko... Hango berrien emaiten ari zen orai, itsusienak eta ilhunenak beretzat begiratu. Haren belhauneri xutik egoki, Frantxa eta Xaneta Phesta-Berrietako bi aingeru bezen prestu zagozin, beren Piarresi aho-xilora beha eta beha. Ganix eta Gantxume, burdinazko kaska eskuan harturik, haren aztutzen ari ziren; eta, Marie, oldarrean jada heldu zen neguaz orhoiturik, hirriño batekin Lizartzako berriak emaiten ziozkala, Piarresen galtzerdi lodi batzuen egiten ari zen. Thomas, bere pipa ezpain-xokoan hiltzerat utzirik, herioaren erresuma izigarria hainbertze luzaz ikusia zuten eta hango gauzez zola-zolaraino betheak ziren begi heier beha zagon, ixil-ixila. Harat hunat zabilala, amak intzire bat bazuen, bere Piarres ederraren philda hitsak, haren foltsu zimurtuak eta mathela-xilo sartuak ikus eta. Eta nehor ez zen orhoit gehiago orenak aintzina bazoazila.

Bizkitartean, gau-erdiek jo zuten urrun, eliza-dorrean, eta ikaratu bezala zen Gaxuxa:

«Hots, haurrak, gau-erdi huna non bildu dugun. Goazen oherat! Zenbat unhatua den Piarres ahantzixea ginuen guziek... Aspaldiko orde, bere ohean lo eginen du gaur; eta Jainkoak barkatuko ahal dauku othoitz labur bat baizik ez baitugu arrats huntan eginen Oihanaldean! Hamarreko bat erranen dugu bakarrik, gure Piarres hemen dugula gurekin!»

Eta, oro zoin bere ganbaralat joanik, amets goxoenez bethe zen gau hartan Oihanaldea...

* * *

Biharamunean, eguerdi arte lo egon zen Piarres, eta xitun ibili ziren guziak Oihanaldeko sukaldean, muthil maitearen ez atzarrarazteko; Xuriko bera ixil-ixila egon zen, sainga bat ere gabe.

Bazkari bat onttoa moldatu zuen Gaxuxak, eta kafeak eta oro hartu zituzten guziek, Piarresen ohoretan. Bazuen oraino zer konda bezperan eman berrien gainera, eta Joanes Garaztarraren atheraldiez hirri bat baino gehiago egin zuten guziek.

Arratsalde erditan, Piarres xutitu zen, bazterrak ikusi beharrez, eta Lizartzakoeri agur bat egin behar ziotela, gehiago igurikatu gabe. Eta hirriño bat egin zioten Gaxuxak eta bertzeek.

Hegoak emaiten zuen. Landaz landa, alhorrez alhor, ibili zen beraz bera bakarrik, xoko guzietan gauza guziera ohartua. Haren aintzinean, zapartaka bazabilan Xuriko. Mahasti bixkarrean gelditurik, Senpereri beha eta beha egon zen, Olhaso, Olha, Amotzeko xoko bat, Plaza, Hergarai, Urguri, Artzirin, Helbarron aintzinean zituela edo sahetsean, ezker eta eskuin. Herriko bixkar pullitak miatu

zituen begiez eta Larrune handi maiteari, behatze luze-luze bat eman. Zoin eder ziren bazterrak!...«Zoin eder Udazkena, gure herrietan,

Hegoa firurikan mendi-bazterretan!
Odola harrotzen du orori zainetan:
dantza piko bat niro eman lorietan!
Mendian, Jainkoari hurbil da artzaina,
iratze ederrenen erdian etzana;
ardiak han badauka sorho gizenena...
Otseho zalurikan doa harat-huna.
Gaztainak hirriz daude, ezpainak ageri;
panpaka hagak ditu lurrerat ixuri.
Iratze-gorri pean, kasu onjoari,
brosta barnean aldiz, lo den herbiari!
Miñauta, uso handi, kalla'ta utarda,
mota guzietarik ororentzat bada;
tiroaren ondotik tiroa entzun da...

Ihaztaria, sarri, badukek zer konda!Huna orai lertsunak, karranka handitan,
errebelatuak, han, zeru-gorenetan...

"Lertsuna lerro-lerro, lerro-lerro betan!"
Arbi-jorratzaileak heier so landetan...
Segadetan xoria, lephotik hartua,
dilindan horra non den hortxet urkatua:
xori-berriketari, hanbat maitatua,
kanta-zaguk, gaixoa,... hire hil-kantua!»
J.B.

Eta, panpaka, hain xuxen, Olhaso-kaskoan, gaztaina-arthikitzaileak sumatzen zituen Piarresek. Lertsuna bi lerro, beren kapitaina aintzinean, xori handi baten bi hegal luzeak iduri, hantxet bazoazin Ibarburuko kaskoan harat. Eta iduritu zitzaion Piarresi, arbi-jorratzaileak, lertsunari bezenbat, hari beha zagozila landetan.

Bazter xoragarri hetaz guziez begiak aserik, Piarres itzuli zen beraz eta abiatu Lizartzako aldera...

Marxukaz bethe sasi batzuen tartetik bazoan Piarres; eta, hain xuxen, pegar bat buruaren gainean, ithurrotxetik heldu zen... Goaña Lizartzakoa.

Neskatxak ikusten ez zuela, hari beha zagon Piarres, hari eta haren sasoin maiteari. Bi plegu besoa egina, esku bat pegarraren giderrean, arin-arina, hatsak batere penatzen ez zuela, hurbiltzen ari zen beraz Goaña, iguzkiaren argi guziaz inguratua. Eta bertze gazte batzuen irin, tinta eta panpinkeriez orhoiturik, hirri goxo bat bazuen Piarresek, Lizartzako andre-gaiaren lañotasun ederrari, haren maitetasunari behatu eta.

Elgarri zonbeit urhatsetan ziren orai, eta Piarres orhoitu zen, intha hartan berean, Goaña nola doi-doia eskapatu zen, goiz batez, Gorriaren adar xorrotxen tartetik...

—Agur, Goaña,

—Ori!... Agur, Piarres! Eta, zuen xakurraren sainga bard-arratsean entzunik, zerbeithek erraiten ere zautan zorion bazutela Oihanaldean...

—Zerbeithek? Ba othe, Goaña? Bainan, nere ethortzeaz bertzerik bazitekela asma zindezakeen...

—Ez, Piarres ez! Xuxen ari nintzen, hor zarenaz geroz!

—Ba, hemen naiz, eta, beharbada, zuri eta zuk etxetik urruntzean eman medaila bati esker, bethi nerekin baiteramatz geroztik.

—Baditeke orobat, Piarres. Hala, hala, medailaz bertzerik ere bazinuen ondotik: Oihanaldekoen eta Lizartzakoen amodioa eta othoitzak... Bainan, goazen etxerat; loriatuko dira Lizartzan zure han ikusteaz. Aski maiz aiphatzen zaitugu gutartean eta beltzuririk gabe batere...

Eta, Eliezer eta Rebecca lehen bezala, Piarres eta Goaña bazoazin, Goaña

bethi bere pegarra buruan; eta Lizartzan sartzean, Piarresi gogorat heldu zitzaion, Jainkoak hala nahi balinbazuen, egun batez oraino, biak betan iraganen zirela Oihanaldeko athean, bainan, egun hartan pegarraren orde korona xuri bat bazukeela Goñak buruaren gainean...

Eta, Lizartzan arratsalde hartan egin zioten ongi-ethorriak gehiago oraino finkatu baizik ez zuen muthil gaztearen amets garbia...

Omia Sainduko ezkila-handiak, ozen-ozena, agintzaz betheak ari ziren herrian, Piarres etxerat itzultzearekin; eta, han, zeruan, iguzki-sartze bat bazen, ortz-adar ederrena baino ederragoa, Eskual Herrian bakarrik ikusten ohi diren bezalakoa.

* * *

Biharamunean, bortz orenetako elizarat jo zuen jaun erretorari kofesatzeko eta haren solas bihotz-altxagarrien hartzeko.

Aphez bakarra izanez herrian, bazuen lan erretorak. Bainan, bizpahirur egun hetan lan handiari lothurik, oro bururatu zituen; mundua han zen kominiatzen, lehenbiziko meza ederrean: zazpi-zortzi ehun gizon eta emazte hurbildu ziren mahain-saindurat. Eta, nigar goxoki egin zuen Piarresek, herri guzia kantuz eman zelarik, eliza zaharrean:

«Zeruko dohatsuak, zer ari zarete?
Atsegin erdian zaretea othe?...»

Oi mezaren ederra eta kominionearen goxoa, goiz hartan, herrian gelditu gehienen erdian!

Mezatik lekora, adixkide multzo batek hartu eta eremanik, Santiagotegirat trikatu zen Piarres, eta begitarte izan zuen ororenganik!...

Arratsaldean gero, hilen bezperak akabatzearekin, Senpere guzia bi lerrotan bazoan hil-herrietara, bethiko proesionea egin beharrez. Pettan, klamera, han zen jada, Ehaltzeko landa sainduan, eta karrika-hastean doi-doia sartua zen aldiz apheza, azken-azken lerroekin. Arrosarioak eskuan, bildutasun handiengan, bazoazin oro, konfardietako banderak eta hil-oihalak erdian:

«O Christe, Salvator mundi, exaudi preces nostras!»

Hil-herrietako kurutze handiaren inguruan bildu ziren guziak; eta hil-hobi heien ororen erdian, heien gainean kasik, gain hartarik beha zauden arima gaixoez mintzo zen jaun erretora, mintzo herriko etxe xurietan, edo han, su-tokian, erreka ilhonetan erori senpertarren arima girixtinoez. Eta nigar bazen begietan! Bainan, nigarren tartetik, zerua ikusten bezala zuten begi hek, eta zeru hartan bizirik ikusten ere zituzten hola aipatu ziren hilak...

Ixil-ixila orduan, joan ziren guziak, zoin beren familietako hil-harriaren gainean othoitz labur baten egitera. Eta lehenagoko gizon edo oraiko kurutze berri, harri hek ederrak ziren tenore hartan, lorez oro estaliak, eta soineko beltzetan eman haurride hetaz hala inguratuak!

Eta, orai, kurutze zilarrezkoaren gibeletik, lerroan bazoazin elizarat Ama-Birjinaren litaniak errepikatuz:

«Consolatrix afflictorum, ora pro nobis!...»

Gaua heldu zen mendi handier beheara; eta handik oren erdia gabe, xortaka, xortaka, eta ilhun-ilhuna, hil-zeinuak hedatu zituen Piarrex zaharrak herri guziaren gainera. Eta senpertarrak oro bildu ziren beren etxetara, bihurgune batean, arima herratu zonbeit, uste gabetarik atxeman beldurrez... Ilhun-zeinuetarik harat, gogo arimen gaua zen Eskual-Herrian, alimaleak eta oro heia guzietan mintzaten diren gau mixteriozkoa...

* * *

Goiz-aire jeiki zen Piarres biharamunean. Heian itzuli bat egin zuen, eta lehenagoko Piarres aurkitu zen berehala, etxetik sekulan urrundu ez balitz bezala, behi bati fereka bat eman, bertze bati taflako bat lepho gainean. Alimale xahar guziek laster ezagutu zuten, begi handi maite batzu harengana itzultzen zituztela, buztana harat hunat zerabilkatela. Muu eta muu ari zitzaizkon, etxetikan urrun, hainbertze luzaz zertako egon zen galdegin nahi baliote bezala.

«Ba, ba, gaizoak, hemen nauk, hemen, zuen bethiko Piarres...»

Eta Gorria, bertzeak ere baino gehiago ferekatu zuen, beharbada lehenagoko intha hertsian gerthatuaz orhoiturik berriz oraino.

Hainbertzenarekin, athorra-mahunketan sartu zen Thomas, oihuka eta alegeraki ziolarik:

—Lau egun... ephe labur dituk, Piarres, lanari hi egun lotzeko. Gaineko landara bagoatzik Ganix eta biak.

Lizartzakoez bertzerik baduk auzoan; itzuli bat egin baheza beraz hor gaindi?... Auzotegiaz maiz behartzen gaituk orai kasko hautan.

—Hala hala da, aita. Banoa, Ibarburuan harat, Olhasoko etxe hoietarat. Sarri arte.

Eta joan zen Piarres...

Arratsaldean, bi orenak irian, keetan hunarat heldu ikusi zuten jaun erretora. Makila bat eskuan, Xurikori kitzikan ari zitzaion; eta xakurrak, adixkide bat sumaturik, mehatxu baino maina gehiago egiten zion aphezari:

«Xuriko! Hean hortik!»

Eta oro xutitu ziren sukaldean, Thomas bazoala bide-erdi, athetik harat, jaun erretoraren aintzinerara:

—Jainkoak dautzuela arratsalde on, Thomas, Gaxuxa; zueri ere haurrak!

—Bai eta zuri ere, jaun erretora!... Sar zaite, sar; etxe-arno xorta bat orok edan behar dugu, Piarresen osasunari eta haren behin-bethikotz etxerat itzultzeari.

—Orobat, Thomas, nahiz ez dudan egarri handirik bildu bide hortan.

Sartu zen beraz erretora eta jarri ganbara batetarik Gaxuxak ekarri kadera ederrean. Eta, solas eta solas arizan ziren gizonak, ixilik zaudela Ganix, Gaxuxa eta Marie, ixilik ere Gantxume, Frantxa eta Xaneta, eskolarat behar zutela orori ahantzarazi nahiz. Luzaz aiphatu zituzten hango erreka-ziloak, alemanak, eskualdun soldadoak, omonier aphezak. Nigar bat jin zitzaioten guzieren, Paul eta Philipe gaixoez mintzatzearekin.

Oren bat oso osoa iragan zen holaxet, eta gero, xutitu zen apheza:

«Thomas, ez dut ahantzi behar zertarat ethorria naizen gaur Oihanalderat; Piarresen ikusteaz bertzerik behar dut egin; goazin orai kataminetarat.»

Eta Thomas, Piarres, bazoazin erretorarekin behereko arbi-landa handiari buruz. Erramu-aldaxka bat esku batean, ur-benedikatuz betherikako untzi bat bertzean, heien ondok heldu zen Marie.

Landaren erdirat heldu izan zirelarik, gelditu zen jaun erretora. Supeliza xuri labur baten gainetik eman zuen estola urdina, eta hasi zen bazterren benedikatzen:

«... Preces nostras... exaudi, ut qui juste pro peccatis nostris affligimur, et hanc vermium persecutionem patimur... liberemur... Tua potentia nobis peccatoribus concede... quatenus hos pestiferos vermes per nos... maledicendo maledicas, segregando segreges, exterminando extermines...»

—Jaun erretora, jaun erretora, badoazi; behazu hunat...

Oihuka hola, Marie ari zen... Har beltz itsusi batzu, arrantzariak amuaren buruan erabiltzen dituzten harrak baino handiagoko har beltz itsusi batzu, ehunka eta ehunka, punpilka bazoazin, iduri hosto-pean, lurean suntsitzen zirela guziak...

Xutik, buru-has, Thomasek, Piarresek ez zuten hitz bat athera; eta, jaun erretora, doi-doiako bat begiak bazterturik, aintzina ari zen, Trinitate Sainduaren izenean airea benedikatu:

«Exorcizo vos pestiferos vermes, ut confestim recedatis a campis, sed ad ea loca transeatis in quibus nemini nocere possitis,... ut, quocumque ieritis, sitis maledicti, deficientes de die in diem in vos ipsos et decrescentes; quatenus

reliquiae de vobis nullo in loco inveniuntur, nisi necessariae ad salutem et usum humanum.»

Ur benedikatua arthiki zuen gero alderdi guzietarat, untzian gelditua zen ondarra ere ixuri lurrera, eta bere estola-supelizak liburuarekin bildurik, erran zioten hirueri:

«Iduri luke Jainko maiteak behatu diola gure fedeari; ezen, huna azken kataminak badoazila bertzeak joan diren toki madarikatuatarat... Agian alderat, bethikotz! Ordu ere zen zuen arbi gaixoarentzat, dena zilo eta firu baizik ez baitzen gehiago...

Nik egin dudana, Thomas, ez da sakramendua, baina bai sakramentaletarik bat; indar handikoa hatik, fede hazkarrarekin baliatzen duenarentzat. Borthitza ere da othoitz hori eta Jaun Aphezpikuaren baimenarekin baizik egin ez dezakegun othoitz. Baina superztizione bat litake, othoitz hori egin eta, bethi-bethi harrak suntsitzen direla uste izaitea. Maiz hola gerthatzen dela, ba, nahi dut; baina ez bethi. Nolakoa den gure fedea, nolakoa bereziki Jainkoaren nahi saildua. Guri da galdegitea, Jainkoari aldiz gure entzutea, gaur egiten gaituen bezala...

Oxala alemanak hola ihesari eman balite, han, zuen pezoen izigarrien aintzinean!

... Izan ongi, Thomas. Emazu esku, Piarres; zaude bethi bihotzdun! Lagunduren zaitugu hemendik; eta orhoit zaite, gauaz eta egunaz, Jainkoari zuetaz norbeit mintzatuko zaiola bethi Senperen.»

Eta, zalu-zalua urrunduz erretora, landaren kaskoan hari beha oraino zagozila bi gizonak...

* * *

Laugarren eguna jada! Zoin laster doazin orenak, hemen, herrian! Luzeago joaiten zaizkote han, erreka madarikatueta! Bihar goizean urrunduz behar! Bihar goizean utzi behar Olhaso-kaskotik ikusten dituen bazter maiteak! Zoin eder bazter hoik oro! Zinezko San Martinetako uda lilluragarria!... Eta, handik ezin mugituz, deneri beha dago, begiek ikus-ahala urrun.

Bizkitartean, jautsi behar du eta jausten da: bere senpertar hango lagunentxeakoak eta haurrideak ikusi nahi ditu orai. Eta zalukara badoa, inthaz-intha, landaz-landa, jende gaixoen etxeetan bihotza phizten diotela orori, berak duen baino ere kar gehiago bertzeeri emanez. Baina, berriz oraino erraiteko, holako gezurrak ez othe ditu Jainkoak errexi barkatzen?...

Ilhuna baino oren bat lehenago, etxean da berriz ere. Bertzeak oro landan izaki, lanean ari bakarrik atxemaiten du Gaxuxa. Ez du aithortuko, baina, loria bat zaio Piarresi, buruz-buru, hantxet, amarekin egonen baita oren oso bat. Oi, oren goxoa, mila zerez ama semeak mintzo direla, biharamunean urrunduko dela semea batek bertzeari ahantzarazi nahi liokela!... Haur jostetak egiazki, baina zoinen hunkigarriak!...

Gero, berant arte arras, bihotzak tinko-tinkoa guziek, solas eta solas egon ziren gau hartan, Oihanaldeko sukaldean. Noizpeit joan ziren oherat, ... eta, biharamunean, lo-kuma bat doi-doia eginik, goizik biziki jeikiak ziren oro.

Nigarrak ez zabiltzan urrun; baina batek bertzeari heien gordetzeko indarririk aski izan zuten guziek: urrunduz behar zen; ez ziteken bertzela. Ilhunduraz bazen bihotzetan, baina ez lehenbiziko urruntze ustegabeko hartan bezenbat kirestasun...

Oro besarkaturik, berri-berria kasik amak ongi xuritu soinekoetan, bere etxe maiteari azken behatze baten egiterat menturatu ere gabe, kurutzearen seinalea eginik, haia-haia inthari beheiti, urrunduz zen Piarres. Eta bigarren aldikotz, hustu bezala zen Oihanaldea... Piarresekin, haren segi, Ganix bazoan aldi huntan, eta Donianeraino.

Hitzartu bezala, Zaldubian hartu zuten Jérôme gaizoa; eta urhats on batean, elhe arras guti zerabilkatela beren artean, bazoazin Ibarronen harat...

Bi oren gabe, manua zuten bezala bere paperak garan zigilaturik, Ganixi azken musu bat emanik Oihanaldekoendako, azken agur bat Lizartzakoendako, trein luzean sartu zen Piarres. Eta orai, bazoan Baionarat buruz, bihotza dena Senpereko eta Olhaso kaskoko gauza eta jende maiteez mukurru bethea... Jérôme bera, hain jostakina eta maitea zelarik bizkitartean, ixil-ixila zagon bere bagon xokoan...

Zorionez, Joanez Garaztarra heien beha zagon Baionan!...

X VERDUNEN

«Verdun ez aiphatzean, xut-xuta emaiten zaizkit ileak!
Ama gaixoa, ikus bahintza Verduneko hire haurrak!»
J.B.

Negua iragan zen berriz oraino, eta frango deskantsuan, etsaia matatuxea zelakotz aurkintza hetan.

Bainan, uda-berriari zonbeit egun lehenago, berri handi bat hegaldatu zen Suizatik eta Belgikarat zozan erreka luzean: Otsailaren 21ean, alemana burrustaka atheratu da, Verdun hiria hartu beharrez, Verdun hiri hartan Guillaume Enperadorea hiru egun gabe sartu beharrez. Hiru egunen barnean hola bururatu behar zen gudua, eta hiru hogoi eta hamarreko gerla guziak bezenbat iraun behar zuen gudua... hasia zen!

Verdun! Izen ikaragarria egiazki eta bethi aiphatuko dena, ehun mila gizon hantxet erori behar baitziren, leze gorri handi batean bezala! Parise harturik bezenbat indar eta balentria bazukeen etsaiak, Verdun bereturik, Frantziaren atheak han izan balire bezala Verdunen, eta Frantziako banderak oro... Eta Frantziak ez zuen nahi etsaiak Verdun har zezan, ez zuen nahi Pétain jeneralak, eta... ez du hartu sekulan:

«Jeneral nausiak erran zuen: "On ne passe pas. Halte-là"
Eta manu izigarri hori atxiki zen hala hala...

Trebek emanak, hantxet zinezten frantsesez mila'ta mila.»

J.B.Eta, lerro-lerro, gure erreximenduak bazoazin harat, bat bertzearen ondotik Verdunen urtzerat. Bainan urtzen den burdinak ziloa tapatzen duen bezala, alemanak egin ziloak oro tapatzen zituzten hek, erortzean. «Xuti hadi, eta harriturik, behazak, beha, Frantzia!»

* * *

Aphirilaren 21ean, Piarresen erreximendua, berrogoi eta bederatzigarrena, Craonneko aurkintzak utzirik, bazoan, bere aldian, labe gorri eta odolstatuari buruz.

Condé-en-Barrois deithu tokirat oinez heldua zen, maiatzaren 6an. Eta, hamabortz egunez gero, moldatzen aritu zen Enperadorearen Konprintz-eme errabiatuaren furfuriari behar bezala buru egiteko.

Hogoiean, hupatu ziren beribiletara, eta Dugnyn jautsirik, bazoazin orai Verdunerat, 21ean eta 22ean han, hirian oraino egoiteko. Harat hurbiltzean, hurbilago eta gehiago, soldadoen harritzea! Milaka eta milaka ihurzuriak karraskan ari balire bezala, oi hango haro-arramantz ikaragarria!... Ikusiak ikusirik, zer behar zuten oraino gainera?

Joanes, Piarres eta bertzeak, elgarri hitz bat erran gabe, elgarri behatzen

ere ez zutela, pala, haintzur, grenada eta xixpaz kargaturik, buruak apha
bazoazin. Zer iragaiten othe zen han? Zer eginak zitezken hango lagunak? Ez othe
burdinaz ihaurriak eta ehortziak?...

* * *

Maiatzaren 21a eta 22a Verdunen berean iraganik, arratseko bederatzi orenetan,
batallona batallonaren ondotik, Baionako soldadoak hupatzen dire beraz, kalbario
izigarria beren aldian hasten dutela hek ere. Souville, Fleury, Douaumont, Boneff,
les Carrières, les Essarts, Vaux-Chapitre, le ravin du Bazil, de La Caillette, le
boyau de Haus, la tranchée Charlier, Budapest, le boyau de la Fontaine, la route
d'Etain, le bois des Caures!... Zer izenak! Zer burrunbak, zer ihurzuriak izen
lazgarri horietan!!! Fleury-tik eta l'Etang de Vaux deithu ainziraraino, maiatzaren
hogoi eta bederatziraino, gure soldadoek han pairatuko dituztenak!

Piarresen batallunaren erdia suntsitua zen, Douaumoneko errekarat,
manatua zitzaion bezala, heldu ere gabe. Andarka bazoazin, mila pusken garreiuhan
han zabiltzan guzien tartetik. Gau bat ilhuna, suzko erauntsiak bakarrik argitzen
zuela noiznahi. Kheak, bolbora usainak, asphyxiants deithu obuza pozoinatuek
ithoak, erreak, janak, bazoazin bethi, norat joan, non geldi ere ez zakitela
maizenik, bidatzailerik nehor ez zitekela kotz han kausi. Erreka guziak hilez eta
kolpatuez betheak, kankarrikatuak. Etsaia tira eta tira, karraskan ari bethi; eta
nolazpeit, han, obuza-ziloetan, kurumilkatu behar, aztaparka lurrari lothuak oro.

Elgarri kontra sorkan emanak, izigarriak ziren beren maska itsusiekin; salbu
zuek eta, alimale batzuen iduriko eginak. Argi hastean, gerruntzeraino ageri
zirelarik bizkitartean, aintzina joan behar beren onetan, etsaien mitralleuzek
xehakatzen zituztela. Boyaux-bide gehienak lehertuak izanez alde orotarar, Joanes
gaizoak ez zakien gehiago bere gorputz alimalea nun pitta bat gerizan eman...

En avant! Eta, aintzindariak lehen, badoazi bethi, leher eginik azkenean,
han, zilo handietan biziak erori arte, hilak edo hil-urrenak bidean erainik eta
utzirik.

Errabian eta marro thematsu bat iduri zuela, etsaia heldu zitzaioten orduan
berean. Bainan debalde heldu. Gehiago urhats bat ez ginezaken guk egin; bainan
ez futxo harek ere! Halte-là... Lehen lerroa erhausten ginion gure mitralleuzekin;
eta, hilen gainetik heldu zen berehala bigarren lerroa. Bainan, hil edo bizi berriz
elgarretaturik, bigarren lerro hau ere laster hedatzen ginuen lehenbizikoaren
gainera: eta, lasterka, ihes bazoazin gero eskapatuetarik zonbeitño. Luze-luzea
lurrean emaiten ziren aldiz bertze batzu, alegia eta hilak... On ne passe pas! Eta
ez ziren iragaiten.

Bainan, zeren gostuz! Gerlaren berri bazakiten ordu arte ere gure soldadoek!
Eta bizkitartean, Verduneko berri ez zakienak, deusik ez zakien. Metan emanak
bezala, han zituzten, sorbalden gainean, buruaren gainean, oinhaze, miseria,
gabezia, izialdura, kordoka guziak. Ziloetarar hupatze horrek zango-bulharrak
hausten ziozkaten; eta gero, gauaz, egunaz, lanean ari behar, geriza zerbeit
izaitekotz, eta bethi tarrapataka, etsaiaren su izigarriaren azpian! Jatekoak,
gerlako puskak bilhatu behar, biderik gehiago ez zen tokietan barna! Zilo txar
batzu, egin orduko bethi deseginak! Gosea, egarria bereziki, ezin-jasanezkoak!
Dohatsu, bi egunetarik, ebaska bezala, ahamen zerbeit emaiten zutelarik hortzen
artean, edo ur xorta bat, ur zikin bat biltzen zutelarik, dena lohi zen obuza-zilo
batean. Zeru bat, Kalbarioko zerua bezen ilhuna! Lohia, basa! Basa bat
higuigarria, belhaunetarainokoa, bulharretarainokoa, lagun bat edo bertze
frangotan iresten zuen basa higuina!

Eta, beren aintzinean, zer eta nolako bixta! Zangoak baino gehiago begiak
ez jakin non finka! Bazterrak oro higuigarri eginak, usain izigarri bat heldu zela
alde orotarik! Jainkoak hain eder egin toki hek oro, dena zauri, haragi-bizian
bezala irauliak, xirxirikatatuak! Pezoin, jende, gauza eta harma-puskak orotarar
hedatuak! Soldado hilak, alimale hilak non-nahi! Zilo handietan, untzi batean uliak

bezala, mando eta zaldi hilak ur zikin batean igeri! Deus bizirik ez han gehiago, Azken Judizioko mendi-erroiza iduri zuen toki hartan guzian: ez lore bat, ez arbola ihartu bat, ez eta xori bat aldaxka horitu baten kaskoan!

Herioaren Erresuma da han; herioa berez-bere dabila han gaindi, xixtuka, burrunbaka, karrasiaka. Atzo hek, egun hauk, bihar nor othe? Kanoiak, torpillak, ehunka, milaka, erhotuak bezala, oro erhausten dituztela, lurra, pezoinak, harriak, bulharrak! Batallonak zaurituak, zilokatuak urtzen bezala, bata bertzearen ondotik! Soldado hazkarrenek deusik ezin egin tresna berri izigarriek urrundik igortzen dioten heriotzearen kontra!

Eta, han ere kanoi-pezek zafratuak direlakotz, gibeletik deus laguntzarik ez heldu, ez ethortzen ahal ere... Mundua? Ba othe da gehiago mundurik ere gibelean? Ez da gehiago, ez letrarik, ez depexarik, ez telefonik: pazote edo hari, hoik oro xirxikatuak dire aspaldi. Eta odolez gorri-beltzatu bide-xendra ttiki hortan zenbat soldado ez da erori, paper bat eskuan, manu bat ekarri beharrez, hil edo bizi petarrari beheiti aintzina heldu zirelarik!

Eta, obuza-ziloetan ehortziak, Piarres eta haren lagunak, mokor bat bertze mokor baten ondotik bere bulharrekin begiratu behar duten frantses lurrarekin bat eginak, han daude! Harrituak, hitz bat gabe eginak, bainan han egoki!!!

Beren aldean, eskuinean, ezkerrean, zer ari diren, nola eta norat doan gudua, hoi ez dakite. Tokiaren gainean hiltzen baizik ez dakite. Sahetseko lagunak, erortzean, odolez estaltzen ditu. Alemanen minak bi egun hartan zilatzten entzuten dituzte, han ondo-ondoan; eta ez dire beren tokitik mogitzen, bihotza saltoka ari zaiotela. Gureak ere, panpa-panpa, kontra-minaren egiten ari dira; oro zoin zaluago, zoin gehiagoka. Nor lehenik helduko den bertzearengana... hortan da guzia. Eta maiatzaren 24ean, etsaia, bere mina madarikatua lehenik jauzarazirik, aintzindu zaiotelarik, grenadak eskuan besagainka etsai horri ari dire, alimaleko zilo berriaren hegi-hegirat, ahal duten bezala, herrestan iganik! Jérôme, beren lagun maitea eskas dute oraikoan, minak pusketan ehortzirik, han, beren aldean, hogoi kintal lurren azpian! Eta ez dute ohartzeko astirik ere, ez eta nigar baten egiteko: etsaiak gainean dituzte jada, eta etsai hori ez dute utzi behar iragaitera.

Jérômekin, bertze asko galdu dira pezoin handiaren xehakatze ikaragarrian. Hola ehortzi direnetarik askoren besoak, zangoak, kanpoan hortxet daude, nahas-mahas hedatuak edo bardin pezoin berrian odoletan landatuak. Mila pusketaria bada non-nahi. Non-nahi erainak, huna letrak, etxetik ethorri letra maiteak, soldadoen bihotzak hainbertze aldiz sustatu dituzten letrak... Eta orai, hil-herrietan loreak bezala, huna non diren soldado heien beren gainean hedatuak. Huna ere letra horiekin, fotografiak ahurtaraka, kanoi-peza handien haizeak alde orotar at deramazkala.

Beren adixkideen gorphutzak zangopetan ostikatzen dituzte, eta horri ere ez dira ohartzen Piarres eta bertzeak; deuseri ez dira ohartzen... Zeri nahi duzue hek ohartzea gehiago?

Compagnie du silence erraiten baitiote, huna, ilhunbean, brankardierak, eri, kolpatu eta hil-altxatzaileak. Ixil-ixila, egiten dute... ahal dutena, berriz oraino ethortzekotan, etsaiak batere uzten baditu berriz hurbiltzera.

Han oraino bizi direnek ez diote heieri ere biziki behatzen. Xixpak eskuan, grenadak ahurraren menean, etzanak horra non dauden, jauzi batean berehala xutitzeko, alemana aintzinerat heldu bazaiote. Aleman hori han geldiaraz, edo bera han geldi sekulakotz, horra hango soldadoaren gogo bakarra...

Zer zaiote, gibelean, phestaz-phesta, dantzaz-dantza bizi direneri? Goiz guzietan, beren gosaria bero-beroa irestean, erhi-puntez doi-doia daukaten kazeta irakurtzean, marmarmar hasiko dire, zer ari othe diren soldadoak, bethi han, Verduneko kasko hetan?...

Zer ari soldadoak?... Hitz bat gabe hiltzen, hiltzen kasik oro, lerro-lerro, bat bertzearen ondotik... Eta gibelerat jautsiko diren bakar hek, goiz batez jakinen dutelarik handik jaustea dutela, zozotuak osoki, ezin sinhetsia dukete bizirik hek ditezkelara oraino eta ifernu hartarik atheraiak!...

...«Ikaran eman hadi, Frantzia; ez dukek hor urguilurik...

Munduak sekulan ez dik izan hoin handiko soldadorik!»

J.B.

* * *

Beren puxketeriak, amets batean bezala bildurik, arima herratuak iduri, gibelerat jaustera zoazin beraz Baionako soldadoak. Ezin aski laster urruntzea zuten hala thematuz begiratu zuten toki ikaragarri hartarik...

Eta, bizkitartean, orduan ikusi zen gauza bat, zinez espantagarria! Soldado bat, soldado bakar bat, xut-xuta agertu zen betbetan pezoinaren gainean. Eta, grenada bat ahurrean, hantxet zagon, xutik, lur irauliari josia, zango bat aintzin, begiez iresten zituela alemanen erreka-zilo madarikatuak...

Nor zen hura eta nongo erhoa, hola burua betbetan galdu zuena?... Gizon hura... eskualdun soldado bat zen; bere herriko plazan, pilota bat eskuan lehenago egoiten zen bezala, grenada bat eskuan orai han zagona, pezoinaren gainean, etsaiari buruz dixiduan!

Berenaz gaitza zen jada gizona. Bainan, lur uzkaile heien guzien erdian, zen baino ere biziki handiago emaiten zuen tenore hartan.

Ziu, ziu, liztorrak jada hasiak zitzaizkon, xixtuka alderdi guzietarik; bere adixkideak aldiz, oihuka gibeletik. Konturik ez zioten egin, tuntik, ez batzueri, ez bertzeeri. Luzaz behatu zioten etsaien eremueri. Ukamilo ezkerra gehiago oraino bildurik eta bihurturik, bi plegu egin zuen eskuineko besoa; eta besa-gainka, artik-ahala urrun igorri zuen ahurrean zaukan grenada beltz ttikia. Eta gero, burua xut, burua gora, begiak sutan, bi ukamiloak bildu zituen mehatxu batean, eta oihu bat arthiki zuen zinez izigarria!... Irrintzina! Eskualdunen irrintzina, han, Verdunen, etsaieri bi urhatsetan! Irrintzina bat borthitza, dardarika batekin botiaia, Altabizkarreko irrintzina hetaz gerotik bertze bat ez baita beharbada munduan holakorik aditu!... Orriako mendietan lehenago bezala, Douaumoneko erreka gorri-beltzatuan, eskualdunen irrintzina ari zen, nausi ginela, gaina ginuela dardaran errepikatuz!...

Hitz bat gabe, bihotza jauzika, aleman eta frantses, oro hantxet zauden harrituak...

Anhartean, bere bethiko urhats hartan, eta deus espantagarririk egin ez balu bezen deskantsuan, Joanes Garaztarra eman zen Piarresen aldean. Bere puskak sorbalda gainerat errain-kolpe bakar batean bildu zituen, eta... Verdungo alderat egin zuen, bertzeek bezala...

Piarresen behatu zion, bainan fritsik ez erran. Liotinantak, hurbildurik, begietarat behatu zion harek ere, eta gero erran goratik:

«C'est fou, ce que vous avez fait là; mais c'est beau!... Aldacourrou, vous êtes un brave, et le colonel saura cela»...

Burrunka eta alde orotarik, aintzina ari zen Verdungo gudu handia. Bainan, etsaia jada durduzatzen hasia zen.

Jina zen bere tresna lazgarri guziekin, bere armada izigarriarekin, Verduneko inguruan trionfaren begira zagon Enperadorearekin. Enperadore horren seme zaharrena bera ororen manatzaile... Lehen oldarraren ondotik leher eginik gelditua, thematu zen, errabiatu zen. Gero, ez zuela gaina izanen... beldurra sartu zitzaion. Oh! ez berehala! Luzaz oraino, fur-furia gorrian ethorri zitzaunkun gainera. Bainan, harririk ez burdinazko gaterik ez balinbazen gehiago, kalernari ihardok zezokenik, gure soldadoen bulharrak han ziren ordean, harri guziak baino miletan hazkarrago. Eta, harrizko bulhar horieri kontra lehertu behar ziren etsaiak, itsasoa harri-kotor handieri kontra lehertzen ohi den bezala.

Joanes Garaztarra bezalako soldadoak ikus eta, orduan, beldurtzen hasi ziren. Ordutik, azpiratuak ziren. Luzaz oraino zalapartaka behar ziren ari; bainan alferretan!

Pétainek errana zuen: «On les aura!» Eta... on les a eus, mon général!

XI PAUSAN

Herioaren Erresuma higuina Verdunen utzirik, jautsi ziren beraz, beharriak hango karraska guziez, begiak hango izigarrikeriez betheak. Oh! ihurzuri hek, lur-uzkaili madarikatu hek! Bereziki, hil-herrietako kurutze beltz hek oro, alderdi guzietarik heldu zirela, bi besoak zabal! Heien oinetan ehortziak oro, phiztu eta, heldu othe ziren bada, bi besoak aintzin, Joanesen, Piarresen eta bertzeen hartzerat, besoen artean tinkatzerat eta, garhaiturik, berekin harturik, berekin eremaiterat? Izerditan, noiznahi, amets itsusi batzuetarik atzartzen ziren.

Bai, pidaia luze baten ondotik, pidaia hartako harramantzak buru-fuñetan sartuak gelditzen zauzkun bezala, Verdungo zer guziak han zituzten bihotz begi eta beharrietan landatuak. Eta zinez, pidaia luze bat eginak zirela zonbeit egun hetan! Hain luzea, non, berriz gibelerat itzuli gabe, hantxet oro gelditzer baitziren!...

* * *

Eriaroaren hogoita batetik eta aboztuaren hogoita zazpiraino, Grurieko oihanean, Argonan, kokatuak egon ziren gero; eta hamabost egun oraino, Perthetik ezker, Champañan. Grenada ukaldika noiznahi kataskan artzea zuten, eta Joanes Garaztarrak berak zaukan; Lekumerriko plazan puskaz hobe zitekela...

Zorionez, Camp de Mailly deithu xokoan, ikasi zuten... berriz bizitzen, erdi hilak bethi egoiteko orde; eta goxo zitzaioten, gerlako harramantza guzietarik urrun, bizi baitziren oraino. Bi hilabete osoz, 1916-ko hazilaren ondarreraino, Dosnon eta Granvillen egon ziren pausan, gerlako molde berri batzuen ikasten. Tapa taparen gainean, marxa luze batzu ere eginarazten ziozkaten, erhotzen baitzen Garaztarra: «Berriz ere behartuko ziaik, Jinkoak luzexko in bainindien! Bestenaz, undarra higatua nindukek, eta aspaldi!»... Bainan, zer ziren horiek oro, Verdunen pairatuen aldean?...

* * *

Herritik jin letra batek ekarri zioten orduan berri bat, orori bihotza ilhundu baitzioten egiazki. Senpereko bikarioetarik bat, Berruet gaixoa, hantxet gelditua zen, buruilaren 4ean, Tavaneko tunelian. Su-ziliporta zerbeit bolbora-meta batzueri lothurik, hamabost-bat ehun lagunekin, xirxikatu zen bikario erne maitea. Eta nigar egin zuten Piarresek eta haren lagunek, orok herrian hain gora ezartzen zuten aphez gazteaz orhoitu eta. Aphezik ez zela su-tokietan!... «Laboraririk eta aphezik baizik ez duk eta han gaindi!», Joanesek oihuka zion bezala...

Toki hetan beretan, jakin zuten, 249garren Erreximenduko heien lagunek zenbat pairatu zuten, hek ere, Verdunen, maiatzaren zazpitik eta hemeretziraino; sei-zazpi ehun gizon... hil eta kolpatu baitzitzaizkoten hantxet. Ibarnegarai deputatu eskualduna bera ederretarik atheraia zen! Zaldiz bere soldadoekin zoalarik, aleman obuz bat lehertu zitzaion, zaldiaren azparretan beretan, alimale gaixoa pusketan erori baitzen hantxet, begien hesteko artean! Jauzian xutik eman zen deputatu biphila, oihuka ziolarik: «Errak, to, Gantxume! Errain die gero Jainkoik ez dela!».

Bai bazen Jainko bat, gal-bidetik hainitz gizonen atheratzeko, edo beren Herriarentzat erori zirenen gain hartan saristatzeko.

Eta Jainko horren othoizten ari, miliunka baziren arimak; ez gutienik Senperen. Gerlako xirioa bethi ari zen erretzen, han, aldare nausiaren aintzinean.

Gudian ziren senpertarrek bazakiten, herriko lau ehun familia bazirela, gerlaren hastean bezen jarraikiak bethi zaudenak Adorazione Handiari. Haurrak, andanaka bazoazin hek ere elizara, mahain-saindura, beren anaia zaharrentzat, bardin beren aita gaixoentzat othoitzetan garbienaren egitera. Eta, Bihotz Sakratu berri ederraren aintzinean, Lurdeko Ama Birjinaren, Jon Doni Mikael eta Joanna Sainduaren oinetan, xirio, lore eta othoitz, bazen bethi orotarik, athertu ere gabe sekulan:

«Behazu, Jauna, zure haurreri: hor daude belhaunkatuak...
Ez ahal ditutzu ezarriko oro aitaz-gabetuak!
Gu, hemen, hobendunak bagira, garbi dira gure haurrak;
Horien bihotza ikus eta, ez igor zure zigorrak!»
J.B.

Urrian, Arrosarioaren hilabetehean, Baionako Aphezpikuak hola galdeturik, hilabete guzian, gau guzietan, lau edo bost herrietako gizonak behar ziren egon Sakramendu Sainduaren aintzinean, gau-beilan. Senpereko eliza zaharrean berrehunez goiti gizon bildu zen: zaharregiz edo bertzela, gerlarat joan ez ziren gizonak oro. Phesiaka uria ari zuen kanpoan, eta, banpa, banpa, gau ilhunean, heldu ziren aintzina, zoko guzietarik. Eta bi oren luzez, 40, 50 aldian, laborariak hantxet zauden, mahain sainduari hurbil, xutik, osti xuri handiaren aintzinean. Heien ondotik gero, bertze aralde bat, eta bertze bat oraino; holaxet argi-ekziletaraino. Eta —eskualdunentzat handi baita beharbada— beren erretora lehen, eskuak kurutzean emaiten ziren noizetik noizera, Iguzki Saindutik heieri beha zagon Jesusi hasperapen batean kantuz ari zirela: Parce Domine, parce populo tuo; ne in aeternum irascaris nobis!... Nork erran, gau-beilatze hunkigarri hetan zenbat soldado begiratu den, odoletan bertzenaz erori behar baitziren, han, gerla-tokietan?

Gainerako berriak bardin onak heldu zitzaizkoten beren etxeetarik. Herrian, orok elgar laguntzen zuten hazkarki. Auzotik auzora eta bardin urrunera, esku-ukaldi asko emaiten zen bethi, eta Senperen kokatu baztandar eta bertzeak ederkixko baliatzen ziren tenore hartan. Emaztekiak ez ziren den mendrenik herabe gizon-laneri karraskan lotzeko, eta arras lur guti utzi zen larre joaitera. Goiti heldu ziren muthiko kozkorrek, eta hek bakarrik, beren buruez mintzarazten zuten guti aski. Lanean ari ziren egia da, eta gizon batzu bezala. Bainan, herriko gazte handiak han harat urrundurik, iduri zitzaioten, gizonak... hek zirela. Gizonarena egin nahi zuten karrikan, merkatuan, ostatuan. Denen irri-egingarri, oilar hetika batzu baizik ez ziren, aski lodi egiten ahal ez zituzten beren boz larrutuekin. Eta, hala-hala, ez zioten nehork biziki behatzen herrian. Bertze grinarik bazen bazterretan!...

* * *

Bizkitartean, gure soldadoek pausa-aldi bat ona bazuten harturik Dosnonen eta Granvillen. Errevua errevuaren gainean iragaiten zuten. Egun batez, nor harritu eta Piarres eta Joanes harritu, jakin zutelarik, bertze bostpasei lagunekin, gerlako kurutzea izanen zutela batallon guziaren aintzinean, lehenago Craonnen eta orai Verdunen egin zituzten balentria guziengatik! Eta, hala-hala, goiz batez, pinpirinan emanak, bizarrak eta guziak eginik, hantxet zauden ikaran, beren lagunak aintzinean, erreximenduko banderaren aldean. Musika errepikan ari zen heientzat. Eta gero, baioneta karraska bat, oiuhu bat: «Au drapeau!» Handizki goretsi zituen Gomenantak. Bulhar-gainean ezarri ziozkaten izarrarekilako kurutze pullit batzu eta besarkatu zituen.

Gero, manu ozen bat orori: «Pour défiler!...» Eta orai, urhats berean, batallon guzia aintzinean iragaiten ari zitzaioten Piarresi, Joanesi, heien laguneri, baionetek dir-dir egiten zutela eta musikak karraskan emaiten ziotela Baionako beren bethiko aire pullita: Sambre et Meuse... Zuri-zuria eginak, mathela koskoak

doi-doia pitta bat gorrituak, pazote batzu bezala zauden Piarres eta Joanes, gure bi adixkideak. Oren ederrik ere badela hatik lur huntan, gudurik itsusienean berean!...

Eta orai, akabo zen...

—Ah, Piarres, Piarres, hire Craonneko arboleñoa! Hire arbole hartako bi xoriak!... Ordu zian, to, orhoitu baitira gure aintzindaritto horiek!

—Ba eta hire Verduneko irrintzina hura! Ez diaudek bertze holako bat entzunik!...

—Ez entzunik! Han ez, agian gehiago! Bainan, beste edozoin tokitan, nahiko dutelaik eta nahi duten bezanbat... Horiek guziak hola, guk lau egun gehiago izain lehenbiziko permisionian, eta hamar hamabi egun goxo hantxet iragain gure herrian, amattoren onduan! Emak eskia, Piarres!

* * *

Eta, hala-hala, beren erreximendua Somme departamenduko lohieri buruz, tapaz tapa, herrestan bazoalarik, gure bi adixkideak Eskual-Herrirat buruz hegaldatu ziren, dotzena bat egun luzeendako. Eta, Eguerri arratsean, Lizartzan itzuli bat eginik, Piarres... gaztena jaten ari zen Oihanaldeko sukalde handian. Erreka-Luzetik ekarri sukil alimale bat erdi-suntsitua zen jada su-burdinen artean; eta bazen hirri barne hartan guzian. Gerla zen bethi, bainan gogoak arinago egiten ari ziren halere; eta Jesus Haurraren aingeruak han gaindi ibilki sumatzen zituzten, bi urthe luzeen buruan ethorri behar zen Bakea, urrundik bada urrundik, mezutzen ziotela orori. Gantxume, Piarresen kurutzeari dilindan lothua bezala zagon, bere anaia handiaren zangoen artean egin-ahala luzatuz-luzatuz...

Eskual-Herrian bethi egiten ohi den bezala, hamek-orenetan gelditu ziren oro jatetik; orok kominiatu behar zuten alabainan. Eta, handik laster, Xuriko berberaren menturalat Oihanaldea utzirik, lasto-argiak eskuan, bazoazin oro elizarat.

Hamekak eta erdi beretan, hasi zen Eguerriko gau-beilatzea, jendea osteka heldu zela alde orotarik, gau eder ilhunean; haurrak, xoxotuak, harrituak ere tenore hartan aitarekin eta amarekin zeren hala heldu ziren, heien esku-muthurreri lothuak eta non-nahi eroriak, Oilo-kolokari sobera behaturik zeruan... Xoko-moko guziak oro estali ziren berehala eliza handian; eta aintzin hartan emana zen Betelemeko heia pullit bati beira, lehenagoko Artzainak iduri, mundu huntan egin ahala ari ziren kantuz, errepiketan.

Oi, Eguberri gaua — Atzar gaiten — Airerik ederrenetan — Gaur sortu da Jesus Haurra — Oi Bethleem — Beude bazter egun — Dugun alegantzietan — Gau-erditan aingeruek — Hots, Aingeruek, — Eguerriko kantika zahar guziak, Noelak, hegaldatu ziren zaflaka. Eliza xoragarria zen, dena lore, dena argi, dena jende bereziki. Crechan, Heian, Ama-Birjina, San Josep ahuspez emanak Jainko-Haurraren aintzinean, othoitzean ari ziren ixil-ixila. Haur hari beren bildotxak eskainiz, maniuretak eskuan, Artzainek... biziak iduri zuten; astoa, behia, hatsez hanpatuak, Jesus ttikiaren berotzen ari ziren; eta gooldi xehe batean xuri-xuria, lasterka heldu zitzaizkon bildotx muñuña batzu.

Gero, hamabi oren beretan, Meza, Gau-erdiko Meza, meza hura ikusi ez duenak gauza guti baitu ikusirik Senperen... Eskuarazko Ebanjelioa, xutik entzun zuten han ziren guziek, bihotzak ikaretan eta maitetasun handi batek harrotuak. Gau hartako mixterioaren gozoa! Bethi bardin berria, hemeretzi mende hautan urthe oroz bethi berritzen delarik bizkitartean!

Mila kominiatzaile hedatu ziren gero burrustan Mahain-Saindurat.

Bigarren meza, Eskerren Bihurtzeko meza hastera zoan; eta, joan erretorak ez zituen guti harritu guziak, bigarren selauruan, eta heientzat othoitz bat galdetzen ziotela, erakutsi ziozkatarik bi soldado maite, herioari eskapaturik, amets batean bezala loriatuak han zaudenak, gauerdiko mezan, Senperen, beren herritarren erdian. Batto, Etxegaraiko Pierre, Douaumonen kolpatu ta, hogoi bat oren bere menturalat lurrean utzia eta alemanek altxatua, preso harturik izana

zen. Bere ezkerreko besoaren baliorik hoberena han utzia zuen gerlan. Bainan bizirik hor zen halere, orai-orai Senpererat ethorria. Seietan-hogoi frantses lagun kolpatuekin, Suizan barna iraganik, Lyonerat jo zuen aintzineko egunetan; eta han trukatu zituzten bertze seietan-hogoi aleman kolpatu handiekin. Eta, Senpererat orduko, gau-erdiko mezarat jauzian ethorria, hantxet zen orai, selauruaren erditsutan jarria. Haren aldean, Luluako Arnaud, han nonbeit Champañan kolpaturik eta bere zango bat ospitalean utzirik, Pierre bezenbat ahalkatua zagon hura ere tenore hartan guziek emaiten zioten amodioaz.

Othoitz bera gero galdetu zuen jaun erretorak, elizan ikusten zituen eta permisionez ethorriak ziren bertze soldado gaixoentzat; eta pitta bat gorritu zen Piarres, adixkide askok maiteki zeren behatu zioten berehala. Behereko alkietan, ximiko handi bat egin zioten Goañak bere arrosarioeri...

Azken kantu baten emaiten ari ziren orai herriko neskatxak: Soldadoen Eguerri. Eta, bozean ikare batekin, orori bihotzak harrotzen ziozkatela eta begiak bustiarazten, ari ziren beraz:

«Oi Jesus-Haur ttikia, soldadoendako
aurthen gure othoitz duzu adituko!
Hemen gure othoitzer duzu behatuko
eta gure umeak han gerizatuko!
Beren Eskual-Herriaz dire orhoituko;
lehengo Eguerriez dute ametstuko...
Eta nigar bat zeie orori jaliko!
Heien nigarra, Jesus, duzu xukatuko!
Herioa hetarik duzu urrunduko,
—arima eta gorphutz— ditutzu zainduko,
ait'amen besoetan laster ezarriko...
Bertze Eguerri hemen dute ikusiko!...
J.B.

...Lehengo Eguerriez orhoiturik, orhoiturik azken bi urthe hetako Eguerri ikaragarriez, eta ere gau hartan berean lagunek, han, lohiaren erdian iragaiten zituzten Eguerriez, burua eskuetan... nigarrez ari zen Piarres...

XII LOHIAN

Piarres hola etxean goxatzen ari zen artean, sekulako bideak oinez eginak zituzten haren lagunek. Otomobilek harturik azkenean Ully-Saint Georgetik eta Harbonniererat, Eguerri bezperagoan sartu ziren Ablaincourt-Dénécourreko erreka-ziloetan.

Han kausitu zituen Piarresek; han egon behar ziren berrogoi bat egun luzez, lohian lephoraino ehortziak, gauaz doi-doia hatsa pitta bat hartzen zutela, egunaz 105 deithu aleman obuzek bethi ixtikatuak.

Ai! Sommeko lohiak, hamaseieko negu borthitzean, izaiten ahal den toki ustelenean. Ai! gauazko guardia ezin-erranezkoak, itsaso bat bezala alderdi guzietarik heldu zen basa higuinaren erdian, zangoak ubeltzen eta hormatzen ari zitzaizkotela orenetik orenera!

Lohi higuina, hastiala, okaztagarria, haxoinetarik eta galtzeri goiti, gerruntzean, bulharretan barna, lephoraino igaiten zena, hotz-hotza eta ixil-ixila, alimaleko apho itsusi bat bezala! Ez zen, lohiarentzat, ez gazterik, ez zaharrik, ez aintzindaririk. Oro bardin lohi zikinaren aintzinean, herioaren aintzinean bezala; denak bardin iretsi nahi ukan balitu bezala heldu baitzen bethi, bethi, zauri itsusiena baino itsusiagoa; hotza, horma puska bat bezala, erhotzeko ere baitzen azkenean!

Kanoi-peza batek luze-luzea etzanarazi zituen ondoan, altxatzen ziren, izigarriak egiazki, lohia zariotela, lohi eginak zangoetarik eta kaskoraino. Les Poilus!!! Horra zer ziren: lohi puska bat. Bainan zenbat loriosak! heien aintzinean belhaunikatu behar zitekela erraiten baitzuen aintzindari handienetarik batek...

—Errak, to, Piarres! Ez dakik untsa zer muthiko ederra hizan! Dirurik ez dela gehiago..., merke beztitzeko, hunarat igorri behar lizkek gobernamiendiak bere gizonak oro: lohiz bezi lezazkek eta urririk!... Hola muntatuik ikus bahindezate Pariseko karriketan, edo... Oihanaldeko sukaldian!

—Ba, eta ikus bahindeza hi treineko neskatxa panpina harek, dena irin baitzoan Baionarat eta gutaz okazaturik!...

—Ikus banindeza?... To! bekaturik batere in gabe, hemengo irin huntarik pitta bat bota nezokek, hango bere irinaren gainian eman dezan, hobeki oraino pinpirinatzekeo...

Gizonak baino gehiago ez zirena berriz ere, hola mintzo ziren soldadoak?

Gibelean, han, hirietako lantegietan, zozializt, komunizt eta bertzeak, lanean ari ziren, herioaren menetik urrun, bero-beroki, atherbean; hogoita bost libera altxatzen zuten eguneko, bizia orori astetik-astera karioago, garastiago egiten ziotela, eta Jainkoak daki zenbat urtherentzat!... Langile horien nausiak, egun guzietz gehiago, aberasten ari ziren, burrustakan bilduz herri guzietarik Frantziarentzat emana zen urhe pullit ederra, mihisen artean ordu arte gorderik orok zaukaten urhea!... Arranoak iduri, hil eta kolpatuen odolaz gizenduak, inguru-inguru hegaldaka, ontasun ederrenez jabetzen ari ziren gure Eskual-Herri maitean berean!...

Han, Berny, Foucaucourt, le Casino aldean, Sommeke erreka ziloetan, uria pesiaka heldu zen, uriaren gainera gero elhurra eta horma ikaragarria; haizkorarekin hautsi behar zen jatekoa; lohi bilhakatuak ziren gure soldadoak; lerro-lerro, bat bertzearen ondotik, hiltzen ari ziren, eta... bost sos irabazten zuten egunean!...

* * *

Bizkitartean, aireko xoriak, avionak, zapartakan ari ziren, —gorri, xuri eta urdin— begi handi batzuekin gureak, kurutze beltz handi batzuekin aldiz alemanenak. Orok ongi zakiten erle eta liztor-burrunba berezi bat bazabilan bethi, han, zeruan. Begiak erne behar zen orduan, burrunba hura hurbilxkotik sumatu zelarik. Lephoko zainak bihurturik egoitea zen, gain hartarik firrindilaka eta betbetan herioa jauts zadien beldurrez. Oldar zerbeiti buruz ari ginela moldatzen, gauza ageria...

Eta oldarra egin zen, urrun-urrun ereman behar ginituen oldarra, gerla bururatzen ahalko zuen oldarra behar bada, xuxen oraino ez dakigun zerbeit ezpialitz gerthatu, bertze hainitz aldiz bezala...

Goiz batez bethi, baionetak aintzin, jautsian atheratu ziren gureak; eta, hil edo bizi, beren buruak ahal bezen ttiki egiten zituztela gure soldadoak bazoazin, bala, mitralleuza eta grenada erauntsiaren azpian. Zenbat erori othe ziren lehenbiziko oldar izigarri hartan?... En avant! Aintzina... Bethi aintzina!...

Eta berehala etsaiaren gainean ginen, grenada ukaldika, baioneta sistaka, zizpa giderraz bardin kaskaka. Etsaiak eskuak altxatzen zituen: «Kaput! Kaput!... Franzoze, pardonne!» Metaka presonerak eginak ziren. Kanit handi batzu eskuan, guretarik zonbeit erreka-ziloen garbitzen ari ziren jada... Les nettoyeurs de tranchées! Gizon izigarriak egiazki!

Alemanen gomenant handi bat bere eskuz lephotik harturik, erhotua, Piarresen kapitaina gibelerat heldu zen oihuka:

«Emmenez-moi cet homme à l'arrière! Et vivement, car on a besoin de vous par ici!...»

Piarresi, Joanesi ari zen hola. Joanes bere aztapar alimaleekin lotzen zaio berehala alemanari, kapitaina bere soldadoetara jada badoalarik.

Bainan alemanak gogor egiten dio gure Garaztarrari:

—Vous pas moi toucher!... Offizier!
 —Ofitzir?... Ah! agur-gose hiza? Emain dezteat ba nik agurrak!... Hea, Piarres, loth-hitzakio beste besotik... Hola, zimikuan, eta errotik!
 Eta bien artean eraman nahi dute holaxet. Bainan, bertzea herrestan emaiten zaiote eta kasik lurrean hedatzen...
 «Piarres, atxikak hor gure xoria!... Azkarki gero, zozokeriarik gabe!...»
 Eta baionetaz sistaka hasten zaio Joanes, han, gerruntzeaz beheraxago dugun aurkintzaño hartan: «En abant, martche!... Karrassiaka abiatzen da gomenant alemana, bainan herrestaka oraino gehiago, tanaza batzuekin Piarres hari lothua izanagatik... «Hauxe duk alimalia!».
 Joanesez ez daki oraikoan zer egin. Begiak zorrotz-zorrotza, ezpainak mehe-mehea, hortzak hirrikan, buruari hazka ari da beharri gibelean... Amor eman behar othe diote boxari? Ala garbituko dute han berean, ezin-bertzez, gudurat, lagunetaratz itzultzeko berehala?... Ez halakorik ere, ez! Gaizki liteke...
 Hola alderdi guzietara eta errabian beha dagolarik, jauzi handi bat egiten du betbetan Joanesez:
 «Banuk, Piarres, banuk! Atxikak bethi azkarki...»
 Eta, han, erreka-ziloeri hurbil, luze-luzea lurrean hedatu pazote bat hartua du jada eskuetan:
 «Hean, orai, Piarres... Bauka soka-buztan bat, hire sakela horietan? Untsa! Ene soka hunekin lothuko diat berehala... Eta orai lagun nezak othoi!»
 Eta, hantxet, bien artean, soka mehe-mehe batekin pazoteari josten bezala dute gomenant errabiatua:
 «Tinkazkok, he, fuerte! Sarzkok haragi bizian, lukainka xixterrian bezala!... Brien figura!... To! Hain xuxen, urtharrilan gituk; salbu arima eta, hagetan bezala eremain diuk gure... urdia. Huñez ez nahi juan eta, airian gure sorbalden gainian! Gaizkixe!... Dena izerditan ezarri nik!... En tripa!... Bahiza, Piarres?... Eut! Bat, biga!... Ha!...»
 Eta, Kanaango lurrean lehenago israeldarrek mahats-mulko ikaragarri hek bezala, Joanesez, Piarresez bazeramaten haga luzea, eta haga hartan alemana.
 Intzireka, oihuka, karrassiaka bazoan aintzindari bihurria: «Terteufel! Hai, hai, hai!... Genug! Hai, hai!
 —To, hola hola egiten ditek bertze hek ere, urtharrilan, mahainerat altxatziaikin!...»
 Ba bainan, soka demonioa sartzan baitzitzaion ordean, eta bethi ta gehiago, aztaletan, ixterretan, eta bertze nonbeit oraino!... Zer aztaparrak Joanesez, Piarresez, jendearen hola egurrari josteko!... «Hai, hei, hai!»... Eta gero, berehal-berehala, berrogoi urhats ere gabe:
 «Assez, assez, Franzoze!... Moi, tout seul marcher!»
 Joanesez, orduan, bere sakelako kanita atheraturik, bi ukaldiz pikatu ziozkan lokarriak, eta tunkalako batean xutik eman zuen hantxet, lohiaren erdian.
 Bulta on bat bere ixter ubelduen ferekatzen arizanik, plaf, plaf lohian egiten zuela, aingeru bat bezen prestu bazoan orai alemana.
 Eta, klaska batean kanita hetsirik, lurrean soka-buztanak bildurik, kanit eta soka, oro sakelan eman zituen Garaztarrak:
 «Bestaldi batez balia ditezkek oraino, Piarres... En abant, toi, maufes troupe!»

* * *

Erreka itsusietan ziren berriz ere, eta berriz ere lohiaren eta hormaren erdian, uri eta elhurraren azpian.

Eta, bere zizpa eskuan pezoin buru batean, gau-beilari zagon Piarres. Haren aintzinean, ilhargi xurietara pitta bat edertua, bethiko toki ustela. Toki ustel hartan, han hemenka, aspaldi-aspaldi han erori frantses soldado batzuen gorphutzek iduri zuten mihise zikin batzuen tartetik harrotzen ari zirela. Urtzen

baizik ez ziren ari eta mikotzen, egun guzietz gehiago. Bainan, Piarresi hala iduritzen egiazki, higitzen, harrotzen, kasik xutitzen zirela!... Ez! Ilhargia zen ixil-ixila mogitzen, eta Piarres, luzaz meta ilhuneri beha egonik, othoitz baten erraiten ari zen, han eroriak eta bethi ezin-ehortziak zauden lagunentzat.

Bada erran zahar bat, baizik eta persulari sortzen direla eskualdunak oro. Gau eder hartan, etsaiari zonbeit urhatsetan, ikare batek inharrosten ziola bihotza, hil gaixo hetarik batekin persutan ari zen Piarres... Eta, —mirakuilua ez zenez?— persuka ihardesten zion hil hetarik batek... eskualduna izaki hura ere; ez ziteken bertzela.

Eta huna nola ari ziren biak:

Piarresek

Soldado lagun maitea,
orai ixtantean urthea,
goiz batez, hi, hoin gaztea,
hortxet erori haiz trixtea!

Hilak

Milesker, nere laguna!
Zonbat goxo bihotz-ona!
Atxik hazkar, atxik barna
hil gaixoen orhoitzapena!

Piarresek

Hire hezur xurituak,
guri hoin hurbil ikusteak
bustitzen diauzkuk begiak,
ilhuntzen orori bihotzak.

Hilak

Hire hola entzuteak
inharrosten daiztak hezurak;
hain dituk prezagarriakhilez orhoit diren biziak!

Piarresek

Neretzat zer atsegina,
hobian bahindut emana!
Bainan nor hurbil higana?
Ernerik zagok alemana!

Hilak

Ago, othoi, hor, ziloan,
hire xixpa ona eskuan!
Begozi, beren hildoan,
nere hezurak... deskantsuan!

Piarresek

Bainan, negu borthitzean,
lanhoa altxatu denean,
hormaturen haiz lurrean,
hotza sarturik hezurrean!

Hilak

Nere hezur hoiek baino
miletan haiz baliosago.
Bertzalde, tira gehiago...
Ukanen diat beroago!

Piarresek

Jainko handia lekuko,
segur hautala berotuko!
Etsai beltza diat joko,
odol beroz hi mainatzeko!

Hilak

Aski hola beraz, gaurko;
deskantsuan nauk lokartuko:

eskualdunak naik zainduko
othoitz eginez neretako!...
J.B.

* * *

Urtharrilaren hogoita hamekan, negu-bihotzean, hotzik minenean, Estrées izana zen herria, edo, hobeki, lehenago herri hura izanak ziren harri-meta puskatuak uzten zituzten Baionako gizonak. Eta, heien ordain, harat hupatu ziren anglesak, gizon batzu ederrak, sos berria bezen argi eta eder baitziren. Toki onerat zoazin laster erdoiltzeko!

Crèvecoeur deithu xokorat jautsi ziren beraz Piarres eta haren lagunak. Hatsaren hartzerat utziko othe zituzten batere?...

Eta ez ziren guti harritu, Baionako inguruetan lehenago bezala, etsesisetan, service en campagne eta bertze, berriz hasarazi zituztelarik. Eta gero, oraino, beren kantonamenduetan gerla hastean bezala hedaturik, haintzurarekin eta palarekin lanean ari ziren, eta karraskan... Parise zaindu behar zen gibelean; eta, sukar batean, ari ziren, hiri handitik aski urrun, hiri haren gerizatzen...

XIII CRAONNEN, BERRIZ!

Martxoaren hogoita lauetik harat, bidez bide bethi oinez, erreximendua bazoan Baslieux-lès-Fismes alderat.

Zertaz ilhun bazuten orok. Rusian, Erreboluzione higuina nausiturik, Kerenzki zelako gizon gazte xoro bat emana zuten gure adixkide Enperadorearen orde!

Parisetik ethorri soldado tzar batzu, ororen nahastaile, gordeka, eskupetik, traidorekerian ari ziren soldadoen artean. Rusiako dirua nasaiki zabilan gure kontra, bere pozoina orotarot hedatuz. Eta, horien ororen gainera toki madarikatu beretarot berriz itzultzea zutela orai!...

Bainan horra: beharriek xixtu egiten zioten gure soldadoeri, eta bihotzak jauzika hasiak zitzaizkoten. Joffre jeneral nausiaren orde, Nivelles eman berria zuten ororen buru; eta espantu bazen buruzagi gazteaz. Uztailan ogi-landa edo elge xoragarrien gainera Ipharra hedatzen den bezala, farra-farra heldu zitzaizoten haizeetan maiteena: bitoria mezutzen zuen haize hura eta bera. Etsaia behar zen, aldi huntan, erroz-gora arthiki. Aphirilaren 16an zen, 1917eko urthean.

Baionako soldadoek Maizyn iragaiten dute Aisne ibaia. Goizeko bederatzi orenak iria zen. Mangin eta Mazel jeneralen bertze tropa batzuek ezker eta eskuin hartuko dituzten erreka-ziloetarik harat joaitea dute, urrun-urrun, egin-ahala urrun, sistaka alemanak aintzinean deramaztela, Camp de Sissonne deithu tokiraino. Errabia handi batek inharrosten ditu oro, Mixeler jeneral nausitik eta azken soldadoraino.

Eta gero, uria phesiaka, elhurra, haizea zirurikan hasi ziren; aroa izigarri egin zen. Etsaien errekek, mitralleuzek eta kanoiez orraturik, ez zirela osoki deseginak, gure suak ez zituela oraino aski luze zafratuak, funditu behar zirela gure soldadoak, kolonial beltzak —beren aintzindariak galdurik— ohildu zirela, hau zela, hura zela... gaina eman behar zaukun gudua gelditu zen, geldiarazi zuten, hobeki erraiteko!...

Arrats hartan berean, manua heldu zen, lorietan hala iragan ibaiaren gibelerat behar ginduela egin!!! Eta kraskatu ziren bihotzak. Joanes, Piarres eta bertzeak, ilhunik heldu ziren elhurraren azpian, Beaurieux eta Maizyrat buruz...

* * *

Aphirilaren 21tik harat, Craonnen ziren berriz. Berriz erreka eta pezoin higuindu hetan behar othe dute bada egundaino bezala mutzitu?...

Ez!... Huna, maiatzaren 4a.

Ordu arte, gudurat atheratze guziak argi-hastean egin dira bethi. Eta gero, zonbeit egunez hatsa ongi harturik baizik ez dira aintzina jotzerat atrebitu. Hirschauer gure jeneral-manatzaileak, etsaiaren hobeki enganatzeko, bere buruarekin egiten du, arratsalde-erditan hartu behar duela Craonne edo Craonne izanak diren harri eta pareta xirxikatuak. Eta, gehiago igurikatu gabe, biharamun goizean berean beretuko ditu Vauclerreko eta Californiako kaskoak...

Hola erran, hola egin. Hirschauerrek galdetu kanoi handiak karraskan ari dira zonbeit egun hartan jada, zoko bat ez dutela uzten Craonnen eta kasko hetan guzietan, zoko hura azpiz-goiti eman gabe. Etsaia, harriturik, lur-pean kukutua, ehortzia bezala hantxet dago...

Eta, maiatzaren 4ean beraz, arratsaldeko lau oren beretan, ihurzuri-karraska batean, gehiago oraino errabiatu ziren gure kanoiak; Blanc-Sablonetik, Aisne ibaiaren ondotik ari ziren, Winterberg guzia lur-ikara batean emaiten zutela. Eta gero, bostak eta erdietan, luzexago egin ziren gure ukaldiak, eta hemezortzigarren erreximenduko hiru konpainia jauzian joan ziren berri-berriki egin azken erreka-ziloraino. Etsaia, bethi harritua, ez da mogitu.

Sei orenetan, luzeago oraino egin zen gure sua, eta Pabeko soldadoak azken erreka zilo hartarik atheratzen dire. Errabian oihuka, hartzen dute Craonne, aztaparka badoazi paretari gora, gainean dira, urdin-urdina hegi-hegiraino hupatuak dira, etsaia heien aintzinean badoala parrapataka Californiako kaskoan! Kasko hartan, milafrankar sarjant beltzaran bat Bihotz-Sakratuaren bandera ttiki bat ezin aski laster sartuz ari zen, begi biphil batzu alderdi guzietara firurikatzen zituela. Etsaia bezenbat espantituak, Pabeko soldado gaitz heien lagunak beha eta beha zauden Tranchée du Balcon deithu errekatik eta hala-hala zoko guzietarik, harrituak, zozotuak. Hiru ehun presoner aleman baziren eginik, eta heieri hartu mitralleuza andana bat etsaiari buruz itzuliak ziren jada... Zer gaua gero, kanoi-karraska guzien erdian!!!...

* * *

Biharamunean, maiatzaren 5a.

Baionako soldadoen aldi sarri, bederatzi orenetan. Goiz-goizetik, oro moldatzen ari dira eta oro sukar berarekin. Badakite zer duten egiteko, noraino joatea duten egun hartan eta hura ginen dute, haraino joanen dira. Beren puxkak bil eta bil, orenak zaluago nahi luzkete orai.

Omoniera harat hunat badabil, bati eskua tinka, bertzeari solas on bat erran, orori bihotza pizkortzen diotela. Kanoiak, orroaz, bethi ta errabiatuago ari ziren...

Sorbalda hunkitzen ziola eta eskua gero hartzen, Piarresen erraiten zion bizkitartean Joanesi:

—Apez-soldado lagun bat hantxet ikusia diat orai berean. Hik ere ba, ene uestez?

—Ba, Piarres, ba; kartuxa guziak hartuik hobe diau, gorphutzekuak eta arimakuak; oro. Eta orai, Paul, Mixel, Manex, eskiak elgarri! Jinkuak launduko gitik, elgar guhauk inen duun bezala...

Rau! rau! gure 75 kanoi ttikiek Baionako soldadoetarik ehun metretan oro xirxikatzen dituzte. Berehal-berehala, soldado horiek atherako direlarik, horien aintzinean tank eta tank, minuta guzietan ehun metra urrunago, garbituko dituzte bazterrak.

Bederatzi orenak! «l'heure H!»...

Aintzindari batek salto egin du pezoinaren gainera. Orena eskuan, esku hura altxatu du... Eta xinaurri urdin batzuen pare, lehenbiziko soldado-araldeak kanpora jali dira, eta ondotik bertzeak, bertze batzu oraino eta oraino. Oro orroaz, erhotuak: En Avant! En Avant!... Lanik aski badute aintzindariak, beren gizonak zaluegi ez ditezen joan guhauren kanoi-pezen azpira... En Avant! En Avant!... Zer aintzindariak, zer soldadoak aintzindari hoiere eskuetan!

Begien hesteko artean, Von Fett eta Haslock erreka hartuak dira, etsaia deuseri oraino ohartua ere ez delarik. Erreka zoko zoko batean, beren kamantzetan lo kausitzen dituzte aleman aintzindari zonbeit, arras grazia tzarrean atzarri ere baitziren. Kozinari bat, bere panderoen erdian atxemana, hirri-egingarri ari zen zituen guziak frantseseri eskaintzen.

Gure kanoiek bethi, behar arau, ehun metra garbitzen diozkatela beren aintzinean, gure soldado gaitzak Californiako kaskoan harat badoazi... Eta Fribourg erreka hartua da hura ere. Piarres, Joanes, bertzeak han dira Ailette ur-handiari buruz beheiti badoan malda-hastean. Han hemenka, boxek ihardokitzen dute mitralleuza ukaldika, baioneta sistaka, eta bardin... borroka. Bainan, fur-furian heldu, gainean dituzte gureak, hiru hogoi urhatsetan grenada beltzak arthikitzen diozkatela.

Joanes, bere beso alimaleekin bota eta bota ari zen, deskantsurik izigarrienean: «Jé arrose mon liéténant!» Eta Joanes bezenbat bazen lotinant hoi, pilotan ari hura ere grenada koxkorrekin...

Hirschauer eta Paquette jeneralak, begiak sutan, bihotza pilpiran, urguilu zuzenenaz hantuak, hantxet zauden tokiaren gainean jauzika, ukamiloak bilduak, beren gizoneri beha eta beha. Eta gizon horiek ez zakiten berek, beldur guziez gorago beren bihotz-arimak hola emanik, zer soldado gaitzak ziren tenore hartan! Esku-gibelaz kopetaren xukatzen ari ziren; leher eginak, bainan berriz saltoan aintzina abiatzerat ekarriak, hala galdetua balinbazitzaioten. Joanes, xahakoa eskuetan, danga-danga ari zen xahako haren husten:

«To, Piarres; oizie, Mixel eta bestiak... Hurrupa bat baukezie ono, ziek ere!...»

* * *

Eta bizkitartean, Californiako pareta-kaskoak gureak ziren! Gurea, ezkerrean, Vauclerreko gain guzia edo gehientsua!... Eta toki ikaragarri horietan garhaitu soldado aleman hek, Augusta Erreximenduko soldadoak ziren, la Garde Prussienne deithu tropako gizon aipatuak berak! Hiru mila baziren presoner eginak, eta hiru mila hetarik bost ehun, Baionako gizonek hartuak!... Beaurieux guzia presoner hetaz bethetzera zoan.

Kasko heien hartzea balentria gaitza izan zen beraz. Balentria handiagoa oraino, hola hartu eremua begiratu baitzuten gero bururaino...

Etsaia gibelerat errabian ethorri baino lehen, ernatu behar zen, eta zaluzalua. Beren zizpa eta grenadak bazterrerat utzirik, Joanes eta haren lagunak, bertzeak oro hala-hala, haintzur eta palak eskuan, Fribourg erreka-ziloaren itzultzen hasi ziren beraz.

Bainan, zorigaitzez, hamek-orenak gabe, huna aleman obuzak non dituzten jada gainean! Eta kanoi-pezak heldu zaizkote burrustan, pesiaka, karraska izigarrian, Verdunen aintzineko urthean bezala, Douaumont berriz hartu ginuenean bezala. Sua eta khea dariote bazter guziek. Eta, doidoia itzuli erreka txar hartan nork bere burua geriza?... Zenbat eta zenbat ez dira sekulakotz hantxet gelditzen!!!

«Atx! muthikoak!!! Hau zerbeit bauk hatik! Jinkuak eta Ama-Birjinak beira gitzaiztela! Bestenaz!...»

Bi, hiru aldiz, orduan, heldu zaiote etsaia, errabiatua zeren kasko hetarik guk ikusiren dugun handik harat, harek gu ikusteko orde, ordu arte bezala.

Bainan, kanoien ala aleman soldadoen fur-furiak, oro debaldetakoak dira.

Mesquy Gomenantaren soldadoak eta bertzeak, ilhuna arte lehenik, eta gero, heien ordainak harat jin arte, han egonen dira... orenetik orenerat guttituak, urtuak... bainan bethi han geldituak!...

* * *

Zonbeit egun pausan egon ondoan, maiatzaren 31an berriz harat hupatu ziren Piarres eta haren lagunak, lehenago Fribourg erreka izanik, orai Baionako erreka bilakatua zen zilo hartara berera. Gure lehen lerroaren gibelean bi egunez bazter guziak iraulirik, la Garde Prussienne berriz heldu zen, galdu zuten eremuaren guri hartzera; eta hartako ere ziren berriz trebes han emanak Baionako soldadoak.

Eriaroaren 3an, goizeko hiruak hirian, bi-hiru aldiz aztatu gintuzten lehenik, eta debaldetan. Sekulako torpillak, hegalekilako obuzez leher jin zitzauskun berehala, erauntsian. Lau orenetan gero, metaka heldu ziren alemanak, elgarri-kontra sorkan emanak, su-garrak beren aintzinean igorritz, lance-flammes direlako beren tresna tzarrekin. Oren-laurden hitsa guretzat! Etsaia matzoan heldu da; tenore batez, gunee batean, sartzen ere da gure lehen lerroaren eta bigarrenaren tartean. Bainan, laguntza guri ere lasterrez ethorririk, etsai hori suzko-sagarrekin, mitralleuzekin, erhautsi zuten hantxet Piarresek eta haren lagunek: «Jé arrose, jé arrose», apuñatik ari zen Joanes. Bainan, borrokan ere lothu behar izan zitzaion guti aski...

Orduan berean Paloque eta Niessel jeneral aiphatuen kanoiek asikian hartu zituzten ezkerretik eta kasik gibeletik, eta... ihes bazoazin alemanak... Baionako soldadoak nausi ziren, gaina zuten Craonnen, gaina Andereen-Bidean! Obuza-zilo bat ez zuten galdurik, ez eta bakar bat!...

* * *

Biharamunean, Frantziako egunari guziek lerro hauk hegaldaka bazeramazten orotaratzat:

«Toutes les tentatives dirigées sur la partie ouest et la partie centrale du plateau de Californie ont échoué. Les mêmes régiments qui s'étaient couverts de gloire en enlevant, les 4 et 5 mai, le plateau de Craonne et les plateaux de Vauclerc et de Californie, ont fait de nouveau preuve d'une admirable vaillance pour la défense des positions qu'ils avaient conquises.»

(Communiqué du 4 juin 1917).

Eriaroaren 20ean aldiz, huna zer zioten oraino Baionako Piarresen Erreximenduaz:

Ordre de la Xe Armée n° 280 du 20 Juin 1917.

«Sous les ordres du colonel de France, (le 49 R.I.) a, le 5 mai 1917, enlevé d'un seul élan, la partie du plateau de Craonne qui constituait son objectif et l'a conservée malgré le plus violent bombardement. Chargé de nouveau de la défense de cette position, a fait preuve, une fois encore, d'une admirable vaillance en repoussant victorieusement, le 3 Juin, une puissante attaque ennemie et en maintenant intégralement toutes ses positions.»

* * *

Genevreuilleko inguruetan, Haute-Saôneko departamenduan, hats-hartze labur bat izanik hamabost egunez, Alzazerat jo zuen gero erreximenduak. Eta loriatu ziren Craonneko gudulariak toki maite hetako jendeak egin zioten ongi-ethorriaz. Gizonetarik asko beren fraide-xapel bitxiekin, beren galtza labur eta jaka luzeekin, andreak aldiz beren floka eder eta zaia gorriekin, kurutze urhezkoa soin pullit-pullit batzuen gainetik, hunkigarriak zitzaizkoten tenore hartan. Eliza ttiki heien aldean,

beren Eskual-Herriko etxeak iduri, hirriz ari zitzaizkoten etxe pullit heien erdian, laster ahantzi ziren Californiako kasko irauliak oro. Mainarik eta phestarik baizik ez zen heientzat, gauaz, egunaz, eta non-nahi. Supazter-xokoetan hedatzen zirelarik, iduri zitzaioten beren herrietarat jada itzuliak zirela, gerla izigarria bururatua zela oraikotik.

Oihan-pe handietan etzanak, uda min guzia goxo-goxoki iragan zuten hantxet, deskantsurik hoberenean.

Eta hobeki bazakiten hola, pitta bat ahantzia ere balinbazuten, jende gaixo hek orok frantses soldadoenganik igurikatzen zutela, ez zitzaiotela gerla higuina gainetik iraganen...

Zorion bazen beraz Alzazen. Bainan zorion hoi ez zen osoa behar gure adixkideentzat. Bere ama eriturik eta txarturik, bihotza ilhun eta ttiki, etxerat buruz bazoan Piarres.

XIV ETXEK-ANDRE BATEN HILTZEA

Andredena Maria Agorrilakoaren iduria, dena urhe, dena lore lau gizonen sorbalda-gainean karrikan ibili ondoan, eta zerurat Ama Birjina hola airatu ondoan, xoriak oro ixiltzen ohi dira bethitik Senperen, eta hala-hala gure Eskual-Herri guzian. Beren adixkide maite Zeruko Erregina hegaldatuz geroz, ez zaiote iduri kantuz gehiago ar ere ditezkelat gizonarentzat. Jauzi-jauzi, paparo-gorria da bakarrik ikusten oraino berho-sasietan edo baratze-bazterretan. Aldaxka baten buruan finkatua, begiak birilkatzen dituela, bere zintzur ttikia musika-eresiz hantzen du. Eta, zeren errexifola ixildua den zonbeit egun hartan jada, eta bere lumak harro-harroa zeren dituen emaiten, uste du gaixoak «xorietan buruzagi» hura dela eta «ororen gehien». Bainan, hatsa laburregia du, eta motz-motza bururatzen ditu bere ttirritta-errepikak oro!...

Ongarri-metaren kaskoan, aztaparka alderdi guzietarat ari dela, gorri eta xuri, bere buruaz bethi hartua, huna etxeko oilarra. Bainan, bereziki Jon Doni Petriren arneguaz geroztik, oilar-kantuari behatzen othe dio behin ere Ama-Birjinak?

Ixildu dira beraz Eskual-Herriko xoriak.

Osoki itzali baino lehen, bere uzta ederra eman ondoan, uda bildutasunean sartzerat doa, ixil-ixila bere edergailu ondarren erdian lokartzera baloa bezala.

Gauak, lasterrago jinak, hotzago dira jadanik.

San Mikeletan, uhartzearen lau ezkinetarik huna heldu direla iñharak, ehunka lehenik, milaka gero, xuri eta beltz, pullitak, maiteak ezin gehiago. Inguru-inguru, eskualdun zelaiak ezin utziak balituzte bezala, hedoi arin baten pare hedatzen dire ezker, eskuin, zerua kasik estaltzen dutela. Adar-muthurretan, hegatz-kaskoetan, ikusi gathe-alanbre guzien gainean sorkan finkatuak, batek bertzea haikatzen duela noiznahi, elgarri erasian ari dira eta mezuka. Zer erasten othe duten hola beren ttirri-tturru maite hetan guzietan?... Banaki erraiteko, ahapetik erran niro hementxet. Bainan ez baitakit ordean!... Bizpahiru egun holaxet zapartakan arizanik, haize gaixtoaren hausteko bortuetan edo itsas-gainean aski bildurik badirela iduritu zaiotenean, oro hegalkolpe berean altxatzen dire. Eta, zeruan doi-doiako bat durduzaturik —moldean emaiteko doia—, huna non doazin orai, lerro-lerro, beren aintzindariaren gibelean oro hedatuak, luzatuak, airean igerika, berehala kasik, bertze urthe arte, zeru urdinean itzaliak...

Oihaso kaskoan harat iñhara andana bat hola itzaltzen ari, eta tanpa-tanpa Zaldubian hunat heldu zen Piarres. Behatu zioten; eta, gauza orori ohartua zen bezala, bere buruarekin egin zuen berehala:

«Xori maiteak!... Zoin goizik urruntzen diren aurthen, buruilaren lehen

egunetan beretan! Bederazka deusik ez, ahulegi hegalak; bainan, elgarri-kontra emanez geroz, haizerik hazkarrena baino hazkarrago horiek izaki, bethiko mendeetan! Nahas-mahas, deusik ez oraino hala-hala, laster ohilduak alabainan; eta beren buruzagiaren ondotik lerrokatuak, ia bezen xuxen eta oso-oso horiek joanen itsasoz haindirat!...»

Bainan, gero, ttitta beltz batzu baizik gehiago ez ziren xori gaixoeri azken aldi bat oraino behaturik, ikaratu zen muthiko maitea. Berak ez zakiela zertako, iduritzen zitzaion semeari, hola zoazin iñhara hek berekin bazeramatela haren zorion handi bat, eta zorion hoi ez zitzaiola berriz itzuliko sekulan... Bere ama maiteaz hola su batean orhoiturik, hipa bat ethorri zitzaion zintzurrera eta nigar hori utzi zuen jalitzera, ahalkarik gabe batere. Bardin sarrixago ez du nigarrik eginen ahalko bere haurrideen aintzinean. Oihanaldean beharko du gizon eta bihotzdun... Hemen Zaldubian, nehork ikusten ez duela, seme izanen da eta haur ttiki...

* * *

Nola eritua zen Oihanaldeko Gaxuxa, eta zer egin zitzaion udazken xoragarri hartan, gauzak oro hala lilluragarri zirelarik oraino bazterretan?...

Nork ongi zakien?... Igande ilhuntez batez, elizatik heldu zen. Karrikan jakina zuen, orduan berean, herriko seme baten, Mattin Albandos jaun errient girixtino gaztearen hil-berria. Andereen Bidea zelako toki madarikatuan eroria zen, uztailearen 31an, bere adinik ederrenean. Berruet jaun bikario-errienta 28 urthetan, 21 urthetan aldiz Mattin gaixoa! Hainitz maite dituen gauzak maiz egiten ohi dituen bezala, Jainko Handiak hazkarki hunkitzen zuen Senpereko eskola girixtinoa!...

Elizan berriz sarturik, othoitz bat karsua egin zuen muthil gaztearentzat eta haren burhaso-haurrideentzat.

Eta, gero, betbetan, zarrast egiten ziola, zerbeit hautsi bezala zitzaion, han, bulhar barnean. Bere seme Piarresez orhoitu zen, eta seme hura hilen ziotela hari ere egin zuen bere buruarekin. Min egin zion bihotzak; tinko-tinkoa bi eskuez hartu behar izan zuen bihotz hori. Eta, berak ere nola ez zakielarik, Ama-Birjina Lurdekoaren aldare-aintzinean, nigarretan aurkitu zuen bere burua.

Bere biziko azken itzulia elizan eginik, bertze aldietan baino pisuago heldu zen orai Oihanaldeko patarrari goiti. Ama-Birjinak eztitu zion barneko ilhundura itsusia; ez ordean khendu. Taka-taka ari, min egiten zion bethi bihotzak.

Oihanaldeko sukalderatu zelarik, hatsez ezin asez egon behartu zitzaion bulta luze bat. Eta gero, orotarik errenkuratu zen. Gantxume, Frantxa, Xaneta izituak, supazter-xokoan nigarrez ari ziren. Marie, gorri-gorria begiak, bainan bere bihotz guziaz asiki-zimiko batean berehala jabetua, ama gaixoari dena maina, dena artha ari zitzaion. Thomas, Ganix, xutik Gaxuxaren aldean, ixil-ixila hari beha zagozin, harrituak biak, behin ere ordu arte zeren ez zioten errenkura bat entzun...

Sokorri zerbeit bero-beroa harturik, bere alabak laguntzen zuela, Oihanaldeko andre guziak bethitik etzan ziren ohe zabalean eman zen ama gaixoa, handik ez baitzen gehiago xutitu behar...

Eta hotz-ikare handi batzuek inharrosi zuten berehala, lanik aski baitzuten hura ezin berotuz. Daldaratzen zitzaizkon ezpainak, intzire bat jalitzen ezpain horietarik.

Sukaldean, Thomas itzuli zen Ganixi buruz, eta ilhun-ilhuna, bere lagun maitearen ikarek bera hartua izan balute bezala, erran zion:

«Zoaz, haurra, jaun mirikuarengana, eta errozu ethor dadin othoi berehala... Zuk, Gantxume, laster egizu Lizartzara. Lehen auzoak ditugu...»

* * *

Oren bat iragan zen gero dorphea, egun bat osoa bezen luzea iduritu baitzitzaioten orori. Lizartzako andrea, Goaña, han ziren orai, Gaxuxaren aldean, lasterrez ethorriak eta Mariaren lagun maite berehala eginak, harat hunat, ixil-ixila

zabiltzala artha guzietara.

Bethi ta kexuago, xuri-xuria luzaz egonik, sutan iduri zuen orai Gaxuxak bere estalkien azpian. Halako zirrinta itsusi bat jalitzen zitzaion bulharretarik, eta bihotzak oro hersturetan ziren barne hartan...

Hatshantua, Ganixen ondotik sartzen ari zen jaun mirikua, eta begiak oro argitu ziren Oihanaldean. Jende gaixo heieri iduri zitzaioten, gaurgoiti salbu zela heien eria.

Eta berehala, bere begi onak maite-maite eginik, bazoan mirikua ongi zakien ganbaralat buruz. Zenbat haur-ukaiteetan, zenbat bertze hinka gaixtoetan oraino ez zen Oihanaldean izatua?

Ez othe zen, bertzalde, ororen adixkide herrian? Paregabe ona ez zena erientzat eta lañoa?

«Eian, eian, Gaxuxa?... Zer egin zaitzu?»

Eta estalkien azpian esku bati exti-extia lothurik, alegia eta deusik ez, foltsuaren miatzen ari zitzaion. Eta, berehala, zimurtu zitzaizkon ezpainak. Bainan, gero, bere bethiko kara berriz bildurik, mihiari behako bat emanik, oihal xuri bat galdegin zion Marieri. Bere eskualdun kapelua khendurik, bulharren ikertzen ari zitzaion eriarri. Luzaz eta alderdi guzietarik miatu zuen ondoan, estalkiak berriz bildu ziozkan xixtuka ari ziren bulhar gaixoen gainerat.

Eta orai, Gaxuxaren aldean jarririk, aita bat bezala ari zitzaion Senpereko sendakin ona:

—Atherako zaitugu hortarik, Gaxuxa, Jainko maiteak nahi balinbadu...

Zirrinta batean, neke-nekea, ihardesten zion eriak:

—Ez dakit nahiko duen, jaun mirikua...

—Balinba!... Bainan, ez duzu hola nekatu behar zure burua, ez duzu ere behar deusetaz grinatu. Arthatzaileak baitutzu hemen, eta ez nolanhikoak. Mustarda eta bertze, erranen diotet zer egin, eta bulhar hoik garbituren ditugu zonbeit egun barne...

—Bulharrak... garbituren tutzue... behar bada... Ez ordean... bulharren tarteko hoi... sendatuko.

Gaxuxa maite zuen jaun mirikuak, gora emaiten zituen hura bezalako etxek-andre eta ama paregabekoak. Lanbro bat ethorri zitzaion beraz begietara, eta lanbro hura orori gorde beharrez, brau xutitu zen, burla maite batean eta ozen-ozena ihardesten ziola eriarri:

—Bai eta hori ere, Gaxuxa! Bulharrak lehenik eta gero bihotza. Ongi peaxatuko bederen dugu, eta Jainkoak nahiko duen bezenbat urtheendako. Eta huna lehenbiziko peaxua: han Alzazen, alfer tzar baitago zuen Piarres, eta, diotenaz, gerlaren buru-bururaino, bihar goizean berean jakinaraziko diot bere amaren sendatzera ethorri behar duela zonbeit egunez. Aste erdietako hemen dukegu, ez ahal baitu beltzuririk eginen, ez eta ere, nik uste, haren amattok... Bihar arte, Gaxuxa. Prestu-prestua har eta egin nik manatuak oro!...

Begiak argi-argia eginak zitzaizkon jada eriarri. Ganbaratik bazoan aldiz mirikua. Sukaldera Marie deithurik, bere manuak eman ziozkan xeheki; eta gero, besotik harturik, Thomas bazeraman kanpora:

—Bihotzdun behar zira, Thomas.

—...

—Ni bezenbat beldurtitua ahal zira gaurgoiti. Min badut hori erraiten, bainan arras eri da Gaxuxa. Behar direnak oro eginzkitzue. Zer hel ere, Oihanaldea xutik egon behar da gure herrian. Uste dut, bertzalde, elgarren premu eginak zaizten aspaldi huntan eta bethitik. Bainan, ez da hori ene egitekoa.

—Adixkide bat zaitugu, jaun mirikua.

—Hala naizelako bertze froga bat orai. Badakizue Sakramenduek nehor egundaino ez dutela eritu. Elizakoak harturik, bakea bihotzean emanik, nere erietarik asko sendatu dire, bertzela beharbada eginen ez zirenak... Lehenagoko eskualdunetarik zaizte Oihanaldean. Badakizue beraz zer egin.

—Ongi da, jaun mirikua. Bihar goizean berean, lehen auzo gisa, Goaña Lizartzakoa han izanen da gure bilari, sakramenduak Oihanaldera segitzeko...

* * *

Biharamunean, sakramenduak heldu ziren beraz Oihanaldera. Intha hertsuari gora, landa eta sorroen tartetik, jaun erretora buru-has bazoan, tinko bere eskuetan eta bihotzari kontra zeramala urhezko untzi berezia, eta untzi hartan, osti xuri ttikia.

Haren aintzinean, buru-has hura ere, elizako esku-argi berezia ezkerrean, Mattin beattar eliza-muthila. Noizetik noizera, ipularrean norbeit ikusirik edo bardin artho-landa baten erdian, zilarrezko xilintxa ttiki bat inharrosten zuen bere esku-muthurrean. Eta, arto-makilen erdian, landa bazterretan, belhauniko berehala kurtuak, kanpo hetako goixtiar-langileak, kurutzearen seinale bat eginik, othoitzean emaiten ziren guziak. Norentzat ari ziren ere bazakiten jadanik, bas-herrietan bezen laster nihun ez baitire beharbada berriak hedatzen. Eskolarat zoazin haurrak, intha bazterrean belhaunikatzen ziren hek ere, beren buru maiteak aphaltzen zituztela, Jainko maitea heien aldean iragaitearekin. Sasi-berroetan harrotzen ziren aldiz paparo-gorriak; eta, batere izitu gabe, aldaxka muttur-muttur batean finkatuak, beren begi ttikiekin saheska behaturik, ttirri-ttirri hasten ziren ezin-gehiago maiteki. Nork zer daki, beren eta gauza guzien Nausi handia ez othe zuten hek ere tenore hartan ezagutzen eta hola goresten?

Aphezaren gibeletik eta haren puska zerbeit eskuetan, dena beltzez emana, heldu zen bilaria, Goaña Lizartzakoa. Bere mantelinaren azpian, othoitzean ari zen, Oihanaldeko Gaxuxaz eta Oihanaldeko guziez —Piarres barne— gogoia osoki hartua. Eta bere aintzinean zoan osti xuriari galdegiten zion jende maite hek oro hurbildik lagunt zitzaion.

Sorro heien guzien tartetik bazoala, jaun erretora erdi erasian ari zen bere buruarekin eta Jesus Jaunarekin: «Zoin ona ziren hatik, ene Jainkoa! Bai, zoin ona!... Bazindakien zu gabe ezin gintezkela egon, zure beharretan gintezkela bethi. Eta orduan, Ortzegun saindu arrats batez, eman zira ogi pitta baten azpian. Eta gu ez izitzeko, guk zu jateko, hola kukutua, hemeretzi mende hautan hor zaude gure elizetako gordagi maiteetan, gau et'egun bethi guzien meneko. Eta zureganat norbeit ez ditekellarik ethor gehiago, eriegiz edo bertzela, norbeit hura bera-bakarririk ez uzteko, zuhaur bazoazi orduan harenganat, bidez-bide, inthaz-intha, gaur Oihanaldeko ama gaixoarenganat bazoazin bezala!».

Eta gozo bat bazuen aphezak bihotzean, Jesus zeren lagunt zezaken harek ere bere Jainkozko-urrikalmenean. Han, ostiari kontra-kontra, othoitz karsu bat heldu zitzaion bihotzera, bihotzetik ezpainetara:

«Jesusen bihotz sakratua, gutaz urrikal zaite! Laudatua eta adoratua izan bedi Jesu-Kristo gure Jauna, zeruan eta aldareko Sakramenduan...»

Eta beattarrak, Goaña, erdi goratik ihardesten zioten berehala:
«Orai eta bethi ere!»

* * *

Oihanaldeko athean, Ganderailuz benedikatu bi xirio eskuan, Thomas belhaunikatua zagon. Apheza hurbiltzearekin, xutitu zen, eta ixil-ixila abiatu Jainko maitearen aintzinean, ganbara handiari buruz.

Harat heltzean, bere xirio biziak eman zituen mahain xuriaren gainean, kurutzefika handi baten bi aldetan, oihal batez doidoia estali mirailaren azpian. Eta gero, belhauniko eman zen bere haur maiteen ondoan.

Aphezak, mahainean hedatu oihal berezi baten gainean urhezko untzi ttikia ixil-ixila finkaturik, ur benedikatuan busti erramu-hostoa hedatu zuen erriaren gainera, etxe guziaren gainera:

«Pax huic domui et omnibus habitantibus in ea. Bakea etxe huni eta etxe huntan dagozin guzieri!»

Eta, bertzeak oro ixil-ixila orduan atheraturik, Jesusekin bakarrik ziren orai erretora eta Gaxuxa. Ohearen ondoan jarri zen apheza. Eria, gau luzeak ahuldua, xuri-xuria egina, bere kofesioaren egiten ari zen, begiak hetsirik, eskuak bere arrosarioaren gainean kurutzaturik. Hainitz maite ere zuelakotz eta bethitik, aita

bat bezala mintzo zitzaion gero jaun erretora haren ikustera eta hazkartzera Oihanalderaino ethorria zen Jesus onaz. Eta, Jainkoaren barkamenduarekin, bake handi bat jautsi zen berehala paregabeko arima hartara.

Etxekoak, auzoak, oro berriz sartu ziren ganbaran. Mariek oihal xuri-xuri bat hedatu zuen eriaren eskuen gainera; eta Goñak eta biek maiteki altxatua zaukatela, osti xuriari beha zagon orai Gaxuxa:

«Accipe, soror, viaticum corporis Domini nostri Jesu Christi...»

Eta bihotz garbi-garbi hartara jautsi zen ogi pitta batek zaukan zeru-lurren Jainko handia...

Ohean berriz luzatua, bildutasunik minenean eria zagolarik, aphezak eman zion oliodura saindua, eman ere eri handiek hartu behar duten indulgentzia edo barkamen osoa. Umil-umila, apha-aphala, aphezarekin bat egiten zuela osoki, Eliza Ama Sainduaren laguntzak oro hartu zituen Gaxuxak. Bere burua eman zuen ama guzien Aita bethi gelditzen den Jainkoaren eskuetan. Eta gozo handi bat bazuen berriz ere bihotzean. Eskerrak bihurtu ziozkan erretorari, musu bat eman bere haurreri, Goñari, behatze maite bat egin Thomas gaizoari. Eta, edateko zerbeit harturik, galdetu zuen: Jesusekin bakarrik utz zezaten othoi aphur bat.

* * *

Ororen othoitzak entzun balitu bezala Jainkoak eta oliodura sainduak zinez on egin balio bezala, pitta bat hobekitu zen Gaxuxa, eta ondoko egunak frango moldean iragan ziren. Oihanaldean, lanean berriz has zitezkeela iduritu zitzaieten beraz orori.

Auzo guziak, bedera-bedera ethorri ziren eriaren ikustera, eta mahain ttikia ikusgarriz estali zen berehala: oilo, arroltze, goxokeria, orotarik heldu zen, Eskual-Herrian ohi den bezala. Eta, bere ahuleziarengatik, etxek-andre maiteak bazekien guziera ongi egiten Lizartzakoeri eta bereziki Goñari hobeki oraino egiten ziotela hatik.

Bainan, nork erran haren zoriona, ortzirale goizean Piarres etxean sartu zelarik! Berehal-berehala, Xurikoren saingatik beretik, bere Piarres sumatu zuen, han, etxe-aintzineko keetaren ondoan berean... Eta, ohean jarririk, bi besoak aintzin beha zagon ama, beso heien tartean tinko-tinkoa hartu baitzuen bere seme handia eta luzaz han atxiki, bihotz eriari kontra, begiak, goiti, Jainko maiteari buruz handi-handia altxaturik. Oren goxoak, laburrak ere gero, gela hartan amak eta semeak iragan zituztenak. Zer berri-porrokkak, zer haurkeriak kasik! Hirri egiteko ere bazitaken egiazki, hala hunkigarri izan ez balitz...

Iduri zuen phiztu arras eta sendatu ere zela Oihanaldeko andrea... Bainan, ez! Zorigaitzez, ez zen holakorik!

Hainbertze sar-atheratzek unhatu balute bezala, Piarresen ikusteak bereziki azken firu bat lehertu balio bezala bihotzean, gaizkiago zen biziki biharamunean. Gaua tzarra ereman zuen osoki, amets itsusi batzuez hartua bethi eta estalkiak noiznahi baztertzen zituela, gorri-beltzatzen ere jada hasia.

Jaun mirikua maixko han zabilan erakusterat emaiten ere zuen baino kexuago, sukar handiaz bethi ta gehiago grinatua:

«Bihotz hau ezin peaxa zindezaken, jaun mirikua. Sobra joa zen eta sobra barnatik hiru urthe luze hautan! Piarres, zatozkit hurbilago. Orogatik, badut zorion, nere ondoan baitzaitut. Ona izan zaite aitarentzat, Mariarentzat, zure haurrideentzat. Auzoak onak izanen zauzkitzu agian, bereziki hetarik bat! Othoitz eginen dut zuentzat, Piarres, Goña, eta badut uste Jainkoak entzunen nauen...» Eta Goñari amultsuki beha zagon hiltzera zoan ama ona.

Nigarrez ari ziren oro ganbaran; nigarrez Thomas, Piarres, Ganix, Gantxume, Frantxa, Xaneta... Gorri-gorria egina, nigarrez ari zen ere Goña.

Ttikituz bethi ta gehiago, bazoan aldiz eria.

Eta orai, azken othoitzaren erraiten ari, han zen berriz ere jaun erretora. Sainduen litania berezi batzuen ondolik, arima eder bat ezin hegaldatuz ari zen ohearen ondoan, adi zitezken munduko othoitzik ederrenak:

«Proficiscere, anima christiana... Zoaz, arima girixtinoa, zoaz mundu

huntarik!...»

Eta ganbara hartara deithuak ziren eta errekerituak Salbatzaile ona, haren Ama Saindua, Aingeruak, zeruko Sainduak oro. Debrueri manatua zitzaioten, Jainkoarenganat hola zoan arimari trebes ez zitezen eman bidean...

«Suscipe Domine... Jauna, harrezazu zure zerbitzaria... Libera, Domine, animam ancillae tuae!...»

Kurutzefikari musu eman zion eriak, eta gero, begiak hetsi zituen bere arimaren gainera.

Bederazka, bederazka heldu ziren etxeakoak oro, auzoak ere hala-hala. Eta, erramu hostoa eskuan, kurutzearen seinalea egiten zuten erramu harekin eta gero xirio benedikatuarekin.

Berriz oraino begiak zabaldu zituen Gaxuxak. Eta, belhauniko, nigarrez, ohearen ondoan zauden haurrak oro, xutiturik, joan ziren beren ama maiteari azken musu baten emaitera.

Nigar bi jali zitzaizkon orduan hiltzera zoanari, begi xoko-xokoan. Ezti-eztia hedatu zuen lanean higatu esku ximaildu bat. Esku hura eman zuen Thomas bere bethiko lagun maitearen ahurraren barnean... espos egunean bezala... eta haren arima zerurat hegaldatu zen, lehenagoko zonbeit eskualdunek ohi omen zuten bezala, teilatuan zilorik nehork egin gabe batere...

Belhauniko guziak othoitzean ari ziren, orduan berean Jainkoaren aintzinerat agertzen ari zen arima harentzat. Eta, ezti-eztia nigar egin zuen Mariek, amari bere erhiezu maiteki begiak hetsi ziozkalarik...

* * *

Lizartzako ama-alabek beztiturik, Oihanaldeko andrearen gorphutza han zen orai, luze-luzea ohearen gainean, bere bethiko arrosario higatuak eskuetan kurutzaturik. Mihise xuri eder batez estali zuten gero, bainan sorbalda-gainak eta burua utzi ziozkaten agerian. Bere mantelinaren barnean, hilak iduri zuen, orai, lokartua baizik ez zela. Eta zinez ederra zen tenore hartan Oihanaldeko andrea izana zen ama haren begitartea! Adinak, eritasunak egin zimurdurak oro itzaliak ziren, eztitasun handi bat heien gainerat betbetan hedaturik. Arima garbiak, jalitzean, han utzia, hirri maite bat bazabilan mathela-koskoetarik eta ezpainetara. Eta arima harek ikusten zuenaz osoki sosegatua, iduri zuen gorphutzak lo zagola deskantsuan, lo hartarik ez baitzen atzarri behar gehiago, Azken Judizioko atzartze handiraino.

Xira-hosto pullit batzu eman zituen gero Goñak mihisearen gainean edo hartarik dilindan. Xirio bat phiztua utzi zuen kurutzefikaren aldean, lonjera luze batez estali kadirarik ederrena, ur-benedikatu eta erramuak eman bertze kadira baten gainean.

Eta orai, hil-kurutzearen beha zauden oro, ixil-ixila, harrabots bat kasik ez zela sumatzen etxe handian, ez eta heian berean. Xuriko bakarrik saingaka ari zen edo hobeki nigarrez, han nonbeit, etxe-gibelean.

Hain xuxen, herrian, urrun-urrun, hil-zeinuak ari ziren hasperen batean, Oihanaldeko andrearen arima hegaldatua zela mezutzen ziotela orori eta othoitz bat galdetzen bizien arimeri. Nigarrez ari, Gantxume, Frantxa, Xaneta bazeramazten auzoek Lizartzara.

Eta, handik oren erdi bat gabe, kurutzeketariak —Lizartzako nusia eta bertze bat, bi lehen auzoak— aldapari gora heldu ziren, buru-has eta bat bertzearen ondotik. Sukalde handian hek sartzearekin, altxatu ziren oro, eta hil-kurutzea xutik orai zagon eta beltz-beltza, lonjera xuriaren gainean...

Handik laster, bi gizonak hil-mezulari bazoazin auzo-herrietara, jendakiari hil-berriaren helarazteko. Arte hartan, kapitia kurrituko zen kartierean, eta orok jada zakiten berria orotarar hedatuko.

Eta, adixkideak heldu ziren jada, inthari gora, othoitz baten egitera, han, ohe handian geldi-geldia zagon girixtino gorphutzaren aldean. Eta orok goresten zuten Jainkoak bereganat deithu zuen ama ona.

Bi plegu gina bere makilaren gainean, eta frango moldean emana, Maria

Betrisantz ere heldu zen. Eta hunkigarri gauza zen, egiazki, atxo gaixoa herrestan hola heldu baitzen bere ongi-egileari azken agur baten erraitera. Bainan, bertzeek ez bezala bethi egiteko, baratzeari kontra emanak ziren erle-kofoinen aldean iragaitearekin, gelditu zen eta, erdi goratik eta bere boz samina ezitzen zuela pitta bat, erran zioten erleeri «Oihanaldeko andrea hil zela, eta Marieren manueri behar ziotela behatu handik harat». Heiaren aintzinean mezu bera egin zioten Oihanaldeko alimaleeri; eta hedatu zen gero hilaren ondoraino. Erramua hartu zuen, eta, gorphutza zeinatu ondoan, bere makilaren gainean eskuak kurutzaturik, othoitzean ari zen: «Jainko onak bere lorian harturen zaitu, Gaxuxa, zeren bethi ona izatu zaren ni bezalako beharrentzat». Lehenagoko eskualdunek hola egiten ohi zutela, ongi nahiko zuen xirio xorta bat ixuri Oihanaldeko andre maitearen gorphutzaren gainera, gorphutz hura gogor geldi zadien eta oso kaxaren barnean... Bainan ez zen hartarat atrebitu; eta, ongi othoitz eginik, atheratu zen, galdeginez hatik «ahutara bat ile-orratz eman zezaten kaxaren barnean... Bazakiela harek zertako...»

Arrats hartan, auzoko bi gizonak zuten gau-beilatzea. Erdi lo, erdi othoitzean egon ziren han, ganbaran, xirio handia guttituz guttituz erretzen ari zela mahainaren gainean. Argi hura haizeak harrotzen zuen noizetik noizera, eta itzala orduan poxi bat mogiturik, iduri zuen hilak... mogitu zela mantelin beltzaren barnean. Oheko alderdira behatzen zuten orduan beilariak, eta, hitz bat gabe, tinkoago lotzen ziren gero beren arrosarioari. Zain bat ez zen mogitzen heien begitartean, hatsa bahitzen bakarrik eta doi-doiako bat... Xutitzen ziren biak eta ixil-ixila sukalderat joaiten, berotzera eta bardin edateko zerbeiten hartzera.

Biharamunean, igandea. Gure herrietan bethitik ohi den bezala, mezarik gabe etxean gelditu ziren Oihanaldekoak. Beztituak hala-hala ohearen gainean egonik, umatuak hantxet zauden guziak.

Arratsean, bere soineko ederrenekin kaxan eman zen hil maitea, eta ile-orratzik gabe batere. Lizartzako ama-alabak ziren beilari. Ikararik den mendrena gabe, othoitzean iragan zuten gau luzea. Gaxuxaz, Thomasez, heien haurrez gogoan osoki hartua. Eta bazen sukarrak Goañaren bihotzean, hilaren azken solasez, azken behatze luze hartaz bereziki orhoitzen zelarik...

Zazpi orenetarik laster, astelehenean, jendea abiatu zen Oihanaldera. Nehor ez igurikarazteko, kaxa eman zuten berehala athe handiari hurbil, bi xirioen erdian; ur-benedikatua aldiz eta erramu-aldaska, kurutzearen aldean. Auzo bakar batzu etxe-inguru hetan gelditu ziren, ahokoa iragan behar zen intha bazterrean. Bainan, bertzeak, gehienak, etxeraino heldu ziren. Kurutzearen seinalea eginez sartzen ziren guziak; ur-benedikatu xorta bat botatzen zuten kaxaren gainerat eta gero sukalde handian elgarretaratzen ziren. Ahaideak, beren doluko kapa handiak besoan, bazoazin, gizonak Oihanaldeko nausia zagon barnera, andreak aldiz Marieren ganbaralat.

Sukaldean, ahapetik mintzo ziren orai jendeak, Gaxuxaz, aroaz, kanpoaz. Egun hartako lanak bere gain harturik, harat hunat bazabilan Lizartzako andrea, gauza orori buru egiten ziotela Oihanaldean. Bertzalde, nahi zuen eta behar zen laguntza guzia bazuen auzoetarik.

Zortzi orenak ondoan ethorri zen jaun erretora. Kurutzeketariak bezperagoan ekarri supeliza-estolak hartu zituen Goañaren eskuetarik eta jauntzi berehala.

Oro ixilduak ziren Oihanaldean, kaxa benedikatu aphezak De Profundis erran zuelarik. Dolamen bat bezala aditu zen gero athe aintzinean: Exsultabunt Domino. Eta, Miserere mei Deus kantatzen zuela jaun erretorak, Oihanaldeko andrea bethikotz atheratu zen bere etxetik. Eta, athe handia zauri bat bezala idekia, ilhun-ilhuna gelditu zen etxe hura.

Aintzin-aintzinean, kurutzea eskuan, buru-has bazoan Lizartzako nausia, lehen auzoa. Haren ondotik apheza. Gazteagoak oro gerlan izanez, adin bateko sei gizonak bizkarrean bazeramazten kataotak eta kataotetan hil-kaxa. Bertze lehen auzoaren ondotik, lerro-lerro, bat bertzearen gibelean emanak ziren auzoko gizonak oro. Ahaideak bazoazin gero minduru, eta heien ondotik, Ganix, Piarres, Thomas, oro beren kapa handietan.

Lehen auzo gisa, arrosarioan ari suharki, andre-lerroaren buru buruan, heldu

zen Goaña Lizartzakoa. Eta, bat bertzearen ondotik hek ere —deusik ez baitzezaketen hola erran elgarri— bazoazin auzoko emaztekiak. Heien ondotik, beren kapaz estaliak, berriz ere minduruak: ahaideak oro, eta azken-azken, herrestan heldu eta ametsetarik bezala, Oihanaldeko Marie gaixoa.

Nigar-egileak bazirela lehen gaitzeru bihitan truk, Senperen eta Eskual-Herrian... Nehoren manurik edo dirurik gabe, nigarrez ari, baziren han frango, lerro luzean, bainan ixil-ixila eta zalapartarik gabe batere.

Eliza-dorrean berriz ere intzirez ari ziren zeinuak... Karrikarat heltzean, doi-doia gelditu zen ahokua: beattarak ekarria, han zen elizako kurutze zilarrezkoa. Plazatik eta bertze xokoetarik harat ethorri jende asko eman zen lerroan. Paxkal jaun mera eta herriko-gizon Thomasen lagunak han ziren hek ere. Hil-oihala ezarri zen kaxaren gainean; eta, bi kurutze handiak aintzinean, Hirugarren Ordeneko eta Ama Girixtinoen hil-oihalak hedatuak hek ere, karrikan harat, elizari buruz bazoazin oro, ixil-ixila bethi eta bata bertzearen ondotik.

Gizonak eman ziren eskuinetik, lehenbiziko selauruan; organoari hurbilenak... minduruak. Bere bihotz-minak zozotua, Ganixen eta Thomasen artean belhaunikatu zen Piarres. Nigar bat ere ez zezaken.

Beherean, kapadunak oro, lerro zabal batean, xaialen gainean hedatu ziren. Elizaren erdi guzia ilhun-ilhuna hartzen zuten kaxaren gibelean. Eta kaxa hartan, argi handiez inguraturik, ohore guzien erdian, hantxet zagon hainbertze urthez arima eder batek erabili zuen Oihanaldeko andrearen gorphutza.

Hilen ofizio edo elizkizun hunkigarria hasi zen eta guzientzat hasi. Senperen, —eta hala-hala egiazko Eskual-Herri guzian— ahokurat ethorri jendea elizan sartzeko eta elizan egoiteko ethortzen da; eta ez, sobra tokitan bezala, elizan sar-athera bat egin eta, karrikarat joaiteko edo bardin —abreki— ostaturat. Hil-eremaileak dira bakarrik zerbeiten hartzera doi-doia trikatzen, eta ontsa beharrez oraino, bazterrak zabal dituelakotz herri handiak.

Ebanjelio aintzinean, mezak eman behar zituzten ahaide eta auzoez bertzeak oro ofrendatu ziren, han, mahain sainduaren ondoan, musu emaiten ziotela kurutzeari aphezaren eskuetan, eta hogoi sosekoa gero eskaintzen zilarrezko untzian.

In Paradisum... Zerurat ereman zaitzatela Aingeruek!... Eta, eliza handia itsentsu usainez betherik uzten zutela, bethi molde eta lerro berean, bazoazin orai hil-herrietarat buruz. Hainbertze aldiz bera iragan zen bide hertsian, azken aldikotz bazoan Gaxuxa, gora-gora sei gizonen sorbalden gainean.

Harrizko kurutze handiaren oinetan ezarri zuten; bi aldetarik eman ziren aldiz guziak, hari gorthe egiteko bezala. Eta ixiltasun handi bat erori zen hil-herrietara, hila behin oraino mintzatu behar balitzaiote bezala guzieren. Thomas, Piarres, Ganix, Marie, hunkigarriak ziren beren kapa handietan, hala-hala ahaideak eta lehen auzoak.

Azken othoitzak erran ziren orduan, ezkila handia ilhun-ilhuna ari zela eliza-dorrean...

Eta, orai, kurutzea elizarat zoala, etxerat bazoan aldiz ahokua, Oihanaldeko andrea hil-eremaileen erdian han gelditzen zela, Gaxien zilo-egileak bere azken egoitzan hura eman artean. Hil-herrien gainetik, hegoaldeari buruz, uso-tropa bat bazoan hegalez zaflaka. Eta zinez iduri zuen, hetarik bat ari zela zeru-gainetarat igan beharrez...

* * *

Oihanalderat heldua zen ahokua. Guziak sartu ziren sukaldean, eta ur-benedikatua erhi-muthurrean elgarri emanik, othoitz bat erran zuten ahapetik. Goñañak paper batean ezarri zituen, berehala, Gaxuxaren gogo-arimarentzat manatu mezak oro. Eta, gero, barriatu zen ahokua.

Ahaideak, lehen auzoak, adixkide-min zonbeit oraino, bazkaiteko gelditu ziren, Lizartzako andreak Oihanaldekoen izenean hola galdeturik.

Bazkari laburrak egiten dire ehorzte-egunetako bazkariak. Gizonak alderdi batean eman ziren Thomasekin, Piarresekin; bertz-alderdian aldiz emaztekiak

Marierekin, Goañarekin. Solas zerbeit erabili zen, erdi-gorarik, goizeko elizkizun ederraz, Jainkoak bereganatu zuen etxek-andre maiteaz. Thomas gaizoak eta haren hurrek min guti egin zioten jatekoari. Begiak han nonbeit galduak, ixil-ixila zagon Piarres; gogo guzia amaren ondotik bazoakon, nehor bertzerik ez zuela ez ikusten, ez aditzen.

Aphairua bururatu zenean, xutitu ziren oro. Errekien bat erran zen gorarik, eta, handik laster, bakarrik Lizartzakoekin gelditu ziren Oihanaldekoak...

Hil-herrietan, zilo-egileak doidoia erabili lur metaren azpian, begiak hetsirik... bere etxeari beha zagon Oihanaldeko andrea...

XV AZKEN GUDUAK

Lehenbiziko igandean berean mezen irakustea egin zen, eta astelehenean gero, Senperen Frogua bethi deithu den bederatzaurrena. Ahokua moldatu zen berriz ere.

Bainan, Piarres ez zen han gehiago. Bihotza ilhunik, Alzazerat itzulia zen, manua zuen bezala. Handik laster, Auberiveko ondoan zen, Champañan, bere bihotzmin dorphearen azpian lehertua. Maite ere zutelakotz biziki, lagunak oro haintz urrikaltzen zitzaizkon, senpertar adixkideak guziz gainetik. Joanesek ez zakien zer egin bere Piarresendako. Laborari bat baizik ez zen garaztar soldadoa, bainan bihotz bat bazuen paregabekoa. Eta, solas alferrik gabe batre, bihotz hartarik heldu zitzaizkon ama baten mainak oro, haurride bat bezala maitatua zuen senpertarrantzat.

Egunak jin, egunak joan —ez baita halakorik— emeki-emeki, bizitzeari berriz lothu zen Piarres. Non-nahi eta bethi ikusten zuen ama harek berak hola egitea galdetzen ziola seguratu zen. Orhoitu zen, hiltzean, begiez erakutsi ziola nigarez haren aldean zagon Lizartzako neskatxa gazte prestua. Othoitzean ari heien bientzat sumatu bezala zuen ama hura, eta sosegu handi bat, indar berezi bat jautsi zitzaion bihotzerat.

Bertzalde, urri hartan guzian lanik aski emaiten zioten etsaiak, nehor sobra luzaz bere amets dorpeekin egoiteko.

Gauaz, egunaz, etsai hari emaiten ziozkaten hek ere sistako batzu saminak. Ez zen bere bihotzaren gainean lokartzerik. Ilhun beltzean, gauerdian, herrestaka en patrouille joaitea zuten noiznahi. Eta soldadorik hazkarrenek aithortua zen, bi bihotz bederen behar zirela, itsurat, kuku-mauka hola joaitea zutelarik. Den mendreneko harrabotsak iduri zuen orduan ortzi-azantza, eta erhimuthurrak ikaratzen ziren xixparen gainean... Beltz hura, hantxet, zer othe ziteken? Herrestaka heldu zen aleman bat? Ala zonbeit egun lehenago han erori lagun hura?... Eta hori ezin jakin, hil edo bizi, suge batzuen pare haraino herrestatu gabe!...

Eta gero, bost ilhabethez, urriaren ondaretik eta martxoaren lehen egunetaraino, Tahure aldean egon behartu zitzaiztelarik!... Berririk hitsenak heldu zitzaizkun Rusiatik. Lénine zelako giz-otsoak Kérenzki maleta iretsia zuen aspaldi, eta, arte laburrik barnean, saldu behar gintuen alemaneri, Brest-Litovskeko bake berezia heiekin eginik.

Rumaniak, gogo kontra eta Rusiak hura ere saldurik, bakea galdegin behar izan zioten alemaneri eta bulgaroeri.

Bainan, zonbeit hilabete hartan jada, heien untziak itsaso zolarat alemanek jautsarazirik, amerikanoak gure alde emanak ziren; eta burrustaka heldu ziren gure laguntzera, ehun milaka hilabete guziez. Gure adixkide italianoak hala-hala, gibelerat lehenik egin ondoan, bermatu beharrak ziren lasterxko eta hazkarki. Serbia hura ere, ez zen geldirik egon beharra. Han, iguzkialdean, Salonikako gure armadarekin batean, Guillaumat eta Franchet d'Esperey gure jeneralak aintzindari, bulgaroak lehenik eta gero turkoak eta autrixianoak setiatuko zituzten eta

azkenean azpiz-gora uzkaileko...

Bainan, etsaiaren azken oldarra, han, Reimseko ondoan behar zen lehertu, bertze uztailan berean. Eta lanean ari ziren Baionako soldadoak, lanean ixil-ixila, pezoin eta erreka handien moldatzen, aleman bala-erauntsien azpian hartuak, haintzur batek bertzea sekulan kaskatu orduko. Eta xitun egoitea zuten orduan guziek.

Noizetik noizera, etsaiari ihardokitzeko edo bardin haren urrunago haizatzeko, sobraxko hertsatzen gintuelarik, sukar gehiago izaiten zen oraino erreka-ziloetan. Eta orduan, —ez zenez bada gauza bitxia?— alegia eta deusik ez, aintzindari zonbeit, bethi ta bethi, gure eskualdunen ondorat heldu ziren, pezoin gainerat jauzian oro igan baino lehen. Eta hortaz jelostua bezala zen Garaztarra.

—Errak, to, Piarres, errazie, Mixel eta bestiak, sistako bat etsaiari eman behar den aldi guzian, gureganat bethi heldu baita gure lotinant hau... Zertako demuntre othe?

—Zertako? Joanes? Erranen daiat berehala. Hi bezalako gizon baten aldean hobe baita, —zer hel ere gudian— ezen ez eta perttoli baten ondoan. Eta hala-hala, beharbada, eskualdun gehienen aldean...

Eta, nahiz bakar bati ari zen, bere frantses ederrean eta aintzindariari hirri maltzur batean behatzen ziola begi bazterretik, hasi zen Garaztarra:

«Ah! bande dé baches, c'est commé ça!... Il n'est pas bête, toi!»

Xerri-gorria erranen zion bezala, erraiten zion hoi, erdi-ahapetik eta —bere ustez— arras maiteki.

Entzun othe zuen aintzindariak eta aditu?... Ez dakit; bainan, bethi, gehiago oraino hurbildurik eta eskuak orori tinkatuz, erran zioten:

—Je compte sur vous, mes amis, comme vous pouvez compter sur moi.

Eta Joanesek ihardetsi zion berehala:

—C'est très bien, ça, mon liéténant, nous férons possible...

* * *

Martxoaren hastetik eta hogoita sei arte, pausurat igorri zituzten Piarres eta haren lagunak. Alemanak ari ziren Parise izitu eta lehertu beharrez. Heien Gotha deithu burdinazko xoriak burrunbaka zabiltzan hiri-nausiaren gainean; Bertha alimaleen kanoi-pezak heldu ziren aldiz lotsagarriak, nehork oraino ez zakiela zoin urrundik.

Amerikanoak oro ethorri baino lehen, anglesetarik gu berexi beharrez, karraska itsusian abiatu zen etsaia; eta holaxet hasi zen, 400 kilometra eremutan, 6 miliun gizon borrokan eman behar zituen gudu handia. Amiens hiriari buruz abiatua zen alemana.

Anglesak gibelerat heldu ziren, erauntsiaren azpian hartuak eta lehertuak. Bainan, heien orde, frantsesak heldu ziren lasterrez. Eta Baionako soldadoak ere, kamionetarik jautsi orduko, han ziren, erasian jada heldu zen ogiaren erdian, Montdidieri hurbil trebes emanak. Douglas-Haig, Pétain, Clemenceau eta Poincaré elgarretaturik, Foch egina zen azkenean, angles, frantses, amerikano, belgikano, guzien buruzagi bakarra. Jainkoa gure alde ginuen beraz berriz oraino. Eta, auto-mitrailleuses berri-berrien laguntzarekin, Piarresek eta haren lagunak karraskan gibelerat jada bazeramaten etsaia, Montdidierko ondo-ondoraino. Bainan, zer egunak, zer gauak, ihurzuri mota guzien tartean!

Montdidier aldean gu hala thematurik, gelditu behar izan zitzaion beraz alemanari; eta —zuzen ere zen bezala— huna geroxago Baionako erreximenduari eman zitzaion ospea:

«Régiment animé au plus haut point d'esprit du devoir et d'ardeur combattive. Brusquement enlevé de ses cantonnements, transporté au loin et jeté dans la bataille au débarquement de ses unités, a, sous le commandement du colonel de France, combattu sans relâche, pendant trois journées consécutives. Le 30 Mars, a repoussé trois assauts de l'ennemi, maintenu, malgré tout, une liaison que tous les efforts de l'ennemi tendaient à rompre, repris ensuite l'offensive et refoulé l'ennemi, lui enlevant des prisonniers et des mitrailleuses.»

* * *

Eta bizkitartean, itsusienak ikustekoak gintuen oraino!

Amiens ezin beretuz, lehenago jada bezala, Calais hiri handi eta aiphatuari atrebitu ziren alemanak. Debaldetan.

Berriz, orduan, Pariseri buruz oldartu zen; eta maiatzaren 27an, Andereen-bidea hartua zuten, Soissons, Fère-en-Tardenois hala-hala eta Marne ibaierainoko eremu guzia ere bai. Ageri zen Baionako soldadoak ez zirela han gehiago! Compiègne aldetik, inguruan, Parise hartu nahi bethi alemanek edo bederen beren kanoien azpian eman! Berriz ere alferretan. Ludendorf heien jeneral nausiak egin zuen, Marne ibaiaren ondoan behar gintuela zafratu. Bainan, Jainkoa lagun, guk behar ginduen hura, bigarren aldikotz, han erhautsi. Fochek behar zuen ereman Marneko bigarren bitoria...

* * *

Apirilaren hamabortzaz geroz, Courcelle aldean ziren Baionako soldadoak. Hango xoko-moko guzien berri bazakiten. Eta, eriaroaren bederatzian, pozoin guzietz orratu kearen erditik etsaia betbetan athera zitzaioletarik, lehenago Verdunen bezala thematu zen Piarresen erreximendua. Zilorik ez zen behar gure eta anglesen artean, ez eta ere bertze nihon. Urhats bat gibelerat ez egiteko manua zuten; eta behatzen ere ez zuten gibelera.

Eta, bizkitartean, han Courcelleko elizaren inguruan, bat bosten kontra ari dira, ethenduak, leher eginak egiazki. Kanoi-peza motak oro ganean dituzte. Lau aldiz, baionet-sistaka gibelerat igortzen dute etsaia. Heien erdian, bihotz guzien berotzaile, bere buruari kontu emaiten ez diola, harat-hunat badabil Blazy aphez eskualdun ernea. Bai, zinez haren beharra izan dutela Baionako gizonek, hinka izigarri hartan, hirugarren egunean oroz gaineratik!

Hatsaren hartzeko bezala, noizetik noizera, beren omonier biphilari behatzen zion Joanesek, eta —ezin egonak hartua— marmar hasten zen, Piarresi erasian:

«Bana, debriak berekin tik gizon horrek!... Ez nuk harritzen, denek maite baitzuten, hantxet, Doniane Garazin bikari zelaik... Behazak; behazak!...»

Holako soldadoak ez othe ziren, bakotxa bost aleman bezenbat, gutienetik? Hala behar ere zen. Bertzenaz, eriaroaren hamekan, goiz-alderat iretsiak behar ginen! Etsaia gairidika heldu zen eta deuseren beldurrik gabe, bere kanoiak berak agerian eta ozarki hedatuz...

Eta, berriz ere, thematu ginen han; etsaiaren oldarra hautsirik, etsai hura sistaka gibelerat ere bagineraman. Odolez gorritu ziren bazter hek oro. Tenore batez, Manex eta Mixel hinka txarrean aurkitu ziren egiazki, beren aintzindari onarekin. Bainan, bi jauziz ethorria, han zen jada Joanes, gal-bidetik heien atheratzeko.

Eta gero, betbetan, zer loria, Piarresen eta haren laguneren bihotzetan, Mangin jeneralaren soldadoak Merryko kasko hetan agertu zirelarik, karraskan heldu beren tank izigarrien ondok, bazterrak oro erhausten zituztela, pezoin guzietz aztaparka lothuak, bethi aintzina gaki, traba guziak xirxikaturik! Zenbat gizon ez ziren han erortzen, zenbat ez zen uzkaitez burdinazko mustro hetarik, bere kanoi-pezak oro heien gainerat etsaiak itzulirik!... Bainan, etsai hori gelditua zen, errainak hautsirik; eta, nahi edo ez nahi, ez zuen Compiègnerat joaiterik aldi hartan oraino!... Bitoria, garhaitia, zaflaka guri buruz heldu, sumatu ginuen goiz hartan!...

* * *

Pausa zerbeit gibelean harturik, uztailaren hamabitik eta aboztuaren hogoita bortz arte, Vauquois eta Neuilly aldean da orai berrogoita bederatzigarren Erreximendua. Oihanpe handi batzuetan, lehen aldikotz eta ondo-ondoan, ikusi zituen amerikano soldado gazteak; eta bihotzak arindu zitzaizkoten orori: odol

berria sartzan ari zitzaizoten alabainan, hazkar eta garbi.

Han, hala-hala, izaia ederren azpian, jakin zuten Courcellen heienan ja heldu zen garrantia, burrunbaka orai hedatzen ari zela eta alderdi guzietara. Egun hetan, zehe-erdi batez bederen handitu zen Joanes Garaztarra, bere handiaren gainera...

Gure aldi zen beraz orai. Gure Foch handi paregabeak, angles, amerikano, ororenganik nahi zituen laguntzak azkenean eskuraturik, bere aspaldiko asmuak bururatu behar zituen. Tankako bat hemen, tankako bat han, bertze bat hantxet eta hantxet oraino, koskatu behar zuen etsaia, eta, azkenean, lau hatzez gora arthiki.

Uztailaren 15ean, Châlonerat buruz, karraskan berriz oraino abiatu zen beraz etsai hori. Bainan, bardintsu ziteken harroka bati joka arizanik; eta Gouraud jeneral begi-erneak, ixil-ixila eta tenorez bere gizonak gerizan emanik, erhautsi zituen hantxet, Reimseko ondoan.

Hemezortzian, gero, Mangin abiatu zen, Aisne ibaietik Ourcq ur-handira, 20.000 presoner barrastatzen zituela eta 400 kanoi hala-hala.

Eta Fochen manua bazoan bazoan, bethi hedatuz. Hogoiean, de Mitry jeneralaren aldi zen, Dormans aldetik. Gero, Berthelot aintzina, bethi aintzina badoa ondoko egunetan.

Aboztuaren 8an, Debeneyren aldi; 12an Humbert jeneralak Montdidier-tik eta Oise arte guzia iresten du. Mangin berriz hasia da zanpaka, aboztuaren azken egunetan, Aisne eta Ailette ibaien tartean. Hala-hala anglesak, Bapaume aldean.

Buruilan, hainbertze aiphatua zen Hindenburg pareta alderdi guzietarik setiatua zen.

Hamahiruan, amerikanoek, sistako samin batean, Saint-Mihieleko ethendura edo sabel-xumettoa hartu zioten etsaiari, eta Jainkoaren lorian! Amerikanorik bazenez edo ez zenez guduan, gaurgoiti bazakiten alemanek, zonbeit aste hartan jada...

* * *

Tapaz-tapa, oinez bazoan bizkitartean Baionako erreximendua. Hura gabe, deus ez ziteken egin onik sekulan.

Rethonden barna, —han, geroxago, bakearen galdez agertu behar baitzen alemanen bandera xuria! —buruilaren 16ean, Neuville aldean zen, hil eta kolpaturik baizik ez baitzen han-gaindi.

Eta guduari lothua da berehala. Bere Hindenburg errekarari bizkarrez dagola, bas-urdearen pare hantxet, thematzen da etsaia, fur-furian heldu ere zaukula noiznahi. Durquet kapitain-aphezaren konpainiari hazkarki atrebitzen da, 18an, goizeko sei orenetan. Toki onean ari zen! Erhautsi zuten gure mitralleuzek...

Ondoko egunetan gero, hala-hala. Zehe bat lur ez zion batek uzten bertzeari. Hogoita hamar urhatsetan ez ziren elgarri! Zilo batetik bertzera bethi jauzika, xoko guzietarik herrestan atheraiak bethi eta borrokan lothuak. Hogoia eta bortzean, sekulako kanoi pezak heldu zitzaizkion erauntsian, 105 eta 150 ikaragarriak; ez Verdunen, ez Craonnen, ez Courcellen, peorragorik ez baiginuen ikusi. Zer egunak, oraino, biharamunean eta biharamunagoan, zer sistakoak, guretzat nola alemanentzat! Bethi gudua, eta nihun sosegurik ez sekulan!...

Hogoita zortzian, etsaia parrapataka bazoan; gureak ondolik zituen berehala, Pinoneko oihanean barna, kanal-errekaren bazterreraino jauzian ethorriak. Oihan itsusia, zikina, dena matrikula, dena amarru. Hil edo bizi, behar ginduen urrunago; han ez ziteken egon.

Urriaren 12an, zaku eta taula tzar batzuen gainean erreka iraganik azkenean, ohartzin ginen berriz ere, uko egin zaukula etsaiak. Gure loria! Arratseko, Montarcenen ginen, herriz herri hamabost bat kilometra eginik. Haia, haia, urrunago ere joanen ziren Garaztarraren ixtape alimaleak, «Halte-là!» berriz ere alemanek ez baliote oihu egin, Hunding pareta kaskoaren gainetik.

Bertze erreximendu-lagunak baino ere aintzinago joana zen berrogoita bederatzigarrena. Hantsa doi-doia harturik, biharamunean berean, jauzi jauzi,

baionetean, beretzen ditu Mont-Fendu deithu bixkarra, bertze mendixka batzu oraino, Barenton-Cel herria. Bazter guziak sutan dire eta uzkailliak. Gerrirainoko urean asko gizon sarturik, Hunding erreka setiatzen dugu ondoko egunetan; urriaren hogoita bigarren eguna gabe, Verneuil, Barenton-sur-Serre guretzen ditugu, guharen kanoi-pezak bezen laster bethi joanak etsaiaren gainera...

Azken azken fur-furietarik batean, —hala beharra, egiazki!— burdin-ziliporta batek belhaun-sahetsean hunkiturik, erroz gora hantxet erori zitzaioten... Joanes Garaztarra... Izituak jada, lasterka bazoazkion Piarres eta haren lagunak. Bainan, ahalketua puska bat, zankez bera xutitu zen Joanes, eta hirriz erran zioten:

«Zer den haatik haundi izaitia! Beste bat triparen erdian hatzemain zian ziliporta horrek... Belhaunerat doi-doia heldu izan ziaq eni... Aphalegi ari zitian, aphalegi! Piarres, emanazaak hire mokanesa; enia Courcellen utzia diat edo han nunbait, ez nuk xuxen ohoit... Horra, to, odola gelditia. En abant martche!...»

Zorionez, ez zuten urrunago joaitearik. Etsaia 25 kilometretan barna beren aintzinean eremanik, eta traba guzien gainetik, ez othe zuten aski bederen eginik? Bertze erreximendu bat heldu zen, heien orde han hedatu baitzen berehala...

Urriaren hogoita laua zen.

Eta Baionako soldadoak, sei astez Laon aldean hala itsuski gudukururik, bazoazin pausarat, leher eginak, zangoetarik eta kaskorat lohiz estaliak, zikinetan ederrenak janak, iretsiak. Alemanek zonbeit aste lehenago hartu nahi zauzkun eremuetarat, Compiègne alderat jautsi ziren, gerla handi luzean sekulan izan diren baino ederrago miletan...

XVI SAN MARTIN!!!

Suizatik eta Nort'Itsasora, ikaran, gur'aintzinean,
Etsaia, xixpak bizkar gainea, gineraman azkenean!
Gure Foch gaitzak zafratzen zuen lehengo Marne ibaian;
Castelnau oldar izigarrian, saltatzera zen abian...

Eta gero, San Martin goiz batez, oi gu ororen loria!
Lau urthez entzun orro handia betbetan zen eroria!
Clemenceau zaharra erhotu zen, erhotu Frantses Herria,
Elizan, ezkilen zalapartaz dardarikatu dorrea!

J.B.

Piarresen erreximendua hola gudu izigarritan ari zen artean, eta gero, noizbeit, ongi beretua zuen deskantsuan hantxet zagolarik, angles, amerikano, frantses, belgikano eta bertzeak ez zaudan bada geldirik! Champañan, Argonan, Ipar-aldean, karraskan bazoazin aintzina, bethi eta orotan aintzina. Dixmude, St-Quentin, Lens, Armentières, Brimoneko gaztelua, Moronvilliers aldea, Cambrai, Le Cateau, Andereen-Bidea, Vouziers, La Fère, Laon, St-Gobaineko inguruak oro, Lille, Douai, Ostende, airez aire hartuak ziren. Itsasoan, gaina ginuen. Buruilaren ondarrean, bulgaroek bakea galdetua zaukuten. Urriaren bortzean jada, alemanek, autrixianoek, hats-hartze labur bat bederen eskatua zuten. Feratu ginituen. Eta, hilabete beraren azken egunetan, Turkia gure meneko zen, bakearen galdez hura ere. Eta gero, hazilaren hastean, autrixianoen aldi hala-hala...

Eta gaitzeko berri horiek oro, sankasanka, bat bertzearen ondotik, beren pausa-tokira heldu zitzaizkoten Piarresi eta haren laguneri, bihotzak oro erhoturik ezartzen ziozkatela.

Bas-urdea ihiztarien aintzinean bezala, orok bazterrerat eta bakarrik utzia, gure aintzinean, burua aphaalik, gogoa ilhunik, ihes eta ihes bazoan alemana, gauaz egunaz ere baino zaluago. Non ziren lehenagoko kopeta ozarrak? Zer eginak othe?... Jainko-zaharra non othe zagon, heien alde gehiagorik agertu gabe?

Eta Lurdeko Ama Birjinaren burlatzaileak bazoazin beraz, gu guzien aintzinean ihesi! Lehertuak, ezinduak, non azkenean eroriko ziren?

Argona guzia galdua zuten, galduak Valenciennes, Rethel, Vervins, Tournai, Avesnes, Maubeuge, Mézières, Charleville...

Gorago erran frantses, amerikano, angles jeneral gaitzekin, izendatu bederen behar ditugu hemen bertze zonbeit oraino: Pétain, Fayolle, Anthoine, Maistre, Degoutte, Douglas-Haig, Rawlinson, Byng, Horn, Pershing. Bai, muthil zinez onak zituela Fochek bere aldean, harek manatu bezala oro kaskaka ari eta sistaka, munduan izan diren soldado hoberenekin.

Nihon ez ziteken gehiago onik alemanarentzat. Miliun erdi bat eta gehiago gizonekin, Castelnau handia, han, Lorraine aldetik jauzian atheratzera zoan, Metz hiriaren bi aldeetarik, Alemaniari buruz; beharbada... Berlin hiri nausiari buruz!...

Eta, lephotik hola etsaiaren hartzera ginoazilarik eta urkatzera, hor, hazilaren 11an, San Martin goiz eder batez, jakiten da berri espantagarria: etsai hori belhaunez lurrerat eroria zen eta bakea galdetzen zeraukun! Berrogoita hameka ilhabete luzeren buruan, begiak sutan, hegalak zaflaka, Frantses Oilarra, alemanaren gainerat iganik, kukurukuka ari zen: Sellier kaporal-turrutaria, zainak atheraturik, ez dakit nik zenbat eta zenbat gudularieri, hatsa galdurik ari zen:

«Cessez le feu! Levez-vous! C'est fini!»!!!...

Lau urthez entzun gerlako orro handia betbetan ixildua zen, St-Mihieletik eta Ostenderat! Eta ixiltasun hortaz harritu zen lur guzia!

Piarresak, Joanesak, bertzeak, jakiten zituzten orduan berriak oro; eta erhotzeko ere bazen egiazki.

Beren ahalkea ilhunbez estali nahi izan balute bezala, argia gabe, hazilaren 8an, alimaleko bandera zuri bat lehenbiziko berebilaren gainean emanik, jin ziren beraz alemanak. Lhuillier frantses kapitain gazteak hartu zituen han, gure lerroen muga-mugan; begiak itsutu ziozkaten, eta, xoratua, bazeramazkan Debeney jeneralarengana.

Eta, Rethonden, wagon edo gurdi handian, Fochen aintzinean ziren orai bake galdez ethorri eskelariak: Winterfeld jeneral lerdena... bi plegu bildua, Erzberger lodia... ttiki ttikia egina, Obemdorf eta bertzeak, oro xuri-xuria eta ikare-daldaretan.

Weygand jenerala alde batetik, Rosselyn-Weinyss angles amirala bertzetik dituela, Foch bere begi argi eta garbiekin heieri beha dago. Jauzi bada tenore hartan haren bihotzean!... Zapart eginen ere ez othe dio bihotz horrek?

—Que demandez-vous?

—On vient recevoir les propositions des Alliés.

—Les Alliés n'ont pas de propositions à faire.

—Soit. On est prêt à écouter les conditions de l'Entente.

—Question préalable: Demandez-vous l'armistice?

—Oui.

—Dans ce cas, écoutez...

Eta mailu ukaldi batzu bezala, alemanen gainera erori ziren gure galdeak: Rhin ibaia iraganik, frantses lur guzia utzi behar zuten berehala, utzi behar Belgika, Alzaze-Lorraine aldeak oro; kanoiak, mitralleuzak, aireko xori-burdinazkoak, burdin-bidetako tresnak milaka eman behar, gelditzen zitzaizkoten itsas-untziak hala-hala. Rhenania guzian hedatuko ginen aldiz, eta behar zen ephe guziarentzat, frantses, belgikano, angles, amerikanoak... Hiru egun hartu zituzten, gogoeten egiteko.

Eta, San Martin goizean, buruak aphaltik berriz ere Fochen aintzinean, oro onhesten zituzten aleman bake-eskelariak.

Bertze galderik ere onhetsiko zuten beharbada oraino. Erreboluzioea zuten han, Berlinen eta bertze hiri handietan; Suizarat jada Autrixiako Enperadorea bezala, Guillaume... Holandiarat eskapatua zuten... Miliun erdi bat aleman preso egiten ahal gintuen, Clemenceauri Fochek berak erraiten zion bezala... Bertzerik galda ginezaken beraz oraino.

Bainan, hola Berlineraino gu joaitekotan, galtze itsusien azpian gerlan artzea zen zonbeit astez oraino... Berrogoita hamar mila gizon galdu behar gintuen

guhaurek. Eta bihotz bat bazuen gure Foch handiak. Girixtinoa zen; eta, gainerat, —ongi edo gaizki— iduri zitzaion, odolik aski bagindueta ixuririk eta aitamarik aski bazela nigarrez ari bazterretan. Ongi ezin-bertzean, eta bakea nahiago zuelarik, ari zen gerlan. Jeanne d'Arc-i lehenago bezala, damu egiten zion frantses odolak...

Etsaia lurrean zen; eta Fochek, bere ospeaz grinarik gabe batere, gizon bati gerlak sekulan eman ditzan indar eta ahalik handienak ahal-ahala eskuetarik erortzerat utzirik, geroan zer erranen ere baitzuen etsai harek, San Martineko bakea eman zion. Mulhouse, Strasbourg, Metz sartzera ginoazin...

* * *

Baionako gerlarien loria zerbeit bazen, han, beren pausa-tokian! Zuri-zuria bulta bat egonik, aintzindari eta soldado, oro ari ziren orai zoko guzietan, jautzika, dantzan, elgarri lothuak besataraka, betbetan erhotu balire bezala. Erreximenduko musikak oro zapartaka ezagun ziren, ezker, eskuin, orotan.

Beren xirula debru batzu atheraturik, ez dakit nik nundik, Barkoxen, Atharratzen, Sohotan eta Mendikotan, edo Ahunxki-mendin bezala, dantzan tira-ahala ari ziren xuberatarak, zinka zinkaren gainean dardarrikaraziz.

Joanes Garaztarra ere nahiko zen trikatu pixka bat. Bainan belhaunak min egiten zion oraino... Orduan, erdi-mainguka joan zen guzien erdira, eta oihuka hasi:

«Xuberatar zinkaren ondotik, huna orai baxenabartar irrintzina.»

Eta, bere ahur alimalea ahoaren inguruan bildurik, ai, ui, ui, ui, ui, ui, ui... egin zuen irrintzina bat izigarria, hilak pitzarazteko irrintzina. Aintzindari, xuberatar eta bertze soldadoak, oro espantituak gelditu ziren, eta gero esku-zartaka hasi guziak.

—Horra, Piarres. Errana naukan, irrintzinaka ariko nintzala berriz oraino... Boxek ez balinbaute hori entzuten, ez duk arras ene oben. Zertako joanak dire ihesi, eta hain urrun?... Guazen musian partida baten itera: biga bier, lehen-seietarik. Beste irrintzina... inen dat orai, etxerat lé pié droit en aban joain girelaik...

—Ba, goazen musean: Mixel eta hi, Manex eta ni, afaria noren gain. Eta gero, omonierak galdegina daukun bezala, eskualdunak bederen bilduko gaituk, Jainkoari eskerren bihurtzeko. Galdearen egiten bezala, behar ginikek ikasi... milesker erraiten.

* * *

Zortzi egun iragan zituzten gero xoragarriak.

Piarresi berriak ethorri zitzaizkon anhartean herritik; molde guzietako berriak. Gripa tzar bat ari zen, aspaldi hartan bazter guziak jada xahutuak baitzituen Senperen, mundu zabalean bezala. Ez gauaz, ez egunaz, nihoiz ez zen sosegurik mirikuarentzat, erretorarentzat. Eta, gerla guziak bezenbat jende eremanik bazuen, hurbil, eritasun tzarrak. Etxe batzuetan, familia guzia ohean gelditua izanez, auzoak izaiten ziren arthatzaile. Orok berogia behar eta, oro ohean izanez, —nahi eta ez— mihisek, estalkiek, garbitasunak berak eskas egiten zuten asko xokoetan; sendagailuek ere ba, zorigaitzez! Azken mugaraino, eriak bazauden gorri-gorria, pullit-pullitak kasik. Eta haurrideak ohartu orduko, edo bardin, hek ohartu ere baino lehen, txartuak ziren, hilak ziren. Etxe beretik holaxet, Hergarai kaskotik, hiru kaxa athera ziren egun berean, Sarako aphezak, lerro-lerro, betan ehortzi baitzituen, bezperan herriko erretora bera eriturik, eta zer eta nolako egunaren ondotik! Sua ari zuen bazter guzietan, lurretik, airetik.

Gauaz, hedoiak gorri-gorria zauden eta idor-idorra, den mendrenik hezatu gabe. Eta, gerlako berrien gainera, jendea izitua zen orai heriotze hetaz guzietaz; hainbertzetaraino izitua non ezkilarik ere ez baitzen gehiago jotzen kurutze-eremaileentzat. Ehorzte egunekoak ere jada zerbeit baziren...

Zorionez, Jainkoak iduri zuen, urrikaldua zela orai gain hartan. Jaun erretorak hala galdeturik, herri guziak barur egin zuen ortzirale batez, eta

kurutzearen-bide bat egin zen, mundua lehiatu baitzen hartarat. Egun hartan berean, gerlako azken gudueri buruz, eritasun tzarrari buruz, Ama Birjinaren iduri eder batentzat behar zen diru guzia nasaiki bildu zen. Fede gutti-gutti bat baizik ez zuten arrotzak berak zoin-lehenka emaiten arizan ziren, botuz eskainia zen Ama Birjina harentzat. Nehork ez hil nahi alabainan, neholere ahal balinbazen!... Eta — ez zenez mirakuilua?— arrats hartan berean gelditu zen izurrite ikaragarria, senpeter bihi bat ez baitzen gripatik joan orduz-geroztik, auzo herrietan oraino nigarrez ari zirelarik...

Eta, berehala manaturik, han zuten orai Ama-Birjina ederra, Senpereko aphiku-azpian. Bere ama maitearen besoetan, gerruntzeraino troxaturik, Jesus-Haur muñuñia bat, besoak zabal, ooren beha hantxet zagon, ooren laguntzeko. Eta oro heldu ere zitzaizkon, zangoetako erhi ttiki-ttikiak musuz jaten ziozkatela. Eta, huna iduri ederraren azpian, bethiko orhoitzapen emenak ziren hitz hunkigarriak:

Senperek
Bere Amari
Botuz Eman
1918
Gerla Handia Zen,
Soldadoak Dauzkutzu Begiratu.
Oro Eri Ginen,
Eta Eriak Dauzkutzu Lagundu.
Mil-Esker Ama!
1918

* * *

Eta ondotik, gero, emanak ziren San-Martinetako berri hunkigarriak. Gertakariak oro elizan ikasirik, herri guzia beha zagon noiz ezkila handiak hasiko ziren eliza dorrean.

Goiz bat xoragarria zen, zeru bat lilluragarria, Senpere guzia zeru hari beha baitzagon, aingeru bat han agertu behar balitzaiote bezala. Ahetzeko ezkila samina ari zen, ari ere Sarako burrunba. Baionako bunbak, Donianeko tiro-zalapartak ezagun ziren. Eta, betbetan, bederatzia irian, duda-mударik ez zitekela gehiago oro seguratu ondoan, hasi ziren Senpereko zeinu handiak! Hasi ziren, hasi, eta... arratsaldeko bost orenak arte ez gelditu gehiago! Dorre guzia ikaran eman zen, ikaran eliza, ikaran herri guzia. Bihotzak jauzika ari zitzaizkoten orori. Landaren erdian, —ahalkerik gabe— belhaunikatu zen laboraria, eta lanbro bat jin zitzaion begietara. Etxe xurietan, kurutzearen seinaleak egin ziren ehunka, eta athe-alarzera, lorio azpira athera ziren ama, haurrak, aitatxi-amatxi xaharrak. Hatsik gabe eginak, beharrik baizen ez zuten, eta ezkila handieri beha zauden oro, bost urthe hartan igurikatzen zuten musika harek xoratuak eta xoxotuak. Haurrak berak geldi-geldia egon ziren bulta bat, eta gero jauzika abiatu eta putinka, sorrerat eskapatu pottoka batzuen pare... Hiru hogoi eta zonbeit etxetan, bizkitartean, nigarrez ari ziren, zeren heien 72 hilak —hetarik zonbeit doi-doia hoztuak oraino— ez ziren etxerat itzuliko!!!

Nehork deusik erran gabe, arratsean, sekulako jendea bildu zen elizarat. Eta, loriatua erraietaraino, jaun erretorak Jainko Handiari erran ziozkan guzien eskerrak. Gero, kraskatu zitzaion mintzoa, eta nigar batean, denek othoitz egin zuten gibelerat jinen ez zirenentzat eta heien burhaso, haurrideentzat.

Eta, lehen aldikotz, gerlako grinarik gabe gehiago lokartu ziren Senperen... eta lur guzian hala-hala!...

Ondoko egunetan gero, bazen oraino zorion herrian. San Martin goizeko ezkilak bethi ari ziren ooren beharri barnean. Hainitz inharrosia izan den bihotza ez da emeki-emeki baizik sosegatzen, harri handi batek zafratu ur-geldia iduri bailuke.

Aldaira guti zen urthe hartan Senpereko lau bazterretan. Etsaiaren aldaira

handia aski zitzaioten gehieneri. Eriak sendatzen ari ziren; lau urthe luzez zangopetan etsaiak atxiki eta ostikatu lurra oro guretuak gintuen, eta bozkarioak gaindi egiten zaukun noiznahi, non-nahi. Eta Mariek bere letraren barnean igorriak, Piarresen eskuetan zauzkan Senperen lorietan jada errepikatzen zituzten koplak hauek:

BIBA, BIBA FRANTZIA!

Errepika

Biba, biba Frantzia,
Frantzia maitea,
gaurgoiti duk utzia
nigar egitea!!!

1

Bortzgarren urthean,
goiz eder batean,
hazilaren hamekan,
San Martin goizean,
etsaia aldairan
bazoan... lasterretan!

2

Zerua eder zen;
orok disdiratzen;
airean zerbait bazen!
Deusik ez sumatzen,
haler'ikaratzen,
ez dakit zer goaitatzen!

3

Eta hor, betbetan,
eliza-dorrean,
ezkila zalapartan!...
Ene bularretan
bihotza saltokan,
zapart egitekotan!!!

4

Orduan berean,
alderdi orotan,
Eskual-Herri guzian,
Frantzia maitean,
mundu zabalean,
ezkila ari zian!!!

5

Oi! hori musika!
Jainkoa, zuk barka,
eman naiz belhaunika!...
Ezkila, ar joka,
itzul eta pika,
jozak, jo errepika!

6

Gerlaren hastean,
egun aphalean,
jo huen intziretan;

gerla gelditzean,
egun eder huntan,
jozak alegrantzian!

7

Ez nauke tokian;
zangoek airean
nabilkate larrean.
Nere zintzurrean
oihu bat, orroan,
zapartatzera zohan.

8

«Gora Jainko Jauna,
o bai zu lehena
aiphatu beharrena!
Biba zu Am'ona,
Lurdeko Birjina,
gure alde emana!!!»

9

«Gure Clemenceauri,
gure Foch gaitzari,
gure soldadoeri,
gur'adixkideri,
gure hil maiteri,
ohore guzieri!!!»

J.B.

Eta Piarres, Mixel, Manex, Garaztarra eta bertzeak, persu horien ikasten ari ziren, ahamenean oro lothuak. Eta, gogoz eta bihotzez, berriz ere han ziren gure gudulariak, Eskual-Herrian, haize hegoari hedatuak, xuri-xuria ikusten zituzten beren etxeetan...

XVII PIARRES-GOÑA

Denbora bazoan bizkitartean. Tapaz-tapa, berriz ere abiatu zen berrogoita bederatzigarrena, eta berriz ere, bigarren aldikotz, Alzazera; bainan, astiro bazoan eta luze-luzea.

Urtharrilaren 15ean, Mulhouse hirian zen. Banderarik eta lorerik baizik ez zen, nondik jinak ere baitziren loreak negu bethe-bethean. Pinpirinan emanak, hango jendeak oro gainean zituzten, frantses soldadoak baitezpada besarkatu beharrez. Apez zahar bat, berrogoita hamar urthez egun eder haren beha bethi egon ondoan, hil-gogor hantxet erori ere zen betbetan, bere erretor-etxearen aintzinean, bihotzak sobera gaindi eginik.

Castelnau jeneral handiak eman zioten sarietan ederrena: la fourragère aux couleurs de la Médaille Militaire. Gain-gainetik goretsi zituen Baionako soldado paregabeak, eta heien oinhazeak erran gora-gora, gerla handiko lehen egunetik eta iragan urriaren azken egunetaraino. Eta nigar bat baino gehiago jali zen, guduz-gudu hainbertze horma eta iguzki ikusi zuten begi hetarik. Dena zilo, dena urratua, iguzki-haizeari zaflaka ari zen Erreximenduko bandera, Belgikatik eta Reimserat erori gizonen arima-gogoak han izan balitu bezala, bere pleguetan bilduak...

Eta gero, arratsaldean, arratsean, zer bozkarioa orotan! Farra farra, alderdi

guzietarik sumatzen ziren Alzazeko floka beltz ederrak. Edaria bazen nasai, ithotzerainokoa; jatekoa, tira eta tole. Musika, beharrez gainetik: xirula, zinka eta irrintzina.

Musean arratsalde guzian arizanik eta kantuz, unhatu zen azkenean Joanes Garaztarra. Toki hartako jende guzia jauzteka ari ikusteaz asexea, burlan hasi zen baxenabartarra:

«Behazak, beha, atxo horri! Dolu minian dela, bere soineko beltzarekin, ez duk hor haratik ez hunatik. Eta bizkitartian, nihun ez diaok jauzika! Debru ergela! Atzo nigarrez, egun zapartaka. Gisa hortako nigar-iliak ba omen zitan lehenago gure eskualdetan. Jutsin, ehorzte batian, gaitzuru bat bihitan truk, hetarik bat hari omen zian behin oihuka:

«Hu, hu, hu! Nik inen dut ba, hu, hu, hu!

Bainan ez jakin gaitzuruia izain dutan arrada ala mukurru?...» Bihotzmin handia zikeian eta barnetikakua! Atxo horrek bezalatsu, nunbait han!...

Beste aldi batez, Heletan naski, nigar-ile horietarik bat hari omen zian hari, mundu huntan in-ahala gora: hi, hi, hi, eta ha, ha, ha!

Untsa kexatu zelarik, jaun ertorak igorri ziakoian beretter bat, sobera gora hari zela erraiteko.

Sobera gora?... Ahalago hariko nizala errakok beraz!...

Zinezko santsana!... Guazen oherat, Piarres. Hori diuk hoberena. Burrunba horrek guziak zozotia ere nik! Bonsoir tout lé monde!...»

* * *

Hilabeteak bazoazin berriz ere, deskantsurik hoberenean, han, Rhin ibaiaren ondoan, Saint-Louis-n, Huningueko zubi buruan, Bâle Suisako hiri handia parrez-par zutela bertze aldetik.

Aste Saindua jada hurbiltzen ari zen, eta Joanes hasia zen bere laguneri galdeka, Erramuko igandearen ariazedo ohoretan, zer emanen zioten berririk soinean emaiteko:

«Gure amak, herrian, ez zian Erramurik utziko, bere haurrer zerbait puska berri eman gabe, espartin-pare bat baizik ez balinbazen ere...»

Hobeagorik eman zioten, eta, egun hetan beretan, permisionez azken aldikotz, herrira bazoazin gure bi adixkideak.

Eta Aste-Sainduz, etxean zen berriz ere Piarres. Loriatu zen, aspaldiko orde, Senpereko elizan baitzen egun handi hetan. Bere Bazkoak egin zituen Ortzegun-Sainduz, ehunka selauruetarik jautsi gizon heien guzien erdian. Jainkoak daki zenbat urthe hartan Senperen egiten ohi den aldare handi bereziaren aintzinean belhaunikatu zen, Sakramendu-Sainduaren eta Kurutzearen adoratzeko; eta, Bazkoz, gero, berriz joan osti xuriaren hartzera, jende guzia kantu-errepikan bethi bezala ari zelarik:

«Arropa xuri ederra, Jaun onaren ohoretan,

Jende onak, jauntz dezagun boskarioz, Bazkoetan!»

Kantu hunkigarria zinez, zaharra bezenbat ederra, sekulan baino ederragoa gudu luze heien guzien buruan! Jesus bezala, phiztuak ez zirena egiazki Piarres eta haren lagunak?

* * *

Bainan, berak uste baino zorion handiagoa ere behar zuen gure Piarresek. Erreximenduak oro sobra betan ez murrizteko, klasa klasaren ondotik alderat igortzen ziren gudulariak.

Zorionez, bere permisione luzea bururaturik, hamar bat egun baizik ez zuela bardin egiteko, manua jin zitzaion: Baionarat joaitea zuela bakarrik, gerlako berekin zituzken puskak han uzteko.

Eta bi jauziz jo zuen beraz Baionarat. Bere Joanes han aurkiturik, harekin eta bertze lagun batzuekin egun bat goxoa iraganik, garaztarrari Oihanaldean lasterxko itzuli bat eginen zuela hitzemanarazirik, Senperen zen berriz ilhuneko.

Lorietan eta zangoak arinik itzulia zen, arinago oraino bihotza. Gerlarik ez zen harentzat gehiago! Hogoita zortzi urthe zituen! Izar bat hantxet, zeru-urdinean, hirriz ari zitzaion, Craonnen lehen aldikotz doidoia agertu izar hura eta bera! Eta izar harek... Lizartzako Goañaren iduri handia zuen, Craonnen ere baino gehiago...

Eta, Oihanaldean sartzearekin, Baionan Joanesez erran solasa hirriz heldu zitzaion gogora:

«Erna hadi gero, Piarres! Bestenaz, nihau aintzinduko nitzauk Garazin...»

* * *

Biharamunean berean, aspaldi hitzemana ere zuen bezala, eskerren bihurtzen, han zen, herriko elizan. Gerlarat joatean bezala, gerlatik itzultzean, bere eginbide berrieri buruz, Jesus hartu zuen bihotzean, eta hazkarrago sumatu zuen bihotz hura.

Hil-herrietara joan zen gero, eta bihotza ilhundu zitzaion han sartzean. Orhoitu zen, aintzineko urthean, han, kurutze handiaren onetan utzi zuela bere ama gaixoaren gorphutza. Bainan, gero, Oihanaldeko hil-hobiaren aldean, sosegatu zen berehala. Xutik, buru-has, arrosario bat osoa erran zuen, eta iduri zitzaion, begi on batzuekin hari begira egoki, ikusten zuela ama hura.

Eta orhoitu ere zen, behatze maite hura bera egin ziotela Gaxuxak Goñari eta bieri, Jainkoarenganat jada bazoalarik. Orduko mezu bera ez othe zion egin nahi orai ere?...

Kurutzearen seinalea eginik, atheratu zen hil-herrietarik, eta gogoetetan bere buruarekin, bazoan berriz, noiz eta ere ithurrotxaren ondorat heltzearekin, pegar bat eskuan harat heldu, ikusten baitu... Goña Lizartzakoa.

Jainkoaren nahia ez othe zen, tenore hartan hola elgarretara zitezen, amaren aldean othoitz bat ona Piarresek egin zuen ondoan?... Urriagoa egina zen jada muthil gaztearen urhatsa. Ithurrirat heltzen ari zen neskatxa hura hain zen bertze hainitz ez bezalakoa!... Ez zuen sedazko galtzerdien beharrik izan behin ere, ez eta engana-xoro baizik ez dien aphaindura zerbeitenik, Piarresen bihotz garbian... barna bide egiteko. Bere adinik ederrenaren gainera, Jainkoak eman dohainak aski ziren. Eta, hala-hala, bere aldetik, dohain horietarik bertze hainbertze bederen bazauzkan Piarresek Goñaren begietan.

Batek bertzea bardin gora emanik ordu artean, behin ere oraino ez ziren menturatu beren barneko berriaren elgarri salatzerara. Urrundik bai eta gogoz, hau erranen eta hura erranen... Eta gero, hurbildik, deusik ez. Medaila bat eman, medaila bat har gerlako mentura txarrerri buruz, goraintzi bat igor eta goraintzi bat altxa, geroari buruz othoitzetan minenak elgarrekin kurutza... Bai, horiek ere egin ziren, erreki egin zitezken gauzak zirelaketz oro. Bainan, bertzerik erran eta egin behar baitzen ordean gaurgoiti, bekoz-beko!...

Eta hoi bera biek betan sumaturik, gorri-gorria eginak hantxet ziren beraz orai, elgarri hiru urhatsetan. Oihanaldeko andrea bieri hirriz ari bide zen aldiz, zeru gainetik.

—Jainkoak dautzula egun on, Goña.

—Bai zuri ere, Piarres.

Eta huna Jainkoa berehala heldu zitzaioleta lagun, bihotz on eta zuzeneri bethitik ohi duen bezala. Heien ondoan erasian atheratuz ari zen ithurrotxari ura bezala, elhea heldu zitzaioleten orai bieri, bardin garbi, bardin laño; bainan ez batre aintzinetik asmatu zuten bezalakoa:

—Alderat jina omen zaitugu holetan, Piarres? Jainkoak entzun ditu gure othoitzak. Zorion ahal da Oihanaldean!...

—Egia diozu, Goña, eta eskerrik minenak daukitzut. Bainan, zorion osorik ez da lur huntan guretzat, eta huts handi bat bada Oihanaldean...

—Hala da... Gaixo Gaxuxa, gaixo ama!...

Ixil-ixila zauden biak berriz ere.

Bainan ithurrotxa bethi ari zen; eta aphur bat ur-xirripari beha egon ondoan, burua altxatu zuen Piarresek:

—Behazu, Goña; Jainko maiteak ikusten gaitu, eta zure eta nere adinari ez

doakon bezala, gure amodio garbia ez dugu luzeago gordetu behar elgarri. Ez litake gisa... Gaixo ama erran duzu orai berean... Ama maite horren hobiaren gainean nintzen doidoia, eta iduri zitzautan hirriz bieri ari zitzaukula. Ez ninditake harrituko hemen bagindu orai ere gure aldean... Oihanaldean eta nere bihotzean ere harek egin huts handia ez zinduke bethe nahi, Goaña?...

Doi-doiako bat, ixilik gelditu zen neskatxa gaztea. Tanpaka ari, bi bihotz baziren, han, intha hertsian, tanpa hek batek bertzeari sumatzen baitziozkan edo kasik. Aldeko sasi batean, leiratuz, leiratuz, kantuz hasi zen xori pullit-pullit bat... Eta, axtian gorri bezenbat xuri-xuria egina, begiak erdi hetsirik mintzo zen orai neskatxa garbi lañoa:

—Ongi diozu, Piarres. Jainkoak ikusten gaitu; nahi ginituzken bezalakoak agian ikusiko gaitu bethi! Biek hola nahi behar dugu. Bainan goazen, eskualdun egiazkoak bethitik joan izan diren bezala. Jainkoaren mandatariak baitugu aldean: gure burhasoak. Amarekin jada egin ziren bezala, aitarekin hitzartu behar zira orai. Aita-amak baitut nik ere. Mintzatuko naiz etxean, othoitz eginen dut, eta, Jainkoak eta gure burhasoek hola nahi balinbadute, elgar maitatuko dugu Oihanaldean. Zuk igorririk, Lizartzara jin diteke beraz Thomas... Agur, Piarres...

* * *

Hegalak izan balitu ere Piarresek, ez zen arin hala eta zalu etxean sartuko, nola sartu baitzen goiz hartan. Jainkoarentzat, Goñaarentzat eskerrez urtzen zitzaion bihotza...

Eta, bizkitartean, zarrast egin zion bihotz harek, bazkariaren moldatzen ari, Marie bere arreba betbetan ikusi zuelarik, han, su-ondoan. (Doidoia landatik ethorria, piparen phizten ari zen Thomas).

Arreba maite hura ez othe zuen sobra ahantzi goiz hartan? Bereko higuin batez bertzerik othe zen, ama zenaren orde, etxek-andre paregabekoa Oihanaldean bethi agertu zen neskatxa bazterrerat hola uzten zuenaz geroz? Ilhundu zitzaizkon begiak, zimurtu arpegia... Eta, orori bethi ohartua zen bezala, horri ere ohartu zen Thomas:

—Jar hadi, Piarres. Hire itzulia elizan eginik eta, dudarik gabe, hil-herrietan ere hala-hala, xoria bezen alegera heldu hintzen... Zertako ilhundu haiz hola, Marieri behatu ta?

—Xoria bezen alegera heldu nintzela? Ez dut ukaturen. Marieri behaturik, ilhundu zaizkitala begiak? Hori ere hola da. Itsusi bat, nereko bat baizik ez nintzen eta!...

Eta muthiko on eta prestuak laño-lañoiki erran zituen goizeko gerthakariak oro.

Hura mintzo, eta begiak bethi ta gehiago argitzen ari zitzaizkon Marieri. Oro erran eta, Piarres eman zelarik bere buruari harrika, arrebetan maiteenaz zeren zen hain guti grinatu, arreba hura ondo-ondorat joan zitzaion; eta, hirri maite bat ezpainenat, erran zion:

—Milesker, Piarres. Bainan ez beltzuri itsusirik hola egin ez eta ere zure buruari. Behozu aitari: loriatua da eta, herriko neskatxa prestuena etxerat heldu zaiolakotz. Gure ama, zuhaurek diozun bezala, hirriz ari zauku zerutik: haren lana da eta ezkontza hoi!...

—Bainan, zu, Marie?

—Ni?... Behazadazu, Piarres. Oihanaldekik zu orai bost urthe urruntzean berean, Jainkoari errana nion: etxerat bizirik zu itzul-sari, joanen nintzela ni haren lur-huntako etxeño baterat, Uztaritzeko Serora Beltxen komenturat... Eta loriatua ikusten nauzu ni ere, zu Oihanalderat hola ethorririk, joanen ahal bainaiz —eta laster— Jainkoak bethitik nahi nauen gerizarat... Xo, Piarres! Ez nauzu gai kausitzen, beharbada?... Ala Oihanaldeko haur guzietarik bat ez othe zen behar Jainkoarentzat? Frantxa, Xaneta, ez othe dira hor heldu gibeletik? Ez othe dira hemen gelditzen?... Goaña nere adixkide minak, nere biharko koinatak, badazki horiek oro. Huts handi bat betheko da gure etxean. Elgarrentzat eginak zaizten bezala, zoazte elgarretara sainduki...

Xahartua nitekelarik, ilobatto bat igorriko dautazue harat, Serora Beltx izanen baita gero hura ere, ni bezala...

—Aitaren aldi orai, Marie...

Eta bere haurren artean eman zen Thomas.

—Ez zintezken hobeki mintza, Marie. Milesker zuri. Zure berri handiaz jelostua nintzen aspaldi, eta badut zorion bihotzean. Ez zaitut Jainkoari ebatsiko. Eta, huna, saria emaiten dautala berehala. Goaña bezalako neskatxa prestu bat zure ordain Oihanalderat igorritz... Zonbeit egun goiti-beheiti, Lizartzarako naiz Piarres. Anhartean, gure adixkide on jaun erretorari salatzen ahalko diozu berri handia...

* * *

Aitak manatu bezala, biharamunean berean, Piarres bazoan jaun erretorarengana. Eta berri ona jakin orduko, loriatu zen herriko artzaina:

«Hola, Piarres! Atsegin handiagorik ez zinautan emaiten ahal. Badakizu nehoren ezkontzarik ez dutala egiten biziki. Benedikatzen ba guziak, egiten arras guti, eta hola hobe da. Bainan osoki nere gogorakoa kausitzen dutala zuen ezkontza, goraki aithorturen dautzut. Goaña, Piarres, elgarrendako eginak zintuzten Jainkoak. Zato nere barnetto hortara; herriko arno hoberenetik jastatu behar dugu berehala, zuen bien zorionerat... Dohala Thomas Lizartzara, ez dio nehork beltzuririk eginen gain hartan...»

Eta, jaun erretorak erran bezala, beltzuri guti egin zioten Thomasi, Lizartzara zonbeit egunen buruan joan izan zelarik.

Harat heldu eta, jarri orduko, berehala, erran zion Batixtari:

—Batixta, bakarrik zira hemen andrearekin, Goñarekin; mila eta ehun parabola behar ditugula laborariek erran behar dugunaren erraiteko, parabolarik gabe batere erranen dautzuet gaurgoiti asmatzen duzuen: Gure Marie Uztaritzeko Serora Beltxetarat joaitekoa dugu laster; Goaña galdetzen dautzuet Piarresentzat. Ez dut uste elgar higuintzen duten eta etxek-andre hoberik ez dugu nahi Oihanaldean...

Eta gorri-gorria egina, suaren harrotzen hasi zen Goaña, harrotzearen beharra ukan balu bezala halako su alimaleak...

—Ongi da, Thomas. Banakizkan oro. Zuen Piarres maite dut; Goaña emanen diogu beraz eta arras gogotik... Ez dea hala, Goaña?...

—...

—Haur on bat joanen zait etxetik, bainan bertzeak heldu dire hor ondotik, eta etxek-andre bat badugu oraino Lizartzan, Jainko maiteari eskerrak... Bainan, Thomas, Oihanaldea zuhaurek aski maite izanez, onhetsiko duzu Goñari emanen diogula tokatzen zaion hura, eta hura bakarrik. Legeak eskuetan uzten daukun laurden hura Lizartzako daukagu.

—Ez nindake eskualduna, bertzerik nahi banu sekulan. Ba, Batixta, ba, gure etxe maiteak xutik atxik ditzagun! Gauza bera eginen diot nik Piarresi, Oihanaldean. Milesker, Batixta, Luixa, Goaña.

Eta xutitu zen Thomas.

—Zer! bazoazi? Jada?...

—Banoa. Bertzenaz, etxeko egurrak oro erreko dauzkitzue Goñak, ohartzen ere ez dela...

Eta hirriz hasi ziren lauak sukaldean.

—Bertzalde, guk, hemen, oro badazkigu. Bainan ez ordean bertze batek!... Eta gaurgoiti, bere karrikako itzulia eginik, xifritua, hantxet ahal dago Oihanaldeko athean! Ahantzia duzue, Luixa, Batixta, zer sukarra zinuten hola-hola, duela aspaldi, aspaldi?... Zer berri ereman behar diot gero, Goaña? Orogen buruan, hitzik ez duzu oraino atheratu?... Berri ona?

Eta ahapaldiari ongi-ongi ohartu ere gabe beharbada, Goñak ihardetsi zion maiteki:

—Ba, aita!...

* * *

Ondoko egunak eta asteak ere loria bat baizik ez ziren izan bi auzoentzat. Bazkariz kurutzatu ziren guti-aski, gauzak oro xuxen moldatzeko behar zen bezenbat. Hitzartu ziren uztailan berean eginen zirela ezteiak. Horrela, agorrilako lehen egunetan, Goaña Oihanaldean trebatua zitekenean, Uztaritzerat joanen ahalko zen Marie, etxeaz grina gaixtorik gabe gehiago.

Antolamenduak egin ziren, ilhunte batez, notariaren eta otruntza on baten aintzinean. Berria laster hedatu zen ordutik, nehor ez baitzen den gutienekorik harritu.

Xoragarri eginak ziren bazterrak, aro ederrenarekin guziak lanari lothurik herrian. Bost uda luzez etxetik urrun egon gudulariek beltzuri guti egiten zioten laborantzari, eta lanak bazoazin karraskan. Mendi urdinetako atheka beltzak urrunerat ikusirik, doi-doia orhoitu zen Piarres lehenagoko kontrabandaz. Sekulakotz gogotik eta bihotzetik joanak zituen ohiko sukarrak: gerla luze bat gaisetarik igan zitzaizoten alabainan. Gaixo ama!... Ez ahal zen guti loriatzen gain hartan!

Eta, gerla aintzineko bizi eder nasaia, Jainkoak egin dituen bizietan ederrena, erasian jali zen Senpereko mendixka-zelaietan.

Karrikako langilea lothua zen hura ere bere bethiko tresneri, tresna hek berriz ongi xorroxturik. Eta zurgin, zapetain, hargin, harotx eta bertzeek gehiago maitatu zuten oraino beren ohiko lana.

Zorion bazen beraz bazterretan, eta elhe maiterik baizik ez zen Piarresentzat eta Goñaarentzat, harotxerat, merkaturat edo elizarat bazoazilarik. Marierentzat hala-hala. Bekhaizti ilhun eta zimurtu batzuz bertzeak oro loriatu ziren, Oihanaldean berriz bozkariaturen zirelakotz. Izenik gabeko suge-letra tzar batzuek ethorri zitzaizkoten Piarresi, Goñari, suan berehala hauts eta erhauts egin baitzituzten. Bi gazte prestuak bazoazin aintzina beren bide maitean. Deus gordetzekorik ez zutelakotz beren amodio garbian, elgar ikusten zuten han, Lizartzan, burhasoen eta Jainkoaren aintzinean; eta bihotzak gaindi egiten zioten zorionarekin. Bainan, orhoit ziren, egurrak zinezko sua bezala, errespetuak bakarrik egiten duela iraunkor eta oso, bi gazten arteko amodioa. Errespetu hori gabeko amodioak, paperez eginikako suak bezala, phindar badu eta gar... zonbeit astez. Bainan gero, phindarrak suntsitu direlarik eta garra erori, surik ez da gehiago su-phizkian: lehen ere baino ilhunago iduri dute bazterrek. Errespetua eskas, sua eskas, nehor gehiago ez baita han berotuko. Eta aldiz, gar eta phindarrak joanak ditezkelarik —bethi joaiten ohi diren bezala— egurrak diraueno... badirau suak. Hala-hala, errespetuarekilako amodioak.

Igande arrats batez, ostatuan ikasirik, koplak berriak ekarri ziozkaten Piarresek harat, Lizartzako kaskorat. Eta, erdi goratik, huna zer kantatzen zioten:

GERLA ONDOAN

Airea: Lili bat ikusi dut baratze batean.

1

Behatua diotet oihan handieri
eta ikusi ditut arthaldez igeri!
Behatua diotet oihan handieri:
ederki hostaturik hirriz zauden neri!

2

Karrankaz airatuak, han, bortu-gainean
arranoak, lerroka, zeru gorenean
harat-hunat zoazin, librotasunean...
Soldado-xoririkan bat ez urrenean!

3

Ur-xirripa heldu zen, garbirik, goizean,

othoitzean Jaunari, kantu-erasian!
Xori papo-gorriak, leiretan sasia,
hurrupaño bat dio hartu, airatzean!

4

Barrandan egotu naiz, kanoia, zafraka
noiz behar othe nuen aditu, milaka...
Bildotx-ardiak ditut entzun marrumaka;
artzaina, ondotikan, heldu zen xixtuka!

5

Nere etxe xuriak —hirriz dena ari—
dir-dir egiten zion argi-zirrintari!
Erleak, burrunbaka lothuak lanari...
Andre-gaia zabilan... bihotza kantari!

6

Hil-mezuen orde, nik, alegrantzietan,
espos-oihuak ditut entzun elizetan!
Kapa ilhunak orai beude xokoetan.
Oi, zenbat joia pullit, gure herrietan!

7

Izatu naiz beilan gerla-tokietan,
eta zer ikusi dut hildo ilhunetan?
Ogi urhezkoa zen heldu lorietan!
Xori bat kantuz ari... kanoi baten puntan!

8

Ikusi izan ditut hango hil-herriak,
milaka han, martirak lerroka zarriak;
haxet zioten orok, hantxet eroriak:
«Bakea duzuela, Bakea Herriak!»

9

Eguerri zen, hain xuxen, nik uste gabean;
sartu nintzen, goiz batez, eliza batean;
Jesus-Haurra mintzo zen, bi taulen artean;
«Loria zeruetan! Bakea lurrean!»

J.B.

Bai bihotza kantari zuela Goñak! Bainen ez gutiago Piarresek! Kallak kantuz ari ziren ogi-landetan non-nahi. Lizartzako andrea lagun, neskatxa gazteak Oihanaldean egin zuen bere etxe-sartzea edo andre-gai lehenbiziko ikus-aldia.

Eta, hainitz tokitara hedatu den gerla-ondoko erhokeria tzar hura herrian sartzerat utzi gabe, jostatu ziren senperrak. Versailleko bakea sinatua zen eriaroaren hogoita zortziaz geroztik. Nahiz guk behar baino ahulagoak, erroak emaiten ziozkan halere San Martinetako bitoriari, eta Eliza-Phestak egin ziren beraz Senperen: pilota partida ederretarat, elizarat lehiatu zen jendea. Bainen ergelkeriarik ez zen ikusi nihon ere. Hilak, alhargunak, ume-xurtzak ez zituzten ahandzi nahi, eta gerlan erori 72 soldadoeri egin behar ziren harrizko orhoitzapenentzat diru handia biltzen ari zen jada herrian.

XVIII EZTEIAK

Zonbeit egun oraino, eta Piarres eta Goaña bat eginak zitezken Jainkoaren aintzinean. Oihanaldean, Lizartzan, ororen moldatzen ari ziren. Othoitzaz, Sakramenduez bere arima gehiago oraino edertu zuen Goñaak, eta eskerrik aski ez zuen Piarresek Jainko maitearentzat.

Gaxuxa zenaren mina sopra handia zuten Oihanaldekoek, gisa ez zenik deusere egiteko ezteietan. Musikarik ez zen behar: hoi... gauza ageria. Ez zukeen ere bertzela nahiko Oihanaldeko andreak berak, bizi oraino izan balitz.

Joanesenganik ikasia, bazakien Piarresek, seietan hogoi bazkaltiarretaraino biltzen zirela Garaziko etxalde on zenbeitetan. Senperen ez zen holakorik ikusten. Bainan han ere jada, asko jende apha baziren, beren indarrez gorago egun hetan altxatu nahi zirenak. Deus ez zitzaieten sopra orduan. Eztei gaitzak egin zirela heien ezteiak: horra heien gogo eta grina bakarra. Hirri maltzurak oro ikusi baluzte biharamunean eta mihi-sistako guziak entzun! Eta ethenduak, hustuak gelditzen ziren gero, ilhabetheak iraganen baitziren eta beharbada urtheak, hek deuseri lotzen hasi orduko: bazka... ferderik jana alabainan! Gaixoak! Norbeit ontsa orhoit zen orai heien ezteiez!

Bertze indarrak bazen Oihanaldean eta Lizartzan hala-hala; bainan bertze zuhurtziarik ere bai. Ahaideak han izanen ziren, behar ziren auzoak hala-hala. Piarresek galdeturik, ethorriko ziren pilotari lagun zonbeit, gerlako haren adixkide Mixel, Manex eta bertzeak. Joanes Garaztarra Senpererat jautsiko zela egun hartan, ez dugu erraitearen beharrik: hura gabe ez zitezken Piarresen ezteiak. Goñaren kantari lagun multxo bat jinen ziren hek ere: orotarar, berrogoi bat ezteiliar.

* * *

Espos bezpera goizean, Goña, Piarres, jaun erretorarenganik geroari buruz behar ziren argiak oro harturik, belhaunikatu ziren Mahain sainduan, eta hazkartuak altxatu, Jesus bihotzean emanik.

Eta bazen haro Oihanaldeko sukaldean eta etxearen inguruan ere. Oilo, ahate eta oilaxkoak eskapaka zabiltzan, berro-sasietan gorde nahirik. Bainan lerro-lerro gero, hil eta biphilduak, hedatuak ziren mahainaren gainean, hori-horia aztaparrak, gorri-ubel kukurustak. Su-alimaleko baten aintzinean, sekulako eltzeak lanean ari ziren kal-kal-kal. Elizako dorreak iduri, ez zen Katalinbroxik ageri, bainan bai, ordean, pastizaz zernahi leiho ondo guzietan. Eta, Lizartzako andrea eta Marie orori behatzaile, harat hunat bazabiltzan emaztekiak, beren ulitxekin uzteko hobeak baitziren segurki, hainbertze egitekoen erdian! Thomas, Piarres, arnoaren erausten ari ziren eta, erautsi bezenbat, selaururat eremaiten. Eta gero, Xemartin zurgina lagun, selauru eder hartan moldatu zuten biharamuneko mahain handi-luzea. Artexa zen Xemartin, osoki artexa, eta lana bazeraman airean. Bainan, tartean, paretari kontra xutik eman arno-untzi heieri behatu eta, ñir-ñir zioten begiek...

Baxenabarren, zonbeit aldiz bederen, egiten dire oraino etxe-sartze handiak, halakorik ez baita ikusten gehiago Senperen. Beren uso xuriekin kaskoan, hiru-lau katalinbroxetaraino lerroan agertzen dire, neskatxa gazteen besoetan; bazterrak oro dirdiran emaiten dituela, huna mirail handia; dena floka eta xingola, jauzika emaztekien buruaren gainean, horra zare edo otharre xuriak, gain-gaineraino ogi, arno, edari, zernahi puskez mukurru betheak; huna orai kutxa eder, ohe eta bertze mubleak, flokarekilako akilua eskuan, orgetan ekartzen baitutu etxeko-semeak, heien egile zurgina, mailu bat eskuan, laneko-soinetan heldu dela orgen eskuinetik; horra azkenean dotzen-erdi bat edo gehiago ahari, gizenak, ederrak, xingolaz estalirik, xixtuka bere aintzinean baiteramazka artzainak, bulunbulun egiten dutela heien goare handiek...

Ez, holakorik ez da gehiago ikusten Senperen, hoinbertzetarainokorik egin

ere bada sekulan. Garazin ere urthuz eta guttituz badoazi eta!...

Gainerateko linja eder batekin, kaskoraino metatu ziren mihiseak, armario handian. Marie lagun, Piarres eta Goaña Baionan izanak ziren joiaketa. Soineko, urheria eta bertze gauza, behar zirenak oro erosi zituzten hantxet, haur baten loriarekin erakusten baitzituen gero Goñaak, ondoko egunetan, bere adixkideeri. Ganbara bat pullita eginarazi zuten aldiz herrian berean.

Eta, dena floka, dena xingola, alde guzietarik heldu ziren orai Senperen deusak deitzen dituzten ezteietako ikusgarriak, bertzerik ez baitzen ageri kadira eta mahain gainetan, ohe gainean eta, hots, xoko-moko guzietan.

Arratsean, lehenagoko eskualdun gehienak bezala, lau lekukorekin, herriko etxera joan ziren Piarres eta Goaña. Paxkal Jaun Mera hila zen, zorigaitzez. Haren orde, jaun axuantak irakurtu zioten legea, bere zorionik hoberena gozo-gozoki erran, eta gizonen aintzinean bat egin zituen gero bi espos gazteak.

Afari labur baten ondotik, bere aitarekin etxerat joan zen Goaña: Lizartzako neskaxa gazte zen gau batentzat oraino... Oihanaldean, lanean arizan ziren emaztekiak arras berant arte.

* * *

Biharamunean, argia gabe, erne ziren bazterrak, han, Olhaso kaskoan.

Bazkaltiarrek heldu ziren, gain-gainetik aphainduak, herriko gizon... edo andre eginak izan balire bezalako patxada berarekin. Piarres, soineko beltz eder batean emana, botoin urheak athorra xurian, laster moldatu zen, nehoren laguntza handirik gabe; Mariek esku-ukaldi bat eman zion doi-doia, beren xiloetan botoinak ezartzeko. Eta gizon ederra zen egiazki Oihanaldeko premua!

Lizartzan, luzexago izan zen Goñaaren moldatzea. Espos egunean, ez zen lehenagoko eskualdun lephoko gorrasteder hetarik emaiten gehiago, ez eta kapa beltzik lephoko-tapiaren gainean. Bi dendari ez ziren sobra, ixkilima bat hemendik kendu eta haratxago ezar, edo bardin... aintzineko toki ber-berean. Xuxen behar zen alabainan mantelin luze xuria, xuxen hala-hala haren gaineko korona pullita! Geroan baliatuko zen soin eder batean, xuri eta beltz, medaila eder batekilako gathe-urrea lephoan, Piarres bezenbat ederra zen orai Goña. Eta hirriz ari zen, hirriz bi dendarien sukarrari, bainan gehiago biziki... bere bihotz-barneko zorionari.

Bizkitartean, norbeit eskas zuen oraino Piarresek Oihanaldean, eta atheraino joanik, beha eta beha zagon. Betbetan argitu zitzaizkon begiak: Joanes, Joanes Garaztarra haia-haia heldu, keetaren ondoan agertu zen, eta gero, bi jauziz ethorri bere adixkide minaren ondora. Sorbaldatik ezkerarekin elgarri lothurik, elgar inharrosi zuten, eta ezagutu zuten biek bethiko amodio bazela heien artean:

«Barkatuko daak, Piarres, bana ez duk gero Garazi Senpereko mugan! Goizeko hiru orenetan abiatua nuk etxetik!»

Thomas, Marie eta Oihanaldeko bertze haurrak oro ondoan zituen jada. Eta bethitik ezagutu izan balute bezala, berehala maitatu zuten guziek... Piarresek hainbertzetan aipatu zioten Joanes on eta prestua.

Bederatziak eta erditara zozan bizkitartean, eta Thomas oihuz hasi zen:

«Hots! Bagirea guziak?... Zoazte kontr-esposak Lizartzara.»

Goñaaren bilha, joan ziren beraz bi gizon gazteak. Eta, handik laster, inthari behera heldu ziren oro; xaharrak elgarretaratu ziren; Piarres bere muthil adixkideekin heldu zen, neskaxa lagunekin aldiz Goña. Arras goratik mintzo bazoazin oro. Goiz bat xoragarria zen, aintzinetik manaturikako goiz bat ederra. Eta jende eta gauza, guziek hirri egiten zioten esposeri, ogi-landa bazterretarik hola lorietan hek bazoazila.

Xoko beretik biak heldu zirelaketz, ez zen atheratzeko etxerik behar Plazan. Karrikarat arras heldu baino lehen, lerroan moldatu ziren beraz. Bere aitaren besotik eman zen Goña, bere Marie onarekin aldiz Piarres. Gazte multzo handiaren ondotik heldu ziren Thomas eta Luixa, eta gero adin bateko bertzeak oro. Gazteetarik zonbeit, gibel-gibelean, su-ziri batzu phizturik, banbaka ari ziren alderdi guzietara, emaztekiak karrasietan hasi baitziren lehenbiziko tiroetan. Piarresek hirri bat izan zuen ezpainetan. Aspalditik, Senperen, entzuten ohi ziren

tiro horiek, eztei-egunetan, xixpekin lehenagoko denboretan, su-ziriekin orai. Eta orhoitu ere ez zen gerlako bertze su-ziri batzuz; hain urrun ziren, gaur, lehenagoko, guduak!...

Eta, elizako xilintxa pullita zalapartaka ari zela, sartu ziren karrikan. Heieri maiteki beira han zagozin jendeak; Goañaren eta haren lagunen soineri behako baten emaiterat jin dendari-geiak; ikastera geroko ethorri gazte multzo bat; hola-hola lehen besoz-beso iragan ziren jaun-andre xahar batzu, eta mutxurdin zonbeit oraino... sekulan ezkonduko ez zirenak... Eta guziek maitetasunik baizik ez zuten agertzen aldarearen oinetara zoazin bi gazte onentzat.

* * *

Mahain-sainduaren aintzinean ziren orai. Eta, nahiz heien gibelean harramantz asko bazen kadiretan, iduri zitzaioten Piarresi, Goañari, bakarrik, bi-biak zirela, han, eliza handian. Aldare nausia dena argi, dena lore emana zen; hala-hala Ama Birjinaren aldarea. Lege zen bezala, neskaxen bandera xuri-xuria, muthiko gazteena gorri, xuri eta urdin, hedatuak ziren heientzat aintzin hartan.

Belhaunikatu ziren elgarren aldean, othoitz bat egin zuten; eta berehala han zuten jaun erretora, bi beattar gorriren erdian ethorria. Aphezaren loria handia zen eta ez zioten ukatu: herriko gazte hoberenetarik biga bat egitera zoazin Jainkoaren eta haren aintzinean. Gain-gainetik goretsi zituen Piarres, Goaña, heien bien familia edo sendiak. Hitz batez doi-doia, aiphatu zuen zerutik heieri beha zagon Oihanaldeko andre zena. Erran zioten: «Jainkotiar familia ederren beharra zoinen handia zen bazterretan; zoin handia zen, hortako bereko, Ezkontzako sakramendua; zer laguntzak zakartzken berekin hek bezalako espos gazte onentzat. Jainkoak nahiko zuen zorion izanen baitzuten, luzaz eta luzaz, lehenik lur huntan, eta bethi ta bethi, gero, gain hartan, hainitz haur, iloba eta ilobasoren erdian».

Erretoraren aintzinean, Joanes eta Mixel, Marie eta bertze ahaide bat lekuko, Piarresek eta Goñak kurutzatu zituzten orduan beren eskuak. Berriz oraino benedikatzen zituela aphezak, erhaztun urhea erhian sartu zion Piarresek Goañari. Elgarrenak ziren eta bethikotz! Meza saildua hasi zen gero berehala, esposek bezala guziek han bildutasunik handienean entzun baitzuten. Meza haren erraiten ari eta espos-andrearen benedikatzen, loriatu zen jaun bikarioa. Bere Piarresez bazuen alabainan espantu harek ere!... Ofertorioan, kurutzefika bat eskuan, joan zitzaioten aintzineran; eta kurutzefika hura ezarri zioten ezpainen gainean, hazkarkixko ere kaskatu baitzituen beharbada ezpainen hek. Lehenbiziko beren espos-musua horrela eman zuten beraz elgarri, Jesusen zauriak bitarteko.

Eta, ezkila handia, gerlako ezkila, musikan ezti-eztia Piarres xaharraren eskuek zerabilkatela, elizatik athera ziren ezteiak. Piarresen besotik heldu zen orai Goaña, eta beso haren gainean ongi finkatua, loria bat begietan bazoan, erregina maite bat bezen eder. Gazte multxoaren ondok eman ziren Thomas eta Luixa, Batixta eta Marie Oihanaldekoa; gibelean aldiz bertzeak oro. Lerro handia hedatu zen berriz ere karrikan, eta elizaratekoan bezenbat behatzaile bazuten alde orotarik.

Oihanalderat sopra laster ez heltzeko, eta Kattalin eta bertze eztei-bazkariaren moldatzaileeri behar zen asti guziaren uzteko, Santiagotegirat joan ziren hameketakoaren egitera. Lorez pulliki aphaindu athetik, hostailaz eginikako iaurki baten gainetik besoz-beso iragan ziren beraz jaun andre gazteak, eta bertze guziak gero heien ondok. Mahain xuriaren gainean ez zen deusen eskasik: kafe, xokolet, bixkotxa eta olata, arno xuri eta gorri, bazen han orotarik. Hirri ere bazen eta maitetasun. Trenpurik hoberenean jada, gazte batzu kantuz hasiak ziren, eta Frantxua, Piarresen pilotari laguna buruzagi-kantari, Iruten ari nuzu xaramelatu zuten, koplak bakotxa emanek bi arno xirristen tartean...

Banbaka, tiroak berriz ari zirela, bazoazin orai Olhaso kaskorat buruz.

Oihanaldeko atherat heltzearekin, Piarresek maiteki erran zion Goañari:

«Huna bururatua nere eta gu guzien amets ederra. Sar zaitte, Goaña, zure etxean zira hemen, eta Jainkoak nahiko du hainitz urthez izanen baitzira Oihanaldeko etxek-andre osoki maitatua.»

Eta, loriatuak biak, sartu ziren beren etxean...

* * *

Gizonek trikatu nahi izan zuten sukaldean, su-burdin ederren erdian eta sahetsetan hedatu eltze eta untzi mota guzieren behatu eta berehala lilluratuak oro. Bainan burruntzalia eskuan harturik, Kattalinek mehatxatu zituen eta feratu handik zalukara. Dena urin gainerat heldu zitzaienten zali beroaren beldurrez, karrasiaka hirriz igan ziren beraz ezteiliarrak eta joan selauru handirat. Eta berehala bazen alegantzia barne hartan!

eskualdun girixtino onen othoitz laburra eginik, hirriz ari oraino, jarri ziren zoin beren tokietan. Piarres eta Goaña eman ziren erdi-erdian, beren Marie maitea aldean; heieri parrez par aldiz Thomas, Luixa, Batixta. Joanes Garaztarra heldu zen gero adixkide minenaren tokian, eta bertzeak oro segidan, guziak bardin loriatuak. Ganix, Gantxume, Frantxa, Xaneta, prestu-prestua jarri ziren aldiz, dena lore, pastiz eta baxera baizik ez zen mahainaren zola-zolan. Eta salda hori begiduna ethorri zen berehala mahain haren erdira, eriak sendatuko zituen usain bat hedatzen zuela orotara.

Jainkoari esker, ez zen han eririk, eta, begien hesteko artean, klik eta klak, hustu ziren untzi xuri handiak. Herriko arnotik hurrupa bat ona xurgatu zuten gero, eta hats-hartze luze-luze bat eginik, hobeki zirela orai aithortu zuten guziek.

Zaluago egin ziren mihiak, luzeago besoak eta hertzeak. Bainan, gerla aintzineko eliza-phetetan bezala, zernahi heldu zen sukaldetik, eta hirriz hasia zen jada Joanes Garaztarra:

—Errak, to, Piarres. Ohoit hiza Craonneko haragiño hartaz, harrekin xurixuria ina baitzen eta gasna ustelaren parekua?... Eta Verdungo bixkotxa hartaz, ene hortzik hoberena kraskatu bainien hantxet, ahamenian hari lothuik, hortzeko pastizari sarri lothuko nizan bezala?...

—Orhoit naizenez?... Halakorik sekulan ahantziko othe dugu, Joanes?

—Izaitekotz ere, holako bazkari zonbeiten aitzinian... Baionako erreximendu guziaren asetzekua bahuke hemen, arimaz egia! Ez dea hala, ziek, Manex, Mixel eta beste gure lagunak?...

Eta, egia erran, oilo, oilasko, xaalki, ahate, Frantzia eta Espainia guzia heldu ziren bethi sukaldetik. Etxe-arnoak kurritzen zuen aldiz, arnozko ithurrotxa sortu balitzaiote bezala Oihanaldekoeri.

Kantu errepiketari hasiak ziren beraz ezteiliarrak; eta ez zuten gehiago gelditzerik, Piarres, Goaña eta Marie salbu, emaztekiak eta oro lothuak baitziren azkenekotz. Beren gaztetasuneko aireak aspaldian kraskatu boz batekin hala emaiten zituztelakotz, iduri zitzaienten hango xaharreri, berriz oraino gaztetu zirela. Eta hirri bitzi eta ximurtu bat bazoakioten ezpainetarik eta begietara, zinez hunkigarri baitzen heien hala ikustea. Dama gazte xarmant bat, Maitia nun zira, Lurraren pean sar nindaiteke, Uso xuria, bethiko edo bederen aspaldiko aire xaharrak hegaldatu ziren beraz Oihanaldeko laza handien azpitik, eta Olhaso kaskotik jautsi gero ibai zelaietaraino.

Dorre-bixkotxak kraskatu ziren, pastizak hala-hala. Fruitu edo igaliak urtzen zitzaizkoten ahoan guzieren, eta Iguzki-paretako arno xaharrak... urhea, urhe gorri pullit bat iduri zuen basoetan.

Alde guzietarik maiteki kitzikatua, Joanes Garaztarrak hasia zuen bere ixtoriottoa:

«Gomak, Piarres! Sobera arthatzen gituk! Behialako ezteiliarra bano gehiago ez gituk etxetik kasatukoahal! Eta bizkitartian, aitzindu hitzakiak oraikuan, eta ernatu behar diat Garazirat, hire burlarik ez izaitekotz... Nun ez dien andere hotarik batek enekin jin nahi gure mendietarat. Ordian, hiru lau aste gabe oro gomitatzen ziuztet ene ezteietarat...»

Zaflaka, hirriz hasi ziren guziak, eta ez gutienik hango ezkon-gai andere hetarik zonbeit, muthiko prestuaz berehala agradatuak, futxo!

«Beraz, jende maitiak, ezteiak bazitzun behin Garazin, egun bezalako eztei batzu gaitzak. Arratsa jin, biharamuna jin, ezteiliarrak oro noizbait jua eta,

hetarik bat bethi han ziozun, mahaitik ezin atheratia nehola ere, osoki han lakhetia eta lephoraino kokatia.

Bigarren eguerditan, bigarren arratsian, hura bethi han, eta bazterrak zinez kexatzen hasiak zitzun.

Afaldu zielaik, alegia eta norbaitek berri hori ordian ekarri, joaiten ziako zu nausia eta erraiten diako zu:

—Errazu eta, zure emaztia eritu omen duzu bat-batian.

Eta harek berehala:

—Hanbat gaixtoago, gizagaixua!... Bana, zer nahuzu nik in dezadan?

—Ez zinduke ikustea juan nahi?

—Zertako? Lanik aski baikezi orai gaixuak bere buruarekin ere!

Beraz, oherat juan zitzun berriz, berenak goguan. Biharamunian, etxek-andriak, hala hitzartuik bere senharrarekin, erraiten diako zu ezteiliarrari:

—Errazu eta, zure etxia erre omen duzu gau huntan...

—Erre? Ene etxia? Hanbat gaixtoago. Beharrik baitut hemen ene atherbia eta atherbe bat huna! Jinkuak esker diela! Bestenaz, hortxet, karrikaren gainian ninduzun!

Etxe hartako jenden errabia!...

Hirugarren egunian, zerbait in beharrez, nausi gaztiak erraiten diako zu baskal onduan:

—Errazu eta, bi ixtape eta jauzian har baginte jauzika, bazkariaren lixeitzeko?

—Berdin.

Nausi gaztia finki deliberatia zuzun, ezteiliarrak barnetik kanporat jauzin orduko, kanpua hantxet utziko ziela, eta briu brau gero athiak hetsiko. Bauk hoberik!...

Sukaldeko athetik eta kanporat, iten titzi beraz bi... alimaleko ixtape eta jauzi, etxetik bi hurrats urrunago.

—Zuri orai, hea nausituko zazkianez.

Eta, barneko aldetik athiaren ondoraino juana baitzen arrotza, alegia eta hobeki ikusteko, deskantsurik hoberenian ihardesten diako zu:

—Ene bethiko ara hola baitut, kanpotik eta barnerat jauzi inen dizit, gaitzitzen ez bazautzu.

Eta sekulako bulta hartuik, badiazu ezteiliarra athe handitik eta sukaldiaren erdi-erdira. Eta lehertia, han jarri zuzun berriz, afariaren beha jadanik plantatia.

Geroztik han diozu, etxe hartan berian, mahaitik ohera eta ohetik mahaira. Nausi etxek-anderiak, xoxotiak luzaz egon onduan, sendatuxiak ditzu orai. Bana, bethi han dizie beren ezteiliarra...

Berriz nik erran behar banu, gomak, Piarres! Sobera untsi gituk Oihanaldian! Kasu!»

Eta oro hirriz oraino ari zirelarik Garaztarraren atheraldi pullitari, Piarresek ere egiten zuen bere buruarekin: bai, zinez goxo zela Oihanaldean, eta gezurti bat baizik ez zela persularia, trufaz lehen erran izan zuelarik:

«Ezkondu arte zerbait banintzen,
ezkondu eta... deusik ez!»

Hain xuxen, Frantxua xutitua zen. Kafea heldu zen bero-beroa, sutan, pattantun hoberena ere ba untsi luxe-luxe batzutan. Eta Frantxua bere boz pullitenarekin hasia zen beraz kantuz:

GURE HERRIA... GURE!!!

Alhor handian, aita, belharren metatzen,
arratsalde erditan, deskantsuz ari zen.
Berho xokotik haurrek zioten behatzen...
Eta bere lanean aita zen xoratzen.

Sarrixago, haurño hek dira etxerako,
orga-belhar gainean dira hupatuko;
beren buru maiteak dituzte kurtuko,
heian, karrankaz, orga delarik sartuko.

Anharteaz beraz, han, bere alhorrean,
burdin-sardi xorrotxa tinki ahurrean,
harat-hunat badabil iguzki beroan,
iguzki beroari behatu gabeaz.

Hatsantua, hor noizbeit, behar du gelditu;
bere esku zainhartak kurutzatu ditu;
sardi-gider gainean pixka bat da kurtu...
Gozoki bazterreari diote behatu:

Hara, han-nonbeit, urrun, mendi ederrenak,
haize hegoak hurbil zartzen dituenak;
hara, aldiz, beltz-beltza, herriko oihañak,
hariztegiak eta phagodi ilhunak.

Hurbilago, huna hor, ohiko ibarra,
ur hegia salatuz doan zur-xuria;
Horra, xuri-xuria, Eliz-hil-herria,
Jainkoaren gerizan lerroka zarria.
Beraren erresuma huna non den hasten,
huna bere arthoak non diren luzatzen,
huna ogi-garia non den urheztatzen,
haizeak farra-farra duela harrotzen.

Aitaxok lehenago landatu aihena,
aztaparka badoa, iguzkira dena...
Ai, zer etxe-arnoia emaiten duena,
hil bat bere hobian, ber-phitz lezakena!

* * *

Bainan, hortxet, betbetan, landa bazterrean,
nor da hola agertzen, hor, gure lurtean?...
Nongo atrebitua, gure alhorrean,
Orori beha dago, begi ozarrean?

Behatze hortaz gauzak oro gaitzituak,
iduri du direla betan mudatuak...
Lehenago eskualdunak, hemen higituak,
lur-mokor bakotxetik hor dir'altxatuak!

* * *

Gure aita heldu zen, begia ilhunik...
—Zer behar duzu, jauna, hemen gureganik?
Zer nahi duzu, hiritikan jinik?
Ez dakit... bainan, jada, higuintzen zaitut nik!...

—Zer dirutan daukuzu etxea salduen?
Nahi duzun guzia dautzut ordainduen...
Jauregi bat ederra dugu altxaturen...
Eta, kolpe berean, zu aberasturen...

* * *

Ikare daldaretan aita emana zen,
begiak zitzaizkola biraka jalitzen...
Bere burdin-sardia bi eskuz du hartzen...
Doi-doiak egiten du... ez baitio sartzen!

—Zalu joanen zaizkit, zuhurra bazare;
bertzenaz, erroz-gora, gizon hil bat zare!...
Zure diru zikina atxikazu zure,
bainan utziren duzu Gur'Herria... Gure!

* * *

Zuri-zuria, huna gure hiritarra
haia-haia doala landari behera...
Haren ondotik aldiz, han harat, mugara...
Sainga'ta sainga zoan etxeko xakurra!...

* * *

Gure etxeen orde, jauregiak egin!...
Eta guk gure haurrak haziko... zerekin?
Herria utzi behar herriko lurrekin,
han, hirian, hiltzeko... gosetearekin!...

Sainga-zak hor, bai, sainga, etxeko xakurra!
Jende hoik erematzik Herriko mugara!
Gure etsaiak dituk; segitzak han hara!
Gur'haurrek behar ditek gur'herriko lurra!

J.B.

Esku-zarta ederrik bildu zuen Frantxuak, Oihanaldeko eta Eskual-Herriko kantua hola suharki emanik! Piarresi, Thomasi beha plantatu ziren guziak, eta kafe-kikerak oro altxatu ziren betan, Olhaso kaskoan bethi hazkar, bethi eskualdun gelditua zen etxe handiaren goresteko! Eta nigar bat jali zitzaion Thomas zaharrari, bihotza ikaratu Piarresi, persuek aiphatu arrotzaz orhoitu eta.

Begiak han nonbeit galduak, Mariek ikusten zuen aldiz bertze etxe bat, Oihanaldea ere baino hazkarragoa eta ederragoa zen etxe xuri-xuri bat. Eta saminki sumatu zuen, Jesus haren beha zagola orai etxe hartan...

Piarresetik, Goñak, biek amets bera egin zuten orduan, ametsetan goxoena: musean eta kaskoinkeriarik gabeko josteta garbietetan ongi deskantsatu ondoan, gau ilhunean urrunduko ziren ezteiliarrak, eta geldituko ziren hek... beren etxean.

Biharamunean, Garazirat Joanes itzuliko zen bezen laster, amaren hiltzaren gainean othoitz eginik, aste ondarreraino hegaldatuko ziren Lurdera. Batek bertzearen berri jakin gabe, gerla denboran biek egin izan zuten botua lorietan betheko zuten holaxet, Harpeko amaren oinetan...

Hek gibelerat orduko, jaun erretorak benedikatua zukeen ganbara berri pullita. Oihanaldean sartuko ziren alderat, eta, zerurat joaiten Gaxuxa zenak egin ziloa biek hola tapaturik, xutik berriz bazagoken Etxea!

Jainkoak hola manaturik, bertze Piarres eta Goña ttiki batzu ethorriko ziren, Jainko harek nahi bezenbat lerro luzean. Kattalin emagin xaharrak eremanen zituen bathaiatzera lephoko-tapia gorriaren barnean; eta, beren aldian, xutik atxikiko zuten hek ere Etxe hura bera...

.....

Amets hartarik, biak betan athera ziren; hirri maite bera izan zuten batek eta bertzeak.

Othoitz egiteko bezala, eskua eman zuten elgarri; eta eskerrak bihurtu
ziozkaten biek... eskualdun Etxeak bethitik begiratzen dituen Jainko handiari...

J. BARBIER
1929-urtharrilan, Senperen